

# ERRIA

eraldaketaarako aldiakari politikoa  
2018ko iraila / [www.eria.eus](http://www.eria.eus)

n2





**ederra bada herriagatik hiltzea  
zein ederrago herriarentzat bizitza  
herriagatik**  
behar baita bizi  
behar da irabazi

Joxean Artze



## 05 EDITORIALA

Iragana ikasgai, aro berri bati bultzada emateko printzak

14

SAKONEAN

PELLO OTXANDIANO KANPO ETA ZURIÑE GOJENOLA GOITIA

Sortuko Herrigintza idazkariak

“Estatu egiturak eta BOTEREA ERAKITZEKO

## ANBIZIOA

duen herrigintza  
behar dugu”

66

ÉCONOMIE

## Le temps des corps nus

DOSIERA: ARANTZAZUTIK ARNAGAN BARRU

HAUSNARKETA

76

**D1**  
**Txibertatik**  
estatus berri  
baterako  
akordiora

Rafa Diez Usabiaga

SINADURA

84

**D2**  
**Txabi**  
**Etxebarrieta**  
y la cultura  
política de la  
transición

Elixabete Ansa Goicoechea

SINADURA

94

**D3**  
**Subiranotasuna**  
**eta artikulazioa:**  
txanponetik  
poliedrora

Andoni Olariaga Azkarate

## 106 ESNATU EGIN GARA

SINADURA

## Helburu politikoak feminismo honentzat

Irati Jimenez Uriarte.  
Kazetaria eta  
idazlea.

114

ERREPORTAJEA

## Iparraldeko herrialdeen esperientzia berdintasunaren bidean

Elena Beloki Resa.  
Iratzar Fundazioa.

152

124

ELKARRIZKETA

## CAMILO CEJAS *Miembro del MPP de Uruguay*

130

SINADURA

## MULTICULTURALISMO Y CIUDADANÍA

Andoni Olariaga Azkarate.  
Iratzar Fundazioa.

138

## KRONIKA: ESCALA POLÍTICA EN CUBA

GOMENDIOAK



# EDITORIALA

## Iragana ikasgai, aro berri bati bultzada emateko printzak

Joxe Anton Artzeren 60ko hamarkadako poema bat dakarkigu ERRIAREN bigarren zenbaki honetan hasiera orrialdeetara. Herriagatik hiltzeaz, herriarentzat bizi zeaz. “Behar baita bizi, behar baita irabazi”. Garai berezia da bizi duguna. ETAREN desegitearekin ziklo politiko historiko bati amaiera eman zaio eta aldi berean azken urteotan ziklo politiko berri bat irekitzeko lanean ari gara. Ziklo zaharra, ziklo berria. Hori da zenbaki honetako artikuluak lotzen dituen hari nagusia.

Azken urteak estrategiak berrikustekoak izan dira; zirkulu ezberdinetan mintzagai izan da zaharra eta berria, zerk balio digun aurrera jarraitzea eta zer den berrikusi beharrekoa. Birpentsatze ariketan, gure herria bidegurutze historikoan dago, berriz ere. Eta burujabetzaren bidean eta Euskal Estatuaren eraikuntzan urrats kualitatibo berriak emateko baldintzak parez pare ditugu testuinguru historiko honetan.

Lehen orrialdeetan Zuriñe Gojenola eta Pello Otxandiano Sortuko Herrigintzako idazkariei egindako elkarritzeta sakona eta mamitsua aurkituko duzu. Zaharra eta berriaren arteko trantsizioaz mintzo dira, “egin den horretan (...) herrigintza ziklo berri baten osagai nagusiak” egon daitezkeela esanez. Gaur egun, duela 50 urte gertatu zenaren antzeko bultzada politiko eta kulturala behar dugula azpimarratzen dute, horretarako gakoak emanez.

Ez da kasualitatea zenbaki honetan Joxe Anton Artze azaltzea hasieran. Elixabete Ansak Txabi Etxebarrietaren figura aitzakia hartuta, Jorge Oteiza, Mikel Laboa edota Artze bera dakartzan bere lerroetara, 60ko hamarkadako testuinguru politikoak, sozialak eta kulturalak elkarren artean izan zuten eragina azaltzeko, herri bultzada kolektibo hura nolakoa izan zen ulertzen saiatzen. Bide horretan, Nora Aurrekoetxea eta Laura Ruiz Saenzek “andonik mezu bat bidali dit” artelanarekin, zein Oier

Zuñigak egindako ilustrazioekin, trantsizio une hau ikuspuntu artistiko batetik pentsatzeko ahalegin xumeak dira. Ansaren lanarekin batera, dosierrean Rafa Diez Usabiagak Txibertatik Kanbora, Lizarra-Garazitik pasata, urte guzti hauetan emandako urratsen gakoak azaltzen ditu guztia soka berean esekiz, zaharra eta berria eskutik doazela gogoraraziz.

Hala ere, garai zaharra ez da erabat itxi, ez eta berria erabat ireki ere. Urko Aiartzak abokatuak eta Sortuko kideak iraganeko zauriak ixteko Justizia Trantsionalak izan dezakeen balioa azaltzen digu munduko esperientziak oinarri hartuta, Euskal Herrian aldebarrez halako bide bat jorratzeko balizko zirrikituak aztertuz. Anaiz Funosas Bake Bideako kideari egindako elkarritzak ere gatazkaren ondorioak konpontzeko bidean gakoak ematen ditu Ipar Euskal Herriko esperientziatik abiatuz.

Ezkerrean ditugun eztabaidei so eginez, Camilo Cejas MPP eta Uruguayko Frente Amplioko kideari elkarritzeta bat dakarkigu. Horrez gain, olatu feministaren bueltan, bi lan mamitsu: batetik, Irati Jimenez idazleak hurrengo urteetan lantzeko ildo eta helburu politiko konkretuak proposatzen ditu. Bestetik, Elena Beloki Sortuko kideak iparraldeko Europako herrialdeetako berdintasunaren aldeko estatu politikak aztertu ditu, gure praktika politikorako baliagarriak izan daitezkeen irakaspenak atera nahian. Horiez gain, bi artikulu gehiago: batetik, Joseba Permach Iratzar Fundazioko kideak eta ekonomialariak politika eta ekonomiaren arteko harremanari buruzko hausnarketa interesgarria dakar; eta bestetik, eskuin muturraren eta eskuineko populismoaren gorakada dela-eta, ezkerrean puri-purian dagoen eztabaidea bat dakarkigu Andoni Olariagak.

Espero dugu esku artean ditugun erronkak kontuan izanda, aro berriari bultzada emateko printzak aurkituko dituzula. Erria burua!

## Aprendiendo del pasado, pinceladas para impulsar un nuevo tiempo

Traemos a las primeras páginas de este segundo número de ERRIA un poema escrito por Joxe Anton Artze allá por la década de los 60.

Habla de morir por el pueblo, de vivir para el pueblo. "Behar baita bizi, behar baita irabazi" ("Pues hay que vivir, pues hay que ganar"). Este tiempo que vivimos es especial. Con la disolución de ETA se ha puesto fin a un ciclo político histórico y, simultáneamente, la izquierda abertzale lleva ya algunos años trabajando para abrir un nuevo ciclo político. Viejo ciclo, nuevo ciclo. Ese es el gran hilo conductor de los artículos que conforman este número de la revista.

Los últimos años han sido años para revisar estrategias. Lo viejo y lo nuevo han sido tema de conversación en diferentes círculos. Se ha hablado sobre qué es lo que nos sirve para seguir adelante y qué es lo que hay que revisar. Una vez más, nuestro pueblo se halla en una encrucijada histórica. En este contexto histórico se dan las condiciones para dar nuevos pasos cualitativos en el camino de la soberanía y en la construcción del Estado Vasco.

En las primeras páginas encontrarás una profunda y sustanciosa entrevista con Pello Otxandiano y Zuriñe Gojenola, responsables de la secretaría de Herrigintza de Sortu. Hablan sobre esa transición entre lo viejo y lo nuevo. Dicen que, seguramente, "en eso que se ha hecho están los principales ingredientes de un nuevo ciclo de herrigintza", subrayando que en el contexto actual necesitamos un impulso político y cultural similar al de hace 50 años y ofreciendo algunas claves para ello.

No es casualidad que este número se abra con Joxe Anton Artze. Tomando como pretexto la figura de Txabi Etxebarrieta, Elixabete Ansa cita a Jorge Oteiza, a Mikel Laboa y al propio Artze para explicar la interrelación que existió entre los contextos político, social y cultural de la década de los 60, en un intento por comprender en qué consistió aquel impulso popular colectivo. En esa misma línea, la obra artística de Nora Aurrekoetxea y Laura Ruiz Saenz que lleva por título "Andonik mezu bat bidali dit" y las ilustraciones de Oier Zuñiga son un modesto intento por pensar este momento de transición desde un punto de vista artístico. Junto con el trabajo de Ansa, en el dossier correspondiente a este número de la revista Rafa Díez Usabiaga explica cuáles son las claves de los pasos que se han dado en todos estos años, desde Txiberta hasta Kanbo pasando por Lizarra-Garazi, ofreciéndonos una visión global. En definitiva, recordándonos que lo viejo y lo nuevo van de la mano.

Pero el viejo tiempo no se ha cerrado del todo y el nuevo no se ha abierto completamente. El abogado y miembro de Sortu Urko Aiartzza nos explica el valor que puede tener la Justicia Transicional de cara a cerrar las heridas del pasado. Tomando como base diferentes experiencias mundiales, analiza qué resquicios puede haber en Euskal Herria para abordar de manera unilateral un camino de ese tipo. Desde la experiencia de Ipar Euskal Herria, la entrevista con Anaiz Funosas, miembro de Bake Bidea, también nos da algunas pistas sobre la resolución de las consecuencias del conflicto.

Siguendo con los debates que tenemos en la izquierda, entrevistamos a Camilo Cejas, miembro del MPP y del Frente Amplio de Uruguay. En lo que respecta a la ola feminista, dos interesantes trabajos. Por un lado, la escritora Iratí Jiménez propone líneas de trabajo y objetivos políticos concretos para los próximos años. Por otro lado, la miembro de Sortu Elena Beloki analiza las políticas estatales de igualdad que se están aplicando en los países nórdicos, al objeto de extraer enseñanzas que sean válidas para nuestra práctica política. Además, otros dos artículos: Joseba Permach, economista y miembro de la fundación Iratzar, nos ofrece una interesante reflexión sobre la relación entre política y economía; por otra parte, debido al auge de la extrema derecha y el populismo de derechas, Andoni Olariaga trae a estas páginas un debate que vuelve a estar candente en la izquierda.

Esperamos que, teniendo en cuenta los retos que tenemos entre manos, encuentres en estas páginas algunas pinceladas para impulsar el nuevo tiempo. Erria burua!

## Leçons du passé, premiers pas pour impulser une nouvelle ère

Un poème de Joxe Anton Artze écrit dans les années 60 ouvre ce deuxième numéro d'ERRIA. Il évoque le sacrifice au service du peuple, et de vivre pour celui ci. "Behar baita bizi, behar baita irabazi" « Car il faut vivre, car il faut vaincre ». La période que nous traversons est particulière. Avec la dissolution d'ETA un cycle politique historique arrive à son terme. Parallèlement, cela fait plusieurs années que la gauche abertzale oeuvre afin d'ouvrir une nouvelle phase politique. Ancien cycle, nouveau cycle. Voici donc le fil conducteur des articles de ce numéro.

Ces dernières années ont été dédiées à une refonte stratégique. Le débat sur le changement de cycle a été mené dans divers cercles. Il a été question d'établir ce qui nous est toujours utile et ce dont nous devons revoir pour avancer. Force est de constater que notre peuple se trouve à la croisée des chemins. Les conditions historiques sont réunies pour réaliser un saut qualitatif dans la voie de la souveraineté et de la construction de l'Etat Basque.

Dès les premières pages tu trouveras une vaste interview avec les responsables d'*"Herrigintza"* de Sortu, Pello Otxandiano et Zuriñe Gojenola. Ils nous parlent de cette transition entre l'ancien et le nouveau, et précise que, « probablement, les principaux composants d'un nouveau cycle d'herrigintza » se trouvent dans « ce qui a déjà été fait ». Avant d'ajouter que nous avons besoin d'une impulsion politique et culturelle semblable à celle que nous avons vécu il y a 50 ans.

Ce n'est pas un hasard si ce numéro débute avec un texte de Joxe Anton Artze. En se référant à la figure de Txabi Etxebarrieta, Elixabete Ansa mentionne les artistes Jorge Oteiza, Mikel Laboa ou encore Artze afin de mettre en évidence l'interaction du politique, du social et du culturel dans les années 60. Il s'agit pour l'auteur de comprendre la nature de l'élan populaire et collectif de cette époque. En ce sens, l'œuvre d'art « Andonik mezu bat bidali dit » de Nora Aurrekoetxea et de Laura Ruiz Saenz, et l'illustration d'Oier Zuñiga sont autant de tentatives pour penser d'un point de vu artistique le moment de transition que nous vivons. Dans ce même dossier un article de Rafa Díez Usabiaga complète l'analyse d'Ansa. Rafa Díez Usabiaga décrypte les clefs des étapes franchies ces dernières années, des conversations de Chiberta à Kanbo, en passant par Lizarra-Garazi, pour ainsi mettre en évidence le fil conducteur de l'ensemble des processus. Il nous rappelle enfin que l'ancien et le nouveau sont indissociables.

Cependant, la phase antérieure n'est pas totalement fermée et la nouvelle n'est pas tout à fait enclenchée. Urko Aiartzza, avocat et membre de Sortu, nous explique la portée que peut avoir la Justice Transitionnelle lorsqu'il s'agit de refermer les blessures du passé. Se basant sur les expériences au niveau international, il étudie les possibilités d'appliquer ce concept en Euskal Herria de manière unilatérale. Par ailleurs, l'interview faite à la représentante de Bake Bidea Anaiz Funosas nous donne quelques pistes pour avancer dans la voie de la résolution des conséquences du conflit en se basant sur le chemin parcouru en Ipar Euskal Herria.

Toujours au sujet des débats existant au sein de la gauche, nous présentons une entrevue faite au membre du MMP et du Frente Amplio Uruguayen Camilo Cejas. Quant à la vague féministe, ce numéro comporte deux articles intéressants qui devraient contribuer à l'action de la gauche abertzale dans ce domaine : d'une part l'écrivaine Iratí Jiménez propose des voies et des objectifs politiques concrets à mettre en place lors des années à venir ; et d'autre part, Elena Beloki membre de Sortu étudie les politiques d'Etat en faveur de l'égalité existant dans certains territoires du nord de l'Europe. Joseba Permach membre de la Fondation Iratzar et économiste expose ses réflexions sur le lien entre la politique et l'économie. Enfin, Andoni Olariaga s'intéresse à un sujet qui monopolise les débats au sein de la gauche en raison de la montée de l'extrême droite et du populisme de droite.

Nous espérons que, compte tenu des défis que nous avons devant nous, tu trouveras dans ce numéro une source d'inspiration pour impulser cette nouvelle ère. Erria burua.

# ERRIA 2

14



36

50



58


67



D1  
76



D2  
84



D3  
94



106



114



124



130

138

# TXIO-TXIOKA

2018

**Atal honetan azken hilabeteetan gertatutakoentz nolabaiteko bilduma bat aurkituko duzu, motzean.** Umorea, satira, salaketa eta aldarrikapenak. Esanguratsuak izan dira besteak beste, ETAren amaierari lotutakoak, La Manada eta Altsasuko auziekin gertatutakoak, borroka feministak eman dituenak, Maravillas Gaztetxea eta Nafarroako aldaketarekin lotutakoak zein Spainiar atzeraldi demokratikoarekin gertatu direnak.... eta askoz gehiago...

oihana llorente  
@OihanaLlorente

La ley del aborto no te obliga a abortar si no quieres y el derecho de las mujeres a poder desfilar en el Alarde, tampoco te obliga a desfilar. Te puedes quedar en la acera a mirar.  
Lo que no puedes es decidir por mí.  
**#EmakumeakAlardean**

Translate Tweet



07/09/2018, 11:26

JordiMieltxio "who?/\*/\* @mikelirarte

Nola arraio iritsi dira horra?



9:40 PM · 23 mai. 18

144 Retweets 234 Likes

michelle oneill ✅  
@moneillsf

Momentous occasion as thousands gather to mark the disbanding of ETA and a new chapter for the Basque people. Onus on French & Spanish States to respond positively.



8:01 PM · 19 mai. 18

Arnaldo Otegi ✅  
@ArnaldoOtegi

Ellos dicen mierda, y nosotros no diremos amén **#Evaristo**



2:41 PM · 27 mai. 18

1.847 Retweets 5.118 Likes

GARA Iñaki Soto  
@gara\_isoto

Es fascinante ver a **@XavierDomenechs** o **@AdaColau** preguntar a **@QuimTorraiPla** si cree que hay catalanes de primera y de segunda. ¡Cómo no va a haberlos, si unos no pueden llevar adelante su proyecto legítimo, pacífico y democrático sin ir a la cárcel y otros lo tienen blindado!

2:34 PM · 14 mai. 18

959 Retweets 1.747 Likes

Arkaitz Rodriguez @arkar... · 20 mai.

Zorionak Ezker Abertzalearen komunitate osaari aspaldiko ekitaldirik hunkigarriena posible egin izanagatik. Erriberan esango luketen bezala, ¡somos mucho grandes!

@sortuEH  
@LABsindikatua  
@ernaiagazte  
#M19Miribillara  
#HERRitzmoaBIZtu



1 79 122

Jonathan Martínez  
@jonathanmartinz

No es que Cataluña se parezca a la Euskadi de los 80. Es que España se parece a la España de los 40.

11:01 AM · 07 mai. 18

9.768 Retweets 18,8K Likes

Ekhi Atorrasagasti U  
@ekhi\_atorra

**#LaManada** Sello oficial a la cultura de la violación. Y los chavales de **#Altsasu** bien lejos de sus familias y entre rejas.

5:07 PM · 21 eka. 18

## TXIO-TXIOKA

 patxi gaztelumendi @iPaxbi · 5d Aurten 50 urte #euskarabatus abian jarri zela. Mendeurrena beteko duen erakundea da #Euskaltzaindia

Mila esker Txillardegi, Monzon, Irigarai, Davant, Intxausti @jakin\_eus , frente kulturalekoak eta beste askori.

Hizkuntza bizi eta moderno bat darabilgu orduko haien esker.



3 18 27 +

 Xabier Usabiaga @XabierUsabiaga

Ze ondo eta nolako errespetuz hartzen ditugun Euskal Herrian atzerriko kirol ekitaldiak ere. Zorionak beste behin zaleoi ziklistei enbarazu egin gabe aldarrikapenak t animoak behar bezala uztartzeagatik!!



6:02 PM · 12 ira. 18

 Lula @LulaOfficial

“QUEREM ME PRENDER... PRA CALAR MINHA VOZ, MAS EU FALAREI PELA VOZ DE VOCES.” 



#LulaValeALuta

 Monica Limon @MonicaLimon

Pais Vasco:

1/2

- Caso Alonsotegi Eraikiz
- Caso Balenciga
- Caso Bidegi
- Caso Camara de Propiedad
- Caso Denokinn
- Caso Elorza
- Caso Epsilon
- Caso Glasa Costa
- Caso Gonzalo Riancho
- Caso Hacienda de Irun
- Caso Hacienda Guipúzcoa
- Caso Hiriko
- Caso Kutxabank
- Caso Margüello
- Caso de Miguel

17:26 · 2018 ns. 3

2/2

- Caso Miriano
- Caso Noticias
- Caso Pagalday
- Caso Plaoid
- Caso Sant Antoni
- Caso Txomin Renteria
- Caso Zambrana

Coste aprox. 163 millones de Euros [casos-aislados.com/Caso-por-comun...-is%20Vasco](http://casos-aislados.com/Caso-por-comun...-is%20Vasco)

La Audiencia de Bilbao juzga el caso De Miguel presentando una demanda de compensación legal por los daños públicos que implica a cincuenta del PNV alentado



17:26 · 2018 ns. 3

 Bulkada berrien garaia dal @BulkadaBerriak

Euskal Herri osoko gazteak, belaunaldi desberdinetakoak, hari fin eta luze batekin baturik: Euskal Herri sozialista eta feminista!

Laister atzoko argazki gehiago zabalduko ditugu.

#BulkadaBerriak



▲ Bulkada berrien garaia dal and 6 others  
17/09/2018, 13:12

 Albano-Dante Fachin @AlbanoDante76

Rivera buscando los dientes después del zasca. Esparcidos por toda la España autonómica.

 Albert Rivera @Albert\_Rivera

Un país federal como Alemania trata con igual o más dureza penal la rebelión/ alta traición que la España autonómica. Destruir una democracia europea se paga caro.

 Altsasu gurasoak @Altsas... · 17 eka.

Dos horas después del final de la manifestación todas las infraestructuras estaban desmontadas y el recorrido limpio. Ha sido una movilización ejemplar en todos los sentidos. // Bolondresek egindako lanak gaur ikusi dugun manifestazio eredugarria alhalbidetu dute. ZORIONAK!!



19 303 691



 Jonathan Martinez @jonathanmartinez

Replying to @jordievole

Las dos Españas, una de cal y otra de Llarena.

 Altsasu gurasoak @Altsas... · 17 eka.

Dos horas después del final de la manifestación todas las infraestructuras estaban desmontadas y el recorrido limpio. Ha sido una movilización ejemplar en todos los sentidos. // Bolondresek egindako lanak gaur ikusi dugun manifestazio eredugarria alhalbidetu dute. ZORIONAK!!



19 303 691

## TXIO-TXIOKA 2018

 **mario zubilaga**  
@zuribia

Una señora jueza, esposa de un coronel de la guardia civil y condecorada por la Benemérita, condena de 9 a 12 años de cárcel a unos jóvenes por lesionar un tobillo de un miembro de esa misma Benemérita. A esta pestilencia le llaman justicia en España. #AltsasukoakASKE

1:48 PM · 01 eka. 18  
2,888 Retweets · 2,981 Likes

 **iker bizkar**  
@GARA\_ikerbizkar

Euskal Herriko historia garaikideko mobilizaziorik handienak azken sei urteetan egin dira. Presoen alde, erabakitz esku bidearen alde (GED) eta borroka feministaren harira. Eta beste handi batzuk ere egon dira; hezkuntzan, pentsiodunak... Malenkonika hasperenik ez, beraz.

 **#HERRItmoaBIZtu** ✅  
@sortuEH

↗ Ezinbesteko da Estatu eredu alternatiboa.

Burujabea, autonoma eta solidarioa. Ongizatea lehenetsiko duena eta ez kontsumoa. Aberastasuna banatuko duena.

 **Miren**  
@miren\_zabaleta

Edonor duntasunez eta bakean agurtzea ez da delitoa. Maitasuna delitu ez den bitartean, behintzat.

**#KaleraBakealrabazteria**

5:17pm · 20 Mar 2018 · Twitter for Android

 **Hedoi Etxarte**  
@hedoi\_etxarte

Nik nahi dudan munduan denok dugu omenaldi komunitario eta politikoetarako eskubidea. Ez dute norbait atxilotuko omenaldiak plazetan eta kalean egiteagatik. Eta inolako administrazioek ez du erabakiko zerk bai eta zerk ez duen memoria merezi.

cc @Gob\_eus  
[diariovasco.com/politica/aintz...](http://diariovasco.com/politica/aintz...)



**Aintzane Ezenarro:** «Se puede querer...  
[diariovasco.com](http://diariovasco.com)

**#BobJessop**  
**#PentsioDuinak**  
**#m8grebafeminista**  
**#EuskalErrepublika**  
**#HERRItmoaBIZtu**



 **Ernai** @ernraigazte · 4h  
Pablo Casado, máster en caudillismo y tonterías varias.

- "Yo he venido a Alsasua a decir que viva la Guardia Civil"
- "No me dan pena los familiares de los presos de ETA"
- "El euskara no es el idioma de Navarra"

Etorri zaren bezala, bazoaz. Euskal Herritik kanpora!



 **Gorka Elejabarrieta**  
@gorka

Not only that, how many judges, army officials, police officers etc still in their posts, promoted & leading... Remember that d Spanish Constitution is a Francoist law, Spanish king was appointed by Franco himself etc And still some people wonder why we want 2 leave #Independence

New York Times World (@nytworld)  
Germany has no monument to Adolf Hitler. Italy has none to Benito Mussolini. But Spain has the Valley of the Fallen, a basilica hosting the remains of Francisco Franco. Now, a revised plan to exhume the dictator's remains has passed off a farce. [tiny.cc/mey4ar](http://tiny.cc/mey4ar)

12:18 · 2018 · 10 · 8

 **Gabriel Rufián** ✅  
@gabrielrufian

La inmersión comenzó en Sta. Coloma. Trabajadores andaluces, murcianos, gallegos, extremeños... se dejaron la piel porque sus hijos aprendieron la lengua de la tierra que pisaban. Tuvieron al fascismo enfrente. Ganaron. Ahora sus herederos también lo tenemos. Y también ganaremos.

 **Aitziber Garmendia**  
@AitzGarmendia

La sentencia de **#LaManada** me revienta el coño, el culo, la boca y las tetas. Me gustaría poder expresarme de otra forma, pero no puedo, no puedo no estar en la piel de la víctima. **#YoSiTeCreo**  
**#JusticiaPatriarcal**  
**#JusticiaEspañola** #MarcaEspaña  
**#hastaelcoño**

 **Oihana Etxebarrieta**  
@BetaurrekoMorea

Compañeras argentinas, os acuerpamos en este dolor y seguimos en la lucha. Nadie detendrá la revolución feminista! No nos pararan! Nadie, excepto nosotras, decide sobre nuestros cuerpos! **#QueSeaLey** **#AbortoLegalYa**



Tweet your reply

## TXIO-TXIOKA 2018

 **Jaione Sanz**  
@JaioneSanz

Soy navarra. Crecí en castellano. En la escuela y en mi entorno el euskera no existía. Hoy mi cerebro es menos flexible y mi bagaje cultural, inferior.

Qué tal si aparcamos de una puta vez la política y nos hacemos un favor: #inmersióningüística

 **Don Mitxel Erregea**  
@DonMitxel\_VI

Pues sí que están jodidos en Botsuana

Translate from Spanish

**@BrigadaTuitera @BrigadaTuitera**  
#España se sitúa al nivel Botsuana en independencia judicial, según el estudio del Foro Económico Mundial de septiembre 2017. Posición 58, de 137 países analizados, con un índice del 4,2; por debajo de Kenia, China, Arabia Saudí, Malta o Egipto.  
Pueden seguir viendo la tele...

Show this thread



 **#HERRItmoaBIZtu**   
@sortuEH

😊 Gaurko eguna luze gogoratuko dugu Euskal Herrian.

 **Zorionak gaur kalera ateratako emakume\*** guztioi 

🟡 Berdinien arteko Euskal Errepublika baten bidean...

**#HERRItmoaBIZtu!**

**#M8GrebaFeminista**

 **#HERRItmoaBIZtu**   
@sortuEH

Felicidades a Manuel **@lopezobrador\_**. Se abre la posibilidad de un cambio que lleve a México a un nuevo escenario. La solidaridad del pueblo mexicano reside en nuestros corazones. La solidaridad vasca seguirá estando con ustedes. Zorionak!

**#LopezObradorPresidente**



 **Imanol Nieto**  @imanolNietoCasa

Manuel Pastrana, guardia civil: «Los vascos son blandos. Cantan cuando se les toca un poquito» [bit.ly/2KCKDxz](http://bit.ly/2KCKDxz)

Gurutze Iantzi  
Torturada hasta la MUERTE. 24/9/93



 **mikel otero**  @otero\_mikel · 2d  
EAJ-ren eredua, beraien arabera, auzolana da.

Baina benetako auzolanean egindako ekimenak aurkezten direnean... erantzuna DEBEKUA da

#auzolotsa



Errekaleor Bizirik and 4 others

 **El Oso Ingeni**   
@OsoIngeni

Hoy he gestionado una actividad deportiva con niños. Un 47% quería jugar al basket. Un 43% al fútbol. Un 10% no se definía.

El 57% ha propuesto votar. El 43% ha dicho que ni hablar. Al final he dicho: "Jugamos al fútbol porque lo digo yo".

El 43% ha dicho: "Viva la democracia!"

21-09-2018 08: 9

604 erantzunek sortuak 1.338 erantzuden guztia zire

 **Marian**   
@mariannbelita

Siguen negándose a desclasificar los documentos que podrían ayudar a señalar responsables, ofrecer verdad, justicia, reparación a la familia. Señor Marlaska German también es víctima y su pueblo no le olvida. Hoy le recuerda Iruñea. Seguimos, seguiremos en ello **#germangogoan**

 **Josu Juaristi**  
@Josu\_Juaristi

He visto los suficientes campos de refugiados como para suscribir la definición que hizo la escritora australiana Alison Croggon: "The camp is the end of the liberal order, the end of the post-World War II world, the end of human rights".

# SAKONEAN

## PELLO OTXANDIANO KANPO ETA ZURIÑE GOJENOLA GOITIA

Sortuko Herrigintza idazkariak

\* Puedes leer el artículo en castellano en  
nuestra página web: [www.erria.eus](http://www.erria.eus)

“Estatu egiturak eta  
**BOTEREA ERAIKITZEKO**  
**ANBIZIOA**  
duen herrigintza  
behar dugu”



TESTUAK: **ERRIA**  
ARGAZKIAK: **FOKU**



SAKONEAN  
HERRIGINTZA





Urte eta erdi da Pello Otxandiano  
Kanpok eta Zuriñe Gojenola Goitiak  
Sortuko Herrigintza idazkaritzaren  
ardura hartu zutela. Tarte horretan  
Herrigintzak ziklo politiko eta historiko  
berri honetan bete beharreko  
funtzioaz, garatu beharreko  
estrategiaz eta praktika politikorako  
ereduaz hausnartzen jardun dute  
komunitatearekin batera. Aurreko  
zikloak eman duenaz jabetu, azertu  
eta aurrerantzean ere herrigintza  
Euskal Herriaren askapen prozesuan  
praktika zentrala izan beharko dela  
diote.



**“Egin den horretan  
daude herrigintza ziklo  
berri baten osagai  
nagusiak”**

**“Herri honetan  
herrigintzako energiak  
askatzea posible egin  
duen gako nagusietakoa  
Estatuekiko  
konfrontazioa  
eta haustura  
demokratikoaren  
aldeko hautua izan da”**





**R**aul Zelikek “La izquierda abertzale acertó” liburu dio Euskal Herrian herrigintzan egin dugun guztia ez diogula behar besteko baliorik ematen.

Hori da Durangoko herrigintza tailerrera eraman genuen ideia nagusietako bat. Raul Zeliken begirada horrek laguntzen digu eguneroko dinamikan murgilduta gaudenontzat zaila izan daitekeen perspektiba bat hartzen. Raul ez da bakarra Euskal Herritik kanpo hemen, azken 60 urteetan, egin den herrigintza balioan jartzen duena. Herri hau gai izan da gizarte premia zentralei erantzunak emateko herrigintzatik. Ikastolak, komunikabideak, kooperatibak, euskaltegiak, argitaletxeak eta abarrak apena baliabide instituzionalik gabe sortu ditugu. Esate baterako, euskarak egin duen biziberritz prozesua eredu da beste hainbat hiztun-komunitate minorizatuentzat. Eta hori guztia egin da balio-sistema bat oinarri hartuta: elkartedza, gizarte-kohesioa, komunitatearekiko konpromisoa, eta abar. Uste dugu ez daukagula egin den guztiaaren inguruko behar besteko kontzientziarik, ez eta ezker abertzaleak herrigintza honi guztia egin dion ekarpenaren ingurukorik ere. Hau ez da autokonplazientzia ariketa bat, inolaz ere.

Eta hori arazo larri bat da bi

## SAKONEAN HERRIGINTZA

zentzutan. Batetik, ziklo alda-keta honetan ezker abertzaleak identitate krisi bat izan dezake. Zer da ezker abertzalea? Zer egin dugu? Zer lortu? Esango genuke ezker abertzalea, batez ere, herrigintza sen eta grina indartsu bat izan duen komunitatea izan dela, Europa mailan aintzindariak izan diren gizarte-eral-daketa prozesuetan ekarpent kualitatibo izugarria egin duena. Horren kontzientzia hartzea ezinbestekoa zaigu, nortasun indartsu bat ematen baitigu. Eta harrokeriarik ez, baina harrotasuna bai eman beharko liguke. Bestetik, ziklo berri baten hasieran gaude eta horrelako trantsizio garaietan importantea da perspektiba historikoa iza-tea. Herrigintzari dagokionez herri-ondare historiko izugarri baten jabe gara. Bاليatu dezagun! Gaurko eta etorkizuneko herrigintza prozesuak zerotik pentsatzea akats handia litzateke. Memoria ezinbestekoa zaigu, atzera

begiratu behar dugu etorkizuna pentsatzeko orduan. Seguru aski, egin den horretan baitaude herrigintza ziklo berri baten osagai nagusiak.

Zelikek liburuan dio, bere ikuspegia alemaniar ezkerreko-libertariotik, Euskal Herrian kontrahegemonia gramsciar bat sortzeko gai izan dela askapen mugimendua, bere bueltan antolatu den ekosistemari esker. Gakoa autoeraketarako gaitasunean eta estrategiarengrabitate-zentroa instituzioetik kanpo kokatzean egon dela baiezatzen du. Zer diozue horri buruz?

Raulen tesia da ezker abertzalearen bertute nagusia autoeraketarako gaitasun hori izan dela hain justu, dagokion neurrian baloratzen ez dakiena; eta ez hainbeste euskal “identitatearen” defentsan erakutsi duen borrokarako grina. Ez gaude erabat ados horrekin, edo gutxienez planteatzeko moduarekin. Izan ere, herri honetan herrigintzako energiak askatzea posible egin duen gako nagusietakoa estatuekiko konfrontazioa izan baita. Haustura demokratikoaren aldeko hautuak ekarri du herrigintzarako gaitasunak askatzea hemen, neurri handi batean. Konfrontazioak aldagai ezberdinak izan ditu: militarra ezaguna zaigu baina, aldi berean, estatuen asimilazio saiakerei aurre

**“Euskal Herriaren eraikuntzan zentralak diren prozesuak elikatzeko gai izan behar gara, eta ez soilik dinamika osagarri bat garatzeko”**

egiteko ekimen indartsu bat egon da herrigintzatik egin dena, berdin hezkuntzaren esparrutik zein euskararen aldeko borrokatik edota beste hainbatetik. Esan nahi duguna da Espainiaren eta Frantziaren asimilazio saiakeren aurrean herri honen nortasunari eustearen aldeko bulkadatik eterri dela hain zuzen Raulek hainbeste miresten duen herrigintza aro hain oparo hau. Ezin daitezke auzi nazionala eta soziala askatu. Hori da ezker abertzaleak teorizatu zuena, hori da bere hipotesi estrategikoa, eta gure ustez, etorkizunera begira, hurrengo mobilizazio zikloan, gaurkotasun osoa duena. Beraz, ez gaude ados Raul Zelikek egi-

ten duen irakurketa horrekin. Kontua ez da atentzio gehiago jarri behar dela batean edo bestean. Bien arteko uztarketan asmatu izana da hain zuzen ezker abertzalearen “inbentoa”; Euskal Herriaren asimilazio saiakerrei aurre egin die herri-senez, autoeraketa oinarri izan duen herrigintza prozesu sakon batiekarpen importantea eginez.

#### **Leninista-libertario moduko bat izan ote den ezker abertzalea esan izan da...**

Autoeraketarako intuizio edo sen hori izan du ezker abertzaleak. Ezker abertzalea diogu komunitate soziopolitiko zabal gisa uler-tuz –ez termino organikoetan–,

azken 60 urteetan herri hau trakzionatu duten bi tradizio politiko handienetako bat izan dena. Sen horrekin planteatu diren proiektuak gizarte premia zentralei aurre egiteko saiakerak izan dira. Herrigintza hori ez da zerbaitek testimoniala izan. Iuntasolen esperientzia, komunikabideak, helduen alfabetatze eta euskalduntzerako euskaltegiak, euskal kulturak beharrezko duen industria sortzeko ahalegina eta beste hainbat egitasmo horren adibide dira. Hemen belaunaldi bat egon da, instituzio autonómikoek ezgaitasun edota kasuan arduragabekeriaren aurrean, Euskal Herriaren etorkizuna bere bizkargainean hartu duena. Importantea da perspektiba hori izatea. Guk herrigintza prozesu politikoaren erdigunean planteatu behar dugu. Autoeraketaren eta mobilizazioaren bidez Euskal Herriaren eraikuntzan zentralak diren prozesuak elikatzeko gai izan behar gara, eta ez soilik dinamika osagarri bat garatzeko. Herrigintza tайлerraren bueltan Iñaki Sotok idatzi zuen “leninismo libertarioa” izan dela ezker abertzalearen ekarpena. Definizio egokia izan daiteke hori. Autoeraketa oinarri hartuta, teorizazio gutxirekin, herri-senez, praktikatik eta herriareniko loturatik egin du ezker abertzaleak, batez ere. Horren gainean joan da egiten eta pentsatzen, baina beti ere euskal gizartearen premia zentralei erantzun eta Euskal Herria eraiki nahian. Hor datza izaera leninista: boterea eskuratzeko bokazioa eta anbizioa izan du ezker abertzaleak hasieratik. “Leninismo libertario” moduko bat izan da ezker abertzalea, bai, bi aspektu horiek uztartu ditu.

**Familia abertzale nagusiei erreparatz gero herrigintzarako bi eredu egon dira. Bata ins-**

**“Une honetan EAJn bi hautu daude: badira proiektu abertzalea likidatu nahi dutenak, besterik gabe Estatuarekin interlokuzio pribilejiatu bat nahiko luketenak. Eta bada beste jende bat, abertzalea dena, kezkatuta, badakielako hautu hori katastrofikoa dela termino estrategikoetan”**

# SAKONEAN HERRIGINTZA



**tituzionala, EAJren tradizioa, eta bestea ezker abertzalearen tradizioari lotua, marko instituzionaletik at. Hori baiezatu liteke? Zein izan da bataren eta bestearen ekarpena?**

Euskal Herria eta euskal gizartea trakzionatu duten bi tradizio politiko nagusi egon dira azken 60 urteetan: EAJ eta ezker abertzalea. EAJk ordezkatzen duen abertzetasunaren ibilbidea, XX. mende hasieran jaio zena, eten egin zen altxamendu faxista-rekin eta ondorengo Francoren diktadurarekin. Agirre lehendakariaren bueltako jendea akituta hil zen ez zuelako asmatu gerra ondoan Euskal Herriari aurrera biderik eskaintzen. Bidea berrantu zuten 78ko erreformarekin, sistema autonomikoa onartuz, esperantzaz autogobernuan sakontzeko aukera emango zuela. Hor badago tradizio abertzale bat –hegoaldeari buruz ari gara hemen– saiatu dena herri-eraikuntzan, sinistuz 78ko sistema konstituzionalak horretarako aukerak irekitzen zituela, lurrealde-eremu ezberdinaren burujabetzaren aldeko herri-borrondantea artikulatu ahala, Espainiarekin paktatuz, autogobernuan sakontzea posible izango litzatekeela.

Bestalde, beste tradizio politiko bat egon da erantzun bat eman ziona gerra ondoko eten horri. Abertzetasunari beste formulazio bat eman zion, ezkerretilik. Ezker abertzalea sakonean euskal demokraziaren aldeko hautu erradikal bat egin duen mugimendu soziopolitikoa izan dela esango genuke. Horretarako euskarri ideologiko ezberdinak erabili ditu garai bakotzean. Ezkerreko ideologia modernoetatik edan du –garaian nagusi izan direnak– baina beti ere heterodoxia emankor bati eutsiz. Iturri ezberdinak hartu eta nahastu egin ditu herri-ikuspegia lehene-



tsiz, Euskal Herrian antzematen zituen erronkei heltzeko behar zitzuten egokitzapen guztiekin. Ezker abertzaleak haustura demokratikoaren aldeko apustua egin zuen frankismoan eta ondoren 78ko erreformaren garaian, eta, ondorioz, neurri handi batean, bere ekarprena sistema instituzionalik kanpokoa izan da. Bere ekimen politikoaren grabitate-zentrua sistema instituzionalik kanpo egonda, ez diolako legitimitariek aittortu erreformatik erorri den sistema horri, 78ko erregimena deritzogunari. Ondorioz, bere ekarprena herrigintzatik egin du gehienbat.

Horiek izan dira gatazka politikoaren aro modernoa Euskal Herria trakzionatu duten bi tradizio politikoak. Bi paradigma antagonikoak maila askotan baina oinarri-oinarrian, herri-ikuspegi batetik -eta orain, zikloa amaituta, atzera begiratu pausatuago batez analisi hau egiteko moduan egon gaitezke-,

neurri batean komplementarioak izan direnak. Arzalluzek adierazi zuen hori metafora bidez: batzuek arbola astintzen dute eta besteek intxaurrek jaso. Paradoxikoki, ezker abertzalearen hautuak balio izan du daukagun autogobernu sistema hau erdies-teko -erresistentziarik egon ez balitz frankismoan ez genuke izango kontzertu ekonomikorik, telebista publikorik eta abarrik-, eta balio izan du autogobernu sistema babesteko joera birzentralizatzaileen aurrean. Beraz, hor bida harreman bat bi paradigmaren artekoa antagonikoa plano batzuetan baina komplementarioa ere bai zentzu batean.

#### **Ezker abertzaleak 2010ean agortutzat eman zuen bere estrategia. EAJrena ere agortuta dago?**

Bai. Ezker abertzaleak Zutik Euskal Herriarekin hasi zuen bere paradigma birpentsatzeko saikeria, segurueneik oraindik bukatu ez dena. Euskal demokrazia-

ren aldeko hautu erradikal hori gaurko gizarte baldintzetara, gaurko testuinguru politikora eta gaurko ezkerraren errealitatea eguneratzeko ahaleginean ari gara.

EAJko abertzaleek oraindik ez dute ariketa hori egin. Ez dute esplizitatu nahi izan bere paradigma agortu denik. Aurrerakoan ez da posible izango sistema konstituzionalaren batakit autogobernuan sakontzea. LOAPAREkin hasten den inertzia zentralizatzaileak sistema autonomikoaren muinari eraso egindio, eta 155ak eraso hori azken muturreraino eraman du. Ez da posible izango sistema konstituzionalaren baitan Gernikako Estatutuak ematen duena baino autogobernu maila handiagoa lortzerik. Hori horrela, gure us-tez, EAJko abertzaleek irakurketa zintzo bat zor diote herri honi. Une honetan EAJn bi hautu daude: badira proiektu abertzalea likidatu nahi dutenak, besterik gabe Estatuarekin interlokuzio pribilejiatu bat nahiko luketenak. Urrun daude herri honek behar duen lidergo politikotik. Spainiatik datozen politikak hartzen dituzte batere herri-ikuspegirik gabe, eta azken 40 urteetako eraldaketa prozesuen errentetatik bizi dira. "Hauxe da dagoena eta konformatu gaitezen", esango lukete. Euskal gizartea narkotizatzen dute jendearen beldurrekin jokatuz. Hori da joera nagusia alderdi barruan. Eta bada beste jende bat, abertzalea dena, kezkatuta, badakielako hautu hori katas-trofikoa dela termino estrategikoan, herri hau zulora doala bide horretatik.

Bi tradizio abertzaleentzat ere antzerako momentua da: XXI. mende hain konplexu hone-tan, gatazka politikoaren ziklo berrian, herri-estrategiak birpentsatzeko garaian gaude. Bakotzak berea egiteaz gain beharrezko da diagnostiko eta

errelato komun bat egiten hastea. Adibidez, Eusko Ikaskuntza 100. urteurreneko Kongresuaren harira egiten ari den narratiba interesarria da: herri hau erronka berrien aurrean dago. Horiei eusteko bulkada berri bat behar da, gutxi-asko XX. mende hasieran eman zenaren antzezkoa lehenengo instituzionalizazio saiakerekin eta abar. Hor bide oso bat dago egiteke.

**Azken urteetan deserrintza asko egin dela diozue. Zergatik diozue agorpen zantzuak nabi direla herrigintzan? Zein dira zantzu horiek? Beste sektore batzuetan konpartitzen da diagnostiko hori?**

Herri honen oinarri materialak ahulak dira hainbat esparrutan. Kulturgintzari erreparatz adibidez, globalizazio kulturalaren garaian gaude, estaturik gabe. Euskal kulturaren transmisiorako ez dago bermatuta ekosistema bat. Datu soil bat: eskola publikoan erabiltzen diren testuliburuen %70 Madrilen ekoizten dira, Euskal Herriaren batere ikuspegirik gabe. Bestalde, gaur arteko euskalduntze prozesuren topeak ikusten ari gara, eta euskararen etorkizuna ez dago bermatuta. Komunikazio sistema da beste adibide bat: ETBrena agortutako eredu da, adibidez. Digitalizazioaren garaian erron-

## SAKONEAN HERRIGINTZA

ka itzela da euskal komunikazio sistema bat eratzearena. Unibertsitateaz ere hitz egin beharko litzateke, unibertsitate sistema autonomo bat garatzeko ezintasunak zer ondorio kaltegarri sortzen dituen.

Adibideekin jarraituz, garapen eredu propio baten oinarria izan behar duen industriaren erronkak handiak dira etorkizunari begira. Ez badago lidero pu-bliko importante bat, ez badago ikuspegi autozentratu bat, eta etengabe ari bagara Spainiarenkin konparatzen, Spainiakoaren geroz eta antza handiagoko ehun produktiboa izango dugu, eta Europako erregio sozialki aurreratuenen arrastoa galduko dugu. Eta lan-harremanen esparru propiorik ez izatearen ondorioez gehiago hitz egin beharko litzateke: hegoaldeari dagokio-

nez, gure lan-harreman eredu espaniola da egitura produktiboa oso bestelakoa denean.

Adibide asko jar daitezke: gizarte dualizazioa, erronka demografikoa, sozioekologikoa, zaintza lanen prekarizazioa, hezkuntza sistemaren porrota, jatorri eta klase segregazioa gure herri eta auzoetan eta abar. Sistema instituzionala bera oso zaugarria da egun, eta daukagun botere erreala oso mugatua da. Hain da horrela ze badakigun Sanchez Galanek agindu ziola EAJri sozietate zerga jaisteko. Eta hori, seguru aski, PPren gobernuaren enkargu bat izan zen EAJri adierazteko nork agintzen duen hemen, eta argi uzteko posizio soberanistetara hurbiltzeak zer ondorio izan ditzakeen. Hori es-kandalu hutsa da!

Jon Sarasuak esan zuen, duela zortzi urte inguru, kontua ez dela botila erdi beteta edo erdi hutsik ikusten dugun, baizik eta botilak zuloa duela, ura galtzen ari dela. Euskarari buruz ari zen, baina uste dugu metafora horrek balio duela herri honen garenari loturako esparru guztitarako. Azken 60 urteetako herrigintza zikloan aktibatu diren eraldaketa prozesuen inertziak kudeatzen ari gara kasurik oneean, eta prozesu horietako asko agortu egin dira. Errentetatik bizi gara, eta herri honi erronka

**“Hemen herri-bulkada berri bat behar da, eta horretarako ditugun tresna guztiak aktibatu behar dira: herrigintzakoak, instituzionalak, politikoak, kulturalak eta abar, norabide batean eta narratiba konpartitu batekin”**

# “Euskalerrigintza: Euskal Herria, euskal eskala, erdigunean jartzen duen demokratizazio prozesua da. Hori fase politiko honetan zer da? Estatugintza egitea, naziogintza egitea eta euskararen biziberritze prozesuan aurrera egitea”

berriak eta inoizko konplexuenak aurkeztu zaizkio XXI. mende globalizatuau.

Hori horrela, hemen herri-bulkada berri bat behar da, eta hortearako ditugun tresna guztiak aktibatu behar dira: herrigintza-koak, instituzionalak, politikoak, kulturalak eta abar. Norabide batean eta narratiba konpartitubatekin. Aipagarria iruditzen zaigu dependentziaren kostuak aztertu dituen EHuko udako ikastaroarekin egin den urratsu. Estatuekiko subordinazioak Euskal Herriaren garapenari eragiten dion kaltea aztertu da lehen aldiz esparru akademiko formalean, eta bide bat zabaldu ikerketa berrietarako.

Iruditzen zaigu analisi hau oso partekatua dela sektore kualifikatuetan baina diskurso publikoaren erdigunera ekartzea falta dela, eta ikuspegi holistikoa bat ematea diagnostikoari zein aurrera begirako herri-erronkei. EAJ hori ekidin nahian ibili da, ez zaiolako interesatu. Nahiago izan du euskal oasiaren erre-latoa egin eta zentralitatean kokatu, eta alderdi interesak lehenetsi.

**Zein da herrigintzaren ekarpena burujabetza prozesuan?**

Herri honek, bere burujabetzan eta antolaketan aurrera egin dezan, ezinbestekoa izango da herri-aktibazio, mobilizazio eta autoeraketa ariketa herritar zabal eta sendo bat. Hori da, seguru aski, premisa bat aurrerakoan ere aldatuko ez dena. Aurrekozikloan instituzio propiorik gabeko egoeran aktibatu ziren herrigintza energiak, autoeraketatik heldu zitzaien gizarte-erronka zenbaiti, herri-erakunde propioen gabeziak sortutako beharrei erantzunez. Bada argudiatzen duenik egoera oso bestelakoa dela orain, instituzionalazio prozesu oso bat egin dela ordutik eta protagonismo ia erabatekoa erakundeena dela orain. Planteamendu instituzionalista huts bat litzateke honako hau, okerra erabat. Egoera aldatu da, bai. Egungo sistema instituzionala aintzat hartu behar dugu herrigintzan, noski. Ezin dugu planteamendu parainstituzionalik egin, ados. Baina, gauza jakina da gaurko gizarte-erronak inoiz baino konplexuagoak direla edozein ikuspegitik begiratuta ere, eta sistema instituzionalaren ahalmenak inoizko mugatuenak direla erronka horiei heltzeko orduan. Herri-erronka nagusienak heltzeko baliabide komunitario

guztiak aktibatu beharko dira, eta inoiz baino beharrezkoagoak izango dira instituzioen eta gizarte antolatuaren ekimenaren arteko elkar-elikatze prozesuak. Hau da, herrigintza inoiz baino importanteagoa izango da hemendik aurrerakoan.

Bestetik, orain arte erresistentzia ikuspegiz egin izan da asko, asimilazioari aurre egiteko beharretik. Orain, estatu-egiturak eta boterea eraikitzeko fasean gaude. Aspirazio eta anbizio hori daukan herrigintza behar dugu. Estatugintzarekin uztartuko den herrigintza behar dugu, biak eskuutik helduta joan daitezen.

**Globalizazio neoliberalari eta atzeraldi demokratikoari aurre egiteko, Euskal Herria ardatz duen proiektu politiko, ekonomiko eta kulturala beharrezkoa dela dio Sortuk. Euskalerrigintzaz hitz egin izan da. Zein izan beharko lirateke demokratizazio prozesuaren ardatzak herrigintza ikuspegitik?**

Gure ustez Euskal Herrian demokratizazio prozesuak –edo emantzipazio prozesuak– hiru dimentsio dauzka: estatugintza, naziogintza eta euskalgintza. Hiru dimentsio dira, elkar elikatzen direnak baina bereiztea ere

komeni direnak. Joseba Sarriónandiak ere halaxe planteatzen du “Lapur banden etika ala politikan”, ezinbesteko irakurgaietako bat gure iritziz.

Demokratizazio prozesuak estatu bat eraikitza eskatzen du, eta horretarako estatugintza egitea. Estatugintza nola ulertu behar dugun Jule Goikoetxeak argitzen digu ezin hobeto. “Demokrazia-ren pribatizazioa” liburua ere irakurgai ezinbestekoa da. Estatuaren teoria kritikoaren beste erreferentzietako bat Bob Jessop da, aurten gure artean izan duguna. Hor bada nahikoa oinarri estatugintza ulertzeko. Estatua ez da gauza bat. Harreman bat eta praktika multzo bat da. Estatugintza egunero egiten da sarri sumatzen ez ditugun praktika askorekin. Batzueta esaten da “nik ez dakit estatu bat behar dugun”. Estaturik gabe ez dago demokratizazio prozesurik, Julek ondo azaltzen duenez. Bainagainera, estatuak izan baditugu, espainiarra eta frantsesa. Beraz, kontua ez da estatua bai ala ez, baizik eta zelako estatugintza, estatugintzari demokratizazio agenda bat lotuko zaion ala ez. Estatu bat egitearekin batera nazio bat egin behar dugu, ondo imajinatutako nazio bat, Sarrik dioen bezala. Hori importantea da, bestela oso zaila baita proiektu politiko sendo bat eraikitza elkarri bizkarra emanda bizi diren nazio identitateek zatitutako gizarte batean. Gainera, aldaketa sakonak bizi ditugu euskal gizartean.

Hiru aldagai nagusik azpimarra merezi dute:

Bat/ globalizazio kapitalistak eragindako gizarte joerak –individualismoa, kontsumismoa, hedonismoa, kultur globalizazioa–.

Bi/ ziklo aldaketaren testuin-guruau abertzetasunak eraiki duen herri-imajinarioaren lausotze bat antzematen da, belaunaldi gazteengan batez



ere. Herri-imajinario hau izan da azken hamarraldi luzeetako herri-eraikuntzaren erregaa. Hiru/ aniztasun kulturala: datozen urteetan kultur eta jatorri ezberdinak jende asko etorriko da Euskal Herrira bertan bizi eta lan egiteko asmoz. Erronka izugarria da: aniztasun kultural hori guztia kudeatzeko eredu demokratiko eta inklusibo bat

eraikitza.

Euskal Herria bilduko duen ezein proiektu politikok –kasuan Euskal Errepublikak– ezinbestekoa du oinarri-oinarrian euskal komunitatearekiko pertenentzia sentimendu indartsu bat. Euskal proiektuari plano arrazionalean atxikitzeaz gain –demokrazia eredu, ongizate eredu, eta abar–, plano emozional edo

**“Ziurtasunak emango dituen eskaintza bat behar da, independentismoak erantzun sendoak eta konfiantza eman behar ditu jendea burujabetzaren errelatora erakartzeko; eta dialektika emankor baterako proposamen taktikoak egin beharko ditu”**

**“Soberanismoak eman ezean beste norbaitek emango ditu erantzunak. Euskal Herrian pentsaezina da gaur Marotorenak edo Frente Nazionalarenak bezalako planteamendu xenofoboak nagusitzea, baina hemendik hamar urtera, auskalo”**

**“Erronka dauden gizarte demanda ezberdinen artean artikulazioak bilatzea da. Horretan indar handia jarri behar da eta gu konbentzituta gaude artikulazio horiek euskal eskalan eraiki behar direla”**

**“Menperakuntzazko harremanak identifikatu eta izendatu egin behar ditugu, noski, baina praktika politikoan ezin gara purismoan erori, eraldaketarako potentziala automugatzen ariko baikinateke”**

sinbolikoan ere trinkotuko den komunitate bat osatzea, komunikazio eta elkartasun espazio bat. Bigarren plano horri zentzu emantzipatzale bat emateko ardura dugu, eta ez nolanahi-koa. Izan ere, Euskal Herrian neoliberalismoari eta bere ondorio sozial eta ekonomiko kaltetegarriei erantzun progresista bat emateko baldintzetan egon gaitezke datozen urteetan –hori iradokitzen dute pentsiodunen mugimenduak, feminismoa, Altsasuko auziaren aurrean artikulatutako erantzunak, eta abar-, baina inork ezin dezake ziurtatu, erantzun hau garaiz eta ondo artikulatu ezean, espazio hori xenofobiak beteko ez due-nik.

Hau ere, naziogintza, ondo uler-tu behar dugu. Nazioa ez da bukatuta dagoen zerbait. Nazioa egunero egiten da, etengabe ari da birsortzen. Kontua da zein al-dagai jarriko ditugun ariketa horretan eta zein artikulazio sustatuko ditugun. Euskal imajinarioa berritu behar da eta horretarako bulkada berri bat behar da. Kulturgintzatik ekarpen importantea egin ahalko litzateke horretan. Eta azkenik, beste gauza bat da guk hizkuntza minorizatu bat dugula, zapaldua eta ukatua izan dena urte luzeetan. Euskal Herria berreuskalduntzeko prozesu bat behar dugu, diglosi egoera-ri buelta emango diona. Hori ere demokratizazioaren parte ezinbestekoa da. Euskara ez da soilik komunikazio tresna bat, hizkuntza minorizatu bat da globalizazio kulturalaren garaian, desagertzera kondenatu nahi den hizkuntza bat, horrek duen esanahi politiko guztiarekin. Guik horri deitzen diogu Euskalerrrigintza, fase politiko honetan behar dugun herrigintzaren paradigmari. Zein da elementu komuna eta zentrala? Euskal Herria. Termino interesgarria iruditzen zaigu Euskalerrigin-tza, ezker abertzalearen tradi-

zio politikoarekin eta hipotesi estrategikoarekin lotzen baita. Euskal Herria, euskal eskala, erdigunean jartzen duen demokratizazio prozesua. Hori fase politiko honetan zer da? Estatugintza egitea, naziogintza egitea eta euskararen bizierritze prozesuan aurrera egitea. Hiru dimentsio dira. Esan bezala, beraien artean elkar-eklikatzen dira baina logika propioak dituzten prozesuak dira. Behar duguna da ekimen politiko bat hiru dimentsio horietako bakoitzak elikatuko duena.

**2018an olatu sozial handiak ikusi ditugu. Energia sortzaile berri bat nabari da. Deserrigintza asko egin da, baina behar den bulkada berria izan liteke hau? Zer ari da gertatzen?**

Azterketa sakonak beharko dira. Gure ustez, esan liteke, gutxinez, kuantitatiboki ez-ohikoa dela ikasturte honetan ikusi duen mobilizazio maila. Hemen gizartea mugitzen ari da.

Besterik da mugimendu guzti honen oinarrian zer dagoen. Beharbada oso goiz da konklusio oso biribilak ateratzeko, baina baliteke garai historiko honi dagokion erreakzio baten aurrean egotea. Kapitalismoaren krisi sistemikoaren aurrean bi erantzun mota ikusten ari gara Europaren zehar: bata faxistotik geroz eta hurbilago dagoen eskuin xenofobo eta populista da, eta gobernu autoritario eta teknokratikoengen ugaltzea horren islada.

Bestea kutsu progresista daukan erantzun populista da. M15-a, Nui Debout-a, prozesu independentistak –Eskozia, Katalunia, Kortsika– bere ezaugarri propioekin –estatu gabeko nazioak diren heinean demokratizazio prozesua estatuaren aldarrakapenarekin lotzen da–, Jeremy Corbyn fenomenoa, eta abar. Esango genuke jendeari espektatiba batzuk erori zaizkiola,

promesa liberala erori dela: “Lan egiten baduzu pentsi bat izango duzu, ikasten baduzu bizi osorako lan egonkor bat izango duzu, aukera berdintasuna ezagutuko duzu sexu/genero ardatzari dagokionez”, eta abar. Eta orain, gizarte sektore asko ikusten ari dira promesa horiek erori egin direla eta balitekeela gehiago ez bueltatzea, eta horrek haserrean sortzen du. Bestetik, autoritarismoari edo boterearen erabilpen arbitratioari elkartsunetik ematen zaion erantzuna ere antzeman daiteke, Altsasuko auzian oso garbi.

**Hori guztia burujabetza prozesuarekin lotu daiteke?**

Hori da gakoa. Hor dagoen magma horrek bide bat edo beste bat egin dezake. Soberanismoak eskaientza politiko bat egiteko aukera dauka egoera ondo irakurtzen asmatzen badu. Diagnostiko zorrotza egitea oso garrantzitsua da. Ez gaude momentu preintsurkzional batean, jendea ez dago edoztarako prest independentzia edo dena delakoa lortzeko. Aldaketarako gogo bat egon badago, baina beste leku askotan baino hobeto bizi garenaren kontzientzia ere bai, eta daukaguna galtzeko beldurra ere bai. Ziurtasunak emango dituen eskaientza bat behar da, independentismoak erantzun sendoak eta konfiantza eman behar ditu jendea burujabetzaren errelatoria erakartzeko; eta dialektika emankor baterako proposamen taktikoak egin beharko ditu –beti egin duen bezala–, gizartean puri-purian dauden identitate kolektibo horien artikulaziorako. EAEko autogobernu ponentzian erdietsi den akordioan egon daitezke XXI. mendeko alternatiba demokratiko baterako eduki politikoak.

Pentsamendu majikoa arriskutsua da. Bada subjektu independentistaren artikulazioa salto kuantiko baten gisara irudi-

katzen duenik: konfrontazioa eta borondatza besterik ez dira behar independentismoa hegemonikoa izan dadin. Hori baino konplexuagoak dira gauzak, zorritxarrez. Dekantazioaz hitz egin zen Abianen, horrek artikulazioa esan nahi du, eta artikulazioak praktika politiko dialektriko bat eskatzen du. Eta batez ere pragmatismo eraldatzaile asko eta idealismo gutxi, Edu Apodakak esan izan duen bezala.

Dagoen magma sozial horrek guztiak aukerak irekitzeaz gain ardura handia ere jartzen du gure bizkar gainean, lehen esan bezala, soberanismoak eman ezean beste norbaitek emanago baititu erantzunak. Euskal Herrian pentsaezina da gaur Marotorenak edo Fronte Nazionalarenak bezalako planteamendu xenofoboak nagusitzea, baina hemendik hamar urtera, auskalo.

**Ezker abertzalearen kultura politikoan ez dira herrigintza eta ekonomia uztartu izan, Katalunian ez bezala. Gaizki iku-sia ere izan da, neurri batean bederen, herrigintza eta ekonomia lotzea.**

Hori UEuko ikastaroan aipatu zen. Bai eta ez, esango genuke. Alde batetik, sindikalismo abertzale indartsu bat egon da hemen Katalunian ez bezala, kontraboterezko sindikaligminta izan dena neurri handian, baina hainbat gogoeta egin dituena eraikuntza klabeetan ere, Gaindegia bezalako proiektuak mahaigaineratu dituena, adibidez.

**SAKONEAN  
HERRIGINTZA**

# “Indar handia jarri behar dugu dauden gizarte demanda ezberdinen artean artikulazioak bilatzen”

**E**zinbestekoa da borroken eta subjektuen fragmentazioa gainditzea, lehia guztiei egitasmo integralen baitan aurre egitea” dio Hamaika Begiraden Go-goeta dokumentuak. Zein izan beharko litzateke minimo komun txikiena? Nola egin aurre ezkerrean horren ohikoan den fragmentazio joerari?

Neoliberalismoa subjektu emantzipatzalea zatitzen saiatzen da. Gure erronka identitate kolektibo ezberdinen artean artikulazioak sortzea da. Horretan indar handia jarri behar da, eta gu konbentzituta gaude artikulazio horiek euskal eskan eraiki behar direla; edo, hobe esanda, euskal eskalak artikulaziorako aukerak biderkatzen dituela. Euskalerrigintza da emantzipazio prozesurako bidea.

Feminismotik interseksionalitatearen teoria proposatu da artikulaziorako. Eta oso baliagarria iruditzen zaigu botere harremanak identifikatzeko, subjektuak ahalduntzeko eta aliantzak josteko. Gutako bakoitza, eta baita talde gisa ere, nondik abiatzen garen eta, botere harremanei dagokienez, une oro non gauden aztertzeko balio digu. Beti bezala kontua da teoriari zein erabilgarritasun politiko ematen zaion, eta honekin ere egon daitezke arriskuak. Egon daiteke planteamendu bat esaten duena praktika politikoa subalternitateak gurutzatzen diren lekuak bakarrik egin behar dela, toki pribilejiatu horretan non botere harremanak identifikatu, izendatu eta deseraiuntza prozesuak egingo ditugun. Horrela ulertzugero, ez dago praktika politiko eraldatzailerik.

Adibide bat jartzearren: Gara erosten badut menperakuntzazko botere harremanak erreproduzitzen ari naiz, gaztelera hizkuntza hegemonikoa den neurrian. Logika berari jarraituz, espainolez egiten den estatugintzarik ez dugula nahi esan ahalko genuke. Eta feminismo español bat ere ez, noski. Baino datorren urteko Martxoaren 8a, Bilbon, seguruenik, oso española izango da, oso hispanozentrista. Zeren gauza bat da mobilizazioa antolatuko duen mugimendu feminista, eta beste gauza bat nork jarriko dion horri marko politiko-mediatiko orokorra. Seguruenik gehiago jarriko diote La Sextak eta Podemosek Bilgune Feministak baino, zoritzarrez. Beraz, joan behar gara ala ez? Esan nahi duguna da menperakuntzazko harremanak identifikatu eta izendatu egin behar ditugula, noski, baina praktika politikoan ezin garela purismoan erori, eraldaketarako potentziala automugatzen ariko baikinateke. Bestela identitate politika hutsak egiten bukatu genezake,

arreta differentzian jartzen subjektuen arteko artikulazioa ahalbidetzen eta eraldaketa posible egingo duten narratiba konpartituak josten baino, neoliberalismoak hainbeste desio duen subjektuen fragmentazioan sakontzen. Badira zentzu horretan hainbat kritika multikulturalismoaren diskurtsoari, dibertsitatearen ospakizunari, eta abar. Nancy Fraser, Angela Davis eta beste intelektual feministak batzuek %99rentzako feminismoa aldarrikatu zuten martxoaren 8aren bueltan, adibidez.

**Mario Zubiagak identitate logika, botere logika eta eragin logika aipatu zituen UEuko “Herrigintza aro berri baterako begiradak” ikastaroan...**

Bai, eta praxi politikoaren ikuspegi integral bat hartzen laguntzen digu. Hiru logika, hirurak beharrezkoak. Bata identitate logika; logika honen arabera nik identitate bat daukat, autonomiaz jokatzen dut, bestek interpelatzen ditut eta gatazka sortzen dut. Gatazka mugatua da zeren marjinala naiz indar-harreman orokorreai dagokienez, baina gatazka esplizitzen dut. Gatazka beharrezko da demokratizaziorako. Bigarrena, botere logika. Logika honetan demanda ezberdinak artikulatzen saiatzen naiz. Gatazka automugatzen da, zeren artikulazio saiakera horretan ezin ditut demanda batzuk nahi beste erradikalizatu. Bilatzen dudana da artikulazio handi bat, adostasun zabal bat boterea lehiatzeko gai izango dena. Eta azkenik, eragin logika: ni niretik salatzen naiz egiten eta beste eragile batzuk limurtzen nirea onar dezaten. Hiru logikak dira beharrezkoak. Ez dira estankoak, nahastu egiten dira sarri eta tentsioak sortzen dira beraien artean. Arazoa da identitate logikan soilik kokatzea eta praxi politikoaren integraltasunari uko egitea. Horren adierazle nagusia ELA da momentu honetan, gutxienez bere diskurtso publikoan. Besterik da logika horretan eraikitzen duen diskurtsoa zenbateraino den koherentea bere praktika sindikalarekin, afiliazio egiturarekin, eta abar. Kontrara, bada beste jende bat identitate logiketan funtzionatzen duena, baina kontziente dena funtzio konkretu bat betetzen duela sistema baten baitan, eta beste funtzio batzuk beteko dituzten eragileak behar direla, argi baitute praxi politikoak logika ezberdinak behar dituela.

Bestetik, Arrasateko esperientzia kooperatiboa ere hor dago. Jende askok ulertu du kooperatiben paradigma bazegoela herri-erai-kuntzarako esparru importante bat, eta bere ekarpen militantea kooperatibetan egin du. Esango genuke lehen aipatu dugun herrigintza sen hori lan duinaren sorreran, enpresen demokratizazioan eta abar ere gauzatu dela Arrasateko esperientzian. Besteak da Mondragonen bilakae-rarekin kritikoak izatea. Baino deigarria da oso Erik Olin Wright bezalako autore batek –errefrentzia dena marxismo analitikoan–, edo Raul Zelikek berak “La izquierda abertzale acertó” liburuan esaterako, Arrasateko esperientzia nola baloratzen duten irakurtzea –bere bertuteak eta akatsak kontutan izanik–, eta Euskal Herrian, ezkerreko hainbat sektoretan, esperientzia horren analisi kritikoa egiteko zer pereza intelektual antzematen den. Edozein kasutan, ekonomia sozialak euskal ekonomian duen pisu espezifika salbuspenezko zerbait da mundu mailan, eta horrek, zalantzak gabe, baduzerikusirik Euskal Herrian egon den autoeraketarako senarekin. Halere, egia da, ezker abertzalearen imajinario kolektiboan, herrigintza aipatzean, euskara, hezkuntza, komunikabideak, kulturgintza, ikastolak datoz-kigula burura. Euskal kulturgintzaz hitz egiten da –gutxi, esango dute askok– baina euskal kulturgintzak behar duen industriaia ia batere ez. Ados gaude, zalantzak gabe, aldagai ekonomikoa herrigintzan txertatu beharrarekin, esparru guzti-guztietan. UEUko “Herrigintza aro berri baterako begiradak” ikastaroan horretaz pixka bat hitz egin genuen. Hemen badugu sindikalgintza abertzale indartsu bat, mugimendu kooperatibo bat hamarkadetako ibilbide eta memoria kooperativoduna, eta orain, gainera, lanaren buru-

betza helburu duten esperientzia askotarikoak ikusten ari gara. Belaunaldi gazteengan ikusten da aspirazio bat, gogo bat, lana-ren jabe izateko, burujabe izateko lanari dagokionez ere. Ekonomia sozial eraldatzailean badira praktika batzuk –Koopfabrika kasu– hori lantzen ari direnak. Errealitate berri bat dator: lanbaldintzen prekarizazioa, botere sindikalaren galera lan-erreformen eta desregularizazioaren ondorioz, baita bitartekaritza egituren krisiaren ondorioz ere. Bestalde, lanaren burujabetzan sakontzeko gogo bat ikusten da ahal den neurrian. Horrek sindikalgintza zein mugimendu kooperatibo tradizionala interpelatzen ditu. Zein bultzada emango diogu horri batetik eta bestetik? Hori aztertu behar da. Lana-kapitala antagonismoa birkontzeptualizatu daiteke eta borroka hori lantokietara era-man aukerak dauden lekuetan. Lanaren demokratizazioa modu integralagoan abordatu daiteke: enpresen demokratizazioaren inguruaren pentsatzen hasi, langileen parte-hartzearen inguruaren –parte-hartzea ez bakarrik kudeaketa edo irabazietan, baita kapitalean ere–, eta horretarako konfrontazio bide bat zabaldu. Hor badago borroka esparru oso bat euskal garapen eredu batekin lotu daitekeena, aberastasuna nola eta zertarako sortu planteatuko duena. Horretan guztian zer dugu gure alde? Euskal Herrian paradigma kooperatiboa garatua dugula bere kontraesan guziekin, ekonomia sozialak pisu espezifiko handia duela euskal ekonomian. Esperientzia bat badugu eta hortik ikasi daiteke: bere garapenean sor daitezken disfuntzioak, egon daitezkeen arriskuak eta abar. Hori gure mesedetan dugu. Bestalde, badugu sindikalismo indartsu bat kontrabotere papera jokatu dezakeena, eta hori osagarritu bestelako ekimen

**“Euskal Herrian, hainbat ezkerreko sektoretan, Mondragon esperientziaren analisi kritikoa egiteko pereza intelektuala antzematen da”**

**“Euskal Herriaren eraikuntzari begirako lan-lerro nagusien identifikazioa modu partekatuan egitea aurrerapausu kualitatiboa da”**

**“Hizkuntza ereduek ez dute gehiagorako ematen, eta gainera segregazio iturri izaten ari dira. Murgiltze ereduaz hitz egiten hasi behar da”**

**SAKONEAN  
HERRIGINTZA**

sindikal batekin. Eta hortik hasi gitezke hitz egiten ez soilik aberastasuna nola banatu, bai-zik baita produkzio ereduaz ere. Estatu proiektu bat pentsatzen hasita, aberastasuna nola sortuko da? Zer sortuko da? Galdera horiei erantzunak bilatzen hasi behar gara.

Beti daude arriskuak. Ekonomia sozialak planteamendu endogeno-korporatiboetan bukatzea izan liteke bat, adibidez. Beraz, estatuak funtzio erregulatzaile eta birbanatzaile argi bat izan behar du ekonomian. Baino badugu oinarri nahikorik alternatiba sozioekonomikoetan anbizio honekin pentsatzen hasteko, gizarte eta produkzio harremanak aldatzeko anbizioarekin.

**Aurtengo kurtsoan ekimen esanguratsuak datoz. Eusko Ikaskuntzaren 100. urteurreneko Kongresua inflexio puntuia izan liteke. Ze baldintza sor ditzake?**

Euskalerrigintza aro berri baten mugarri izan daiteke. Euskal Herriaren eraikuntzari begira diagnostiko konpartitu bat eta aurrabideen inguruko lan-lerro batzuk adosten ari dira. Liburu zuri baten idazketaz hitz egiten ari da, eta horrek anbizioa erakusten du, nahiz eremu akademikora mugatzen ari den neurri handi batean. Euskal Herriaren ikuspegi nazionala duen horrelako diagnostiko bat eta Euskal Herriaren eraikuntzari begirako lan-lerro nagusien identifikazioa modu partekatuan egitea aurrapauso kualitatiboa da. Eta ariketa hori Eusko Ikaskuntza bezalako instituzio batean kokatzea interesgarria iruditzen zai-gu aurrera begira ireki ditzakeen aukerei begira.

Euskal lurrealdean arteko lankidetza dinamiketan sakontzeko baldintzak inoizko onenak dira gaur egun: Lurrealde Elkargoa martxan da, Nafarroan aurrera urrats handiak eman dira erre-

gimenaren destituzioan. Gaur, Euskal Herria bere osotasunean aintzat hartuko dituzten dinamika autozentratuetan sakontzeko baldintzak badaude, eta probestu egin behar dira datozen urteetan. Horrek ipar adostu bat behar du, agenda bat, eta Eusko Ikaskuntzaren liburu zuriak eman lezake hori.

**Olatu berriei begira, euskalgitzan ere badatorrela dirudi. Zer eman dezake Euskaraldiak?** Hor ematen du olatu bat badatorrela, ikusten da tokian toki indarra duela. Iruditzen zaigu Euskalherria euskalduntze prozesuaren momentu berezian kokatzen dela, euskalduntze fase oso bat agortu den garaian. Orain 40 urte euskararen biziberritzeko antolatu ziren baliabideek –D eredua, euskarazko telebista publikoa, hizkuntza politika ofizialak, eta abar– ez dute gehiagorako ematen. Datuak mahai gainean daude: ezagutzak ez du erabilera ziurtatzen eta erabilera orain arteko goranzko joera eten egin da. Bi ikuspegi egon daitezke orain: Bat/ hau da hizkuntzaren biziberritzeari eman zezakeena eta bizi gaitezen honekin ahalik eta euskaltasun sinpatikoena erakutsiz. Bi/euskararen etorkizuna ez dago bermatuta. Asko da egin dena hizkuntzaren biziberritzeari dagokionez eta orain bigarren euskalduntze fase bat irekitzea dagokigu.

Bigarrenean kokatzen gara gu zalantzarik gabe, eta uste dugu bigarren euskalduntze fase batetik ibilbide estrategiko berritu bat behar duela; eta baliabideak, tresnak eta egiturak berregokitu egin behar direla horretarako. Hasteko eta behin, herri-eztaba bat behar dugu bigarren euskalduntze fasearen langa non kokatu beharko/ahalko litzatekeenaren inguruan. Noraino eraman behar dugu normalizazio soziolinguistikoa? Noraino

**“Hik Hasik hezkuntza eredu hoberenen onena jasotzen duen proposamena aurkeztu digu ikasturte honetan. Orain horretan sakontzea dagokigu geure eredu propioa asmatuz”**

**“Sistema politikotik deskonektatuta egoteari ematen zaio balioa hain justu. Kontraboterearen ikuspegi mugatu hori oso kamutsa dela deritzogu”**

**“Hemen izan dezakegun tokiko botere instituzionala eta izan ditzakegun baldintzak eragile komunitarioen arteko sinergiak eraikitzeko itzelak dira”**

**SAKONEAN  
HERRIGINTZA**

ezagutza? Noraino erabilera? Eta gero, zer tresna behar dugu horretarako? Gauza batzuk begibistakoak dira. Adibidez, hizkuntza ereduak ez dute gehiagorako ematen, eta gainera segregazio iturri izaten ari dira. Murgiltze ereduaz hitz egiten hasi behar da. Uste dugu, adibidez, inor gutxik jartzen duela zalantzaren ETB goitik behera birlfundatu behar dela. Eta horrela euskal-gintzaren atal guztien errebisio estrukturala egin beharko litzateke.

Iruditzen zaigu balizko euskalduntze fase berri bati begira badirela bi gako azpimarra merezi dutenak. Batetik, euskalduntze fase berriak burujabetza eskatzen du. Spainiaren inboluzio demokratikoa euskararen bizi-berritzerako oztopo nabarmena baita, eta izaten jarraituko bai. Euskalduntze fase berriak behar dituen baliabideak antolatzeko burujabetza estatus bat beharko dugu. Euskararen etorkizuna eta burujabetza politikoa uztartuta ageri dira, inoiz ez bezala.

Bestetik, lehen fasean gertatu bezala, euskalduntzearen bigarren fasean aktibazio soziala klabea izango da. Euskararen geroa herri-gogo berri batekin lotuta ikusten dugu inoiz baino gehiago, eta hiztun komunitate ahaldunduaren inpultsoa determinantea izango da horretan, zalantzarik gabe. Eta horretan uste dugu Euskaraldiaren ekarpena importantea izan daitekeela, euskaldunak ahalduntzeko balio dezakeen neurrian, eta konturatzeko hizkuntza esku-bideen jabe garela eta eskubide horiek urratu egiten direla egunerokotasunean.

### Eta hezkuntza esparruari buruz, zer diozue?

Euskal hezkuntza sistemak –dagoenak, orain arte garatu denak– porrot egin du. XXI. mendeko erronken aurrean XIX. mendeko hezkuntza ereduak daukagu. Hiru hezkuntza sistema

–españolak eta francesa– eta, hemen guztian sakontzea ezinenezkoa bada ere, porrotaren ebidentzia batzuk oso nabarmenak dira.

Batetik, hezkuntza sistemak ez du espero zen neurrian euskaldundu; hizkuntza-ereduen agorpena ukaezina da. Oraindik orain, ipar euskal herriarrek, esaterako, Bordeleko errekortezaren aurrean kateatu behar dira Brebetako azterketak euskalaz zuzendua izan daitezen exijitzeko.

Baina horrez gain, erabat zaharkituta dauden hezkuntza sistemak dira ditugunak, eredu arkaikoaren parekoak: zentralistak; pedagogia eredu zaharretan betikotuak; irakaslegoa gaur hara eta bihar bestera txontxongiloak bezala darabilenak –haien ekarpen potentziala erabat mugatuta–; sexu arteko bereizketa ahalbidetzen dutenak; erlijio, jatorri, klase, edo dena delako arrazoiengatiko segregazioetan sakontzen dutenak, eta abar. Eta hori gutxi balitz, diseinatu diren helburuetan gero eta emaitza kaskarragoak ematen dituztenak –begira bestela PISA azterketen azken emaitzak–. Diagnostiko zehatz baten premia dugu. Gero eta herri anitz eta konplexuagoa da gurea eta, globalizazioaren fenomenoari erreparatuta, hemendik urte batzuetara errealtitate hori areagotu egingo da. Herri kohesionatu eta aurrerakoia izan nahi badugu horretan lagunduko duen hezkuntza sistema bat behar dugu. Finlandiak edota Estoniak esaterako eredu interesgarriak era-kusten dizkigute: komunitatean txertatutako ikastetxeak, eredu pedagogiko aurrerakoia, inor bazterrean uzten ez dutenak, herri-hezitzale filosofian ardaztutakoak, eta abar. Hezkuntza proiektu solidoa inondik ere. Hik Hasik eredu horien onena jasotzen duen proposamena aurkeztu digu ikasturte hone-

tan. Orain horretan sakontzea dagokigu geure eredu propioa asmatuz.

Baina horretarako egun daukagunetik abiatu behar garela onartzea ezinbestekoa da. Hemen urteetan administrazioeko sistema publiko bat garatua, eta aitorta zor diogu horri. Herri-bulkada batetik sortutako ikastolak ere badaude, eta horri ere badiogu zer aitorta. Baino behin honaino iritsita, badaukagu herri-anbiziorik bestelako helburu handiagoetara iristeko? Horrela bida, elkarlanetik eta konfluentziatik eterri beharko da hori. Herri honek behar duen mailako hezkuntza sistema eraikitze bidea egin behar dugu, eta bide horretan egun ditugun urgentziazko erronkei –segregazio egoera larriei eta abar– aurre egiteko urrats ausartak ematea dagokigu. Konpromiso historiko berritua behar da denon partetik. Bai ikastolen aldetik eta bai administrazioaren aldetik ere; eta batez ere, horretan sinisten dugun herritarron partetik.

### Kultura politiko berriaz hitz egin izan da. Eskema abangardista alboratu eta lidero demokratikoan oinarrituko den lan eskemaz hitz egiten da Zohardian. Zein izan behar da Sorturen interbentzio eredu herrigintzan?

Guk herrigintza euskalerrigintzaren paradigmak kokatzen dugu. Badago jendea beste motako herrigintza bat egiten duena, ez daukana zer ikusirik euskal estatuaren proiektua hauspo-tzearekin, erabat errespetagarria dena. Ezker abertzaleak fase honetan sustatu behar duen herrigintza euskalerrigintzan kokatzen da: estatu bat eraikitzean, nazio bat egitean eta euskara berreskuratzean. Plaza Hutsarekin egin dugun lehen ziklo honetan –herrigintza aro berri baterako hamaika begiradak, elkarrikitak, udako ikastaroa–

marko orokor hori kokatzen saiatu gara. Zein da gure ekarprena herri-gintzan? Gure balio erantsia zein izan daitekeen hausnartu behar da horretarako. Batetik, gu Euskal Herriaren burujabetze egitasmoarekin konprometitutako eragilea gara, Euskal Herri osoan hedatua eta interbentzio politikoaren ikuspegi zabal bat izan dezakeena. Bestetik, herri-gintzan autoeratu den komunitate bat ordezkatzen dugu, ezker abertzalea den komunitate soziopolitikoa, herrigintza tradizio baten jabe dena, herrigintzarako sena duena, herrigintza praktika askotarikoetan ari dena. Herrigintzari egin diezaiokegun ekarpen handiena komunitate hori saretzea, ahalduntzea, trebatzea eta estrategikoki norabidetzea da. Prozesu komunitario eraldatzailleek –izan tokiko mailan, eskuinaldean zein nazio mailan– ekintzaileak behar dituzte –nahi bada sustatzaileak, integratzai-leak edota dinamizatzaileak–. Ezker abertzalearen corpus militantea ekintzaile komunitarioa izan beharko litzateke batez ere, eta Sortu ekintzaile komunitarioen fabrika bat.

**Plaza Hutsa ekimena abiatu zen aurreko urte politikoan, herrigintzaren egoerari buruko hausnarketak partekatu eta saretze berriak bultzatzeko. Zer eman du? Eta zer egiteko bidea ireki du?**

Zohardian esaten genuen kontua ez dela komunitate guztia antolakundearen baitan sartzea, baizik nola artikulatzen dugun ezker abertzalea den komunitate hori. Sortu komunitate hori saretzeko eta antolatzeko tresna da, eta horretarako espazio horizontalak artikulatu behar ditu. Guk sumatu duguna da herrigintzan diharduen ezkerreko eta abertzaleen komunitatea oso zabala dela, eta espazio horizontalak eskatzen dituela. Hausnar-

ketarako, esperientziak konpartitzeko, elkar ezagutzeko, tresna berriak jasotzeko eta abar. Hori da Plaza Hutsaren ideia: ezkerreko independentismoaren topagunea izan nahi du herrigintzaz hausnartzeko eta herrigintzan trebatzeko. Espazio digital bat eta espazio fisiko bat izango ditu. Aurreneko ziklo honetan marko orokor bat jarri dugu eta orain, azaroko taillerrean, ziklo berri bat jarriko dugu martxan. Plaza Hutsa tailer hau instituzionalizatu egin nahi dugu, urtero ospatuz, udazke-nean. Datorren urteko erronkak identifikatzeko balioko digu, batez ere.

Kurtso politiko honetan euskal-gintzan, hezkuntzan, euskal imajinarioaren birsortzean eta esku-hartze komunitario rako moldeetan sakonduko dugu bestek beste, eta ekarpen kualitatiboak egiten saiatuko gara.

**“Herrigintzari egin diezaiokegun ekarpen handiena komunitate hori saretzea, ahalduntzea, trebatzea eta estrategikoki norabidetzea da. Ezker abertzalearen corpus militantea ekintzaile komunitarioa izan beharko litzateke batez ere, eta Sortu ekintzaile komunitarioen fabrika bat”**

**“Plaza Hutsak ezkerreko independentismoaren topagunea izan nahi du herrigintzaz hausnartzeko eta herrigintzan trebatzeko”**

**SAKONEAN  
HERRIGINTZA**

# “Ez gara jabetzen udalgintzak gizarte eraldaketarako duen potentzialaz”

**A**urtengo kurtsoan udal-hauteskundeak etorriko dira. Udalginatzak ze ekarpen egiten du herrigintzan? Ikuspegiak berritzea komeni da eremu horretan ere? Txomin Povedak Plaza Hutsan zioen Ipar Euskal Herrian herri ekimenetik sustatutako instituziogintza formula arrakastatsua izan dela.

Eredugarria da Ipar Euskal Herrian nola asmatu den uztartzen herrigintza eta estatugintza. Sortu diren tentsioak ere aztertu beharko dira, baina zalantzarak gabe oso emankorra izan da. Tokiko instituzioen –Herriko Etxeen– eta autoeraketa komunitarioaren arteko txertaketaz mintzo da Txomin Poveda Plaza Hutsan, eta oso ikuspegi interesgarria ematen du. Maila askotan ari da izaten Ipar Euskal Herria eredugarri. Funtsean, euskal dinamika politiko autozentratuak gizarte eraldaketan duen potentziala ari da erakusten.

Herrigintza aipatu eta jende askori burura datorkiona herri-mugimendu klasikoak dira, edota autoeraketa puruan oinarritutako proiektuak, instituzioetatik erabat aparte; eta horri ematen zaio balioa hain justu, sistema instituzionaletik deskonektatuta egoteari.

Kontraboterearen ikuspegi mugatu hori oso kamutsa dela deritzogu eta Ipar Euskal Herriak bestelako bide bat erakusten digula, Txomin Povedak ondo azaltzen duen bezala.

Udal hauteskundeak datozi bai, urte politiko honetan hegoaldean eta hurrengoan iparraldean. Garai aproposa udalgintzari zor zaion balio politikoa aitortzeko etaurrats berriak emateko udalgintza eredu berritu baten lanketan. Otsaileko herrigintza tailerraren bueltan esan genuena berresten dugu: ez gara jabetzen udalgintzak gizarte eraldaketarako duen potentzialaz. Durangon hainbat esperientzia erakutsi genituen, baina horiek lagin txiki bat baino ez dira: Oreretako gazteentzako etxebizitza komunitarioak, Bakion egin den prozesu komunitarioa garapen estrategia bat diseinatzeko, Gares egiten ari dena energia burujabetzaren bidean... baina horrela hamarnaka prozesu eraldatzaille izendatu genitzake: Urduñako tokiko garapen estrategia agroekologiari garrantzia emanet, Bartzango garapen estrategia, Azpeitiko kultur mahaia eta San Agustin proiektua, Oñatiako esperientzia; nola ez, Iruñeko Udalean egindako lana lau urte hauetan zehar... Ezagutzen al dira? Horren inguruan idatzi al da? Zenbat halako esperientzia eraldatzaille garatu dira Euskal Herrian

azken zortzi urteetan? Transition towns, Fearless cities edota CUPen udalgintza gehiago ezagutzen da gure udaletan egiten duguna baino, eta kasu batzuetan ez du parekorik.

Jabetu behar dugu Euskal Herria esperimentazio eremu aintzindaria izan daitekeela Europa mailan eraldaketa proiektu komunitarioei dagokienez –batzuek berrikuntza soziala deritzotena, beste batzuek tokiko iraunkortasuna, Ipar Euskal Herrian eraikuntza dinamika alternatiboez hitz egiten da-. Hemen izan dezakegungo tokiko botere instituzionala eta izan ditzakegungo baldintzak eragile komunitarioen arteko sinergiak eraikitzeko itzelak dira. Hor pauso bat aurrera ematea falta zaigu. Izan ere, tokiko eremua estrategikoa da gizarte eraldaketan. Lehenago esan bezala, gaurko gizarte-erronak inoiz baino konplexuagoak dira eta edozelako prozesu eraldatzialek eragile komunitario askoren aktibazioa eskatzen du, interbentzio komunitario sakonak, behetik gorako egitasmoak. Komunitarismoaren –komunitatean egiten den esku-hartze eraldatzailaren– kontzeptualizazio berri bat behar dugu, esku-hartze horren nolakotasuna ondo ulertu eta batzuen eta besteen funtzioak ondo definitu. Udalginiza herrigile bat –edo komunitario bat– klabea da horretan, baina bere balio erantsia zertain eskaini dezakeen ondo definitu behar da: dena ezin da tokiko eremutik abordatu baina zenbait esparru lantzeko estrategikoa da. Zeintzuk dira esparru horiek? EH Bilduk bere udalgintza eredu berritu beharko luke: egiten dena balioan jarri, diskurso indartsu bat eraiki eta udalgintzaren ildo estrategikoak definitu; eta bere instituziogintzaren zutabe nagusietakoa bilakatu. Udalginiza prestijiatu behar dugu, kanpoko eredurik kopiatu gabe, geure baitara begiratuz; Euskal Herrian badugu tradizio munizipalista indartsu bat, HBren esperientzia eta Udalbiltza horren adibide dira.



San Inazio, Bilbo.

HAUSNARKETA ETA ARGAZKI GALERIA

# Jar gaitezen Habanari Begira

Euskal Herria hiriguneetan irabaziko dugu edo ez dugu irabaziko



---

**Munduko biztanleriaren %50 baino gehiago hirietan bizi da. Munduko 600 hiri handienetan Barne Produktu Gordinaren %80 sortzen da. Tendentzia hori gora doa eta Euskal Herria ez da salbuespena. Bere biztanleria ere hirietan pilatzen da nagusiki. Heren bat Bilbo metropolitanoan, hain zuzen ere. Seguru asko gure herriaren botere faktiko, mediatiko eta ekonomikoak bertan pilatzen dira.**

---

Nerea Gijarrubia eta Karlos Renedo.

*Kontseilu Nazionaleko eta Bizkaiko Herrigintza lan-taldeko kideak.*

Argazki erreportajea: FOKU



Irieta proiektu eta prozesu eraldatzaileak sortzeko potentziala badago. Alde batetik, masa kritikoa handiagoa delako; eta, bestaldetik, komunikazioa eta hedapena azkarrago doalako. Horregatik garatu ahal dira hobeto Goiener, Izarkom edo Labore moduko proiektu eraldatzaileak.

Bilbo da euskaldun gehien dituen hiria. Eremu urbanoetan Korrika masa-fenomenoa bilakatu den bezala, eremu horietan planteamendu eta praktika egokiekin belariprest eta ahobizi uholdeak ere sortu ahal izango dira.

Gazta zatia besapetik askatu eta Barakaldoko Galiziari Etxera eramatzen dugunean, identitate euskaldun berri bat sortzen ari gara: anitza, subjektiboa, urbanoa, migratzailea eta eskubideetan oinarritua.

Zenbait pentsalarik adierazten dute mende honetan klase borroka lantegitik at garatuko dela batik bat; gatazkak territorialak izango direla, David Harveyren hirirako eskubidearen ildotik; eta gatazka horiek populazio handieneko eremu

urbanoetan sortuko direla. Euskal Herriko azken espresioak (borroka feminista eta pentsiodunena) hortik joan dira.

Ezker abertzaleak herrigintzaren praktika berritzeko beharra du. Hiriguneak arnas propioa du, bere tekla propioak, diskurtsoa eta iritzia sortzen dituzten pertsona eta eragile konkretuak. Ezin gara periferian kokatu, tekla horiek abordatzera joan behar gara. Hiriguneak eraldatzeko "palanka" propioak sortu behar dira, gehiengoak ukitzen dituzten palankak aktibatu behar ditugu. Eta palanka horiek aktibatzeko motorra militanteok gara, ahalduntze prozesu bat garatu behar dugu, plan kolektibo bat, makina olloztatzeko baliabide komunikatiboak, eta hori guztia egiteko tamaina nako errekurso ekonomikoak behar ditugu.

Munduko iraultza gehienak hirietan jokatu dira. Santiagotik Habanara abiatu zen Fidel, garaipena hiriburuan sartutakoan soilik aldarrikatu ahal zuela jakinda.

Miribillan esan genuen fase berri honetan compromisoa, elkarlana eta konfiantza behar dugula. Horri anbizioa gehitu beharko genioke, Bilbo metropolitanoa irabazi nahi baldin badugu behintzat.




Bolueta, Bilbo.



Breuer hiria, Baiona.







Breuer hiria, Baiona.





San Vicente dorreak, Barakaldo.





Zaramaga, Gasteiz.



Bidebieta, Donostia.



Irun.



# Anaiz Funosas:

## “Epe motzeko etekin politikoak alde batera utzita, luzera begira, prozesua izan da irabazole”

Ipar Euskal Herrian, errepresio kolpeak  
aktibo politiko bihurtzen asmatuta,  
Aieteko konferentziak  
“indarrak askatzea”  
ekarri zuen.  
Orain, Aieteren garapenaren  
sekuentzian daude,  
Bake Bideako  
presidentearen ustez.

Argazkiak:  
FOKU

Elkarrizketa:  
Nekane Zinkunegi





**“Aurore Martinekin eman zen pauso kualitatibo indartsua edukietan, baita arriskatze eta implikazio politikoan ere. Denok dugu gogoan lehen atxilotze saiakera hartan pertsonaz osatutako harresia egin zutela, horrek pauso kualitatiboa ekarri zuen”.**

Frantziak errepresio estrategia aldatu eta militante politikoen aurkako erasoei ekin zienean, Ipar Euskal Herriko abertzaleek asmatu zuten, eraso horiek palanka bilakatu eta gizarte zibila aktibatzeaz gain, pentsamolde askotako politikarien babesia biltzen. ETAren armagabete eta desegite prozesuan, zein Frantzian preso dauden euskal herritarra gerturatzeko lanean, bete-betean aritu da Anaiz Funosas (Baiona, 1979), Bake Bideako presidentea. Azken urteotako prozesuaren gakoak aztertu eta ateratako ikasgaiak zehaztu dizkigu elkarriketan.

#### **Gizarte zibilaren aktibazioaren jatorrian, Frantziaren errepresio estrategia gogortu izana dagoela esan izan duzu.**

Jendarte zibilaren parte hartzea prozesu luze eta sakon baten ondorioa izan da Ipar Euskal Herrian. Egia da kasu konkretuek aitzinatza eta parte hartzea bultzatu eta, batez ere, parte hartzearen ulermera lagundu dutela. Gure kasuan, 2004tik aitzina, frantses estatutik etorri zen eraso politiko eta juridikoa. 2004an, euroaginduak jarri zituzten Segiko hiru militanteren aurka. Aurrekari ikaragarria, Europa mailan lehen aldikotz aplikatu zelako neurri hori militante politiko kontra. 2004ra arte izan ziren eraso errepresiboak ETAko kideen eta haien laguntzaileen aurka baziren,



Argazkiak: IDOIA ZABAleta / FOKU

ordutik aurrera, estrategia aldatze sakona izan zen. Eta aldatze horren muina, nik errango nuke, dela frantses estatuak pauso bat eman zuela garaian [Baltasar] Garzonek teorizatutako “dena da ETA” horretan. 2004an hasi zen euroaginduekin, eta horren ondoren Ipar Euskal Herrian gazteriaren eta hainbat proiekturen —Batasunaren, Asuntasunaren...— aurka egingo ziren eraso horiek guztiak izan ziren guretzat palankak biltzeko, abertzaleetatik eta mugimendu ezkertiarretatik harago joateko.

Uste dut adostasun batera iritsi ginela: arazoak ez zegoela gure artean, baizik eta Parisek euskal gatazkaz egiten zuen kudeake-

tan. Eta gehienek aldarrikatu genuen aterabide demokratikoak atzematea. Egia da Aurore Martinekin eman zela pauso kualitatibo indartsua edukietan, baita arriskatze eta implikazio politikoan ere. Denok dugu gogoan lehen atxilotze saiakera hartan pertsonaz osatutako harresia egin zutenean, horrek pauso kualitatiboa ekarri zuela. Egia da estatuak maila goian ezarri zuela, Auroreraren aurretik Jon Anzaren desagerpena izan genuen. Uste dut horrek denak ere eragin zuela independentismoari beldurra ziotenek ere esatea ez zeudela dena onartzeke prest. Bertako hautetsiak gaizki zeuden, gobernuarekin lerrokatutako hautetsiekin bizi konfrontatzen ginen. Gure artean, kontzientzia hartze hori izan zen, arazoa politikoa zen heinean, politikoki bideratu behar zela, terroristen eta demokraten dikotomian erori gabe.

Frantzia erabat lerrokatua zen Espainiaren teoriei eta praktikei. Paraleloki terrorismoaren aurkako borrokaren izenean espainiar aparatu juridikoari, poliziari eta armadari kristoren indarra eman zitzaison. Bi estatuen arteko Carcassonneko gailurak eman zion kristoren aldaketa estrategia horri, Frantzian botere handia eman arte Guardia Zibilari eta Espainiako Poliziari, eta horren ondorioa zen Anzaren kasuan. Beraz, hemen ez da onartzen “dena



da ETA"-ren izenean nahi den guztia egitea. Ipar Euskal Herria txikia da, denok elkar ezagutzen dugu eta hautetsi batzuek horren neurria hartu zuten: geroz eta jende gehiago jota, geroz eta kalte handiagoa dela Ipar Euskal Herrirako. Jazarritako militanteen aldeko enpatia sortu zen, beraz, eta zabaldu egin zen Martinen kasuan, frantses estatu guztian. Batasunaren ideien aurka zirenak ere ezin zuten onartu emazte militante bat presondegitatua izatea prentsurreko batzuk emateagatik eta bilera batzuetan parte hartzeagatik.

Ipar Euskal Herrian lortu dugu kolpe errepresibo guztiak aktibo politiko bilakatzea. Hori da urteotako lanetik atxikitzen dudana. Gu ere pixkanaka ohartzen joan gara zer den erantzuna, zer den herri aktibazioa, zer den herria. Pauso hori eman izanak eragin zuen 2011n Aieteko konferentzia egin zenean hemen indarrak askatzea. Eta denentzat aukera bat bilakatu zen, denek bageneukan ekarpena egiteko aukera horretan.

#### **Aieteko konferentzia Hego Euskal Herrian egin ba-zen ere, ezarri zuen mugarria Ipar Euskal Herrian.**

Ipar Euskal Herrian zurrubilo batean geunden Aieteren garaian. Gogoeta sakon batean geunden, publikoa ez zena. Hainbat eragile eta hautetsiak diskretuki hitz egiten hasiak ginan: egoera horri aterabide politiko eta demokratikoa eman behar zitzaiola eta hori zer zen zehaztu behar genuela. Orduan, sartu ginan halako prozesu batean, bi baldintzarekin: iragana ez izatea abiapuntu eta errespetua mantentzea. Bilkura denboran bakoitzak erran nahi zuena errateko eta bakoitzaren egituraren erritmoaren arabera aritza bermatzen genituen. Mahai ho-

rretan egon ziren posizio hartze batzuk, eta bagenekein eragile batzuek ezin zutela posizionatu, onartu behar zirelako haien barne eztabaidarako mekanismoak. Gakoa izan da prozesua lehenestea beti, bidea egitea eta horretarako behar zen denbora hartzea. Gu gogoeta horretan ginen, denon arteko adostasun bat behar genuela eta mobilizatzaezinbestekoa izango zela bagenekein. Eta orduan etorri zen Aiete.

Garrantzitsua izan zen Ipar Euskal Herrirako. Lehen aldiz, Ipar Euskal Herriko arduradun politikoak gonbidatuak zirelako halako marko batean parte hartzen. Eta frantses estatua ere izendatua izan zelako deklarazio hartan. Frantzia Espainiaren maila berean lerrokatu zen. Ipar Euskal Herrian, arduradun politikoentzat une garrantzitsua zen, nazioarteko pertsonalitate esanguratsuak bertan zelako, eta horrek eragiten zuelako. Frantses estatuaz gain, bake prozesuan aktibo egon behar zuten eragile guztiak ere izendatua izan ziren deklarazioan: estatuak, ETA, eragile politikoak eta jendarte zibila. Eta, gainera, jendarte zibila jarrita prozesuaran garapenerako berme gisa. Horrek baieztago egin zituen guk genituen gogoetak, eta lehen aldiz sentitu genuen paper bat genuela. Horren ondoren, segidan etorri zen ETA erakundearen erantzuna. Orduan, oso naturalki, deliberatu genuen ez genuela itxarongo bigarren puntuat betetza, laugarren puntuat sartzea eta eragitea erabaki genuen.

#### **Bake bidearen sorrrera eto-rrri zen ondoren, 2012an.**

Aiete 2011ko urriaren 17an izan zen eta gu segidan bildu ginan, baita politikariak ere. Sentsazioa genuen ez genuela eskubiderik ez erantzuteko deialdi horri, zordun ginela iruditzen

zitzagun, egoera berri horretan hezikozten belaunaldiari begira. Ondorioak ere oso presente genituen, noski, eta aterabide bat eman behar zitzaien, baina ororen gainetik belaunaldi berri hori genuen gogoan. Bake prozesua egiazkoa izateko dena egiten ez baguen, uste genuen geuk sortuko genituela gatazka berriz sortzeko aukerak. Hori da beti gogoan atxiki duguna eta baturik atxiki gaituena.

Oraindik Auroreren kudeatzan ari ginen, ekainean irten zen, atxilotzen saiatu ziren eta berriz gorde zen hainbat militante eta hautetsiren etxeetan. Aieteko gertatu zenean, ari ginen ikusten nola ekidin Auroreren Espainiaratzea, baina, batez ere, haren aurkako euroagindua azkena izan zedila eta ahalik eta koste politiko handiena sor zezala. Manifestazio bat egin genuen horretarako eta ondoren bueltak ematen hasi ginen: zer erran nahi du jendarte zibilaren parte hartzeak? Aktibo izatea eta parte sentitza nahi baguen, ulertu behar genuen zer zen bake prozesu bat, zeri erantzun behar zion, zein ziren oztopoak... eta hor ginen talde hori ahal bezala formatzan hasi ginen, laguntza ukantzen Conciliation Resources eta Berghof fundazioengandik.

Orduan, aktibismotik heldu gininenak geunden eta erabaki genuen gorputz berri bat ematea jendarte zibil horri eta parioa egin genuen egitura berria sortzeko, ez plataforma bat, mugimendu zibil bat izan nahi zuen. Noski, eragileen izenean jendea egongo zen bertan. Hala, urriaren hastapenean, Bake Bidea sortzera zihoala esan genuen, eta lehen unea 2012ko abenduan antolatutako foroa izan zen, Lokarrirekin antolatu genuena. Bi helburu zituen: lehenik, Ipar Euskal Herrian ulertazaraztea zer



**“Ipar Euskal Herrian, instituzio publikorik ezean behartuak izan gara geure tresnak sortzera. Mobilizazioen bidez egin dugu aurrera eta horiek eragin dute hautetsien engaiatzea. Askoz naturalagoa izan da jendarte zibilaren eta hautetsien elkarlana”.**

**“Frantses estatua ohartu da betiko bidetik segitzen bazuen haren aurka etorriko zela, eta hobetza armagabetzea egiten uztea. Uste dut Frantziak Espainiari “aski” esan diola, armak haren lurraldetan zirelako eta berak kudeatzea erabaki zuelako”.**

**“Lortu dugu Ipar Euskal Herria benetan sartzea prozesuan eta aktibo bat izaitea. Askibabestuak ginene lehen Hego Euskal Herrian zeuden tentsioengandik, eta orain bagira afektatuak. Horrek erran nahi du lurralte kontzientzian ere aurreratu dugula”.**

izan zen Aiete, nola iritsi ginene horra eta zer zen bide orri hark proposatzen zuena; eta bigarren helburua zen gonbidatzea Ipar Euskal Herriko jendarte zibil anitz hori eta partekatzea lehen momentu hori. Anfiteatroa bete genuen, Pauko eta Baionako unibertsitateek babeska eskaini ziguten, prestigioa eta neutraltasuna eskaini ziguten eta Bake Bideari indarra eman zion.

Ipar Euskal Herrian lehen aldia zen nazioartetik aditu batzuk etorri zirela eta horrek ere asko ekarri zuen, jendeak sentitu zuen egiten ari ginenak biderik ez bazuen, nazioarteko jendea ez zela etorriko. Eta foro horren baitan Aieten egon ziren Ipar Euskal Herriko arduradun politikoek testu bat egin zuten publiko, gero Baionako deklarazioa bilakatu zena.

#### **Nola asmatu duzue, aldi berean, jendarte zibila aktibo eta arduradun politikoak konprometituta mantentzen?**

Egia da Ipar Euskal Herrian jendarte zibilaren eta hautetsien arteko harremanak ez direla Hego Euskal Herrian bezalakoak, instituzio publikorik ez genuen behartuak izan garelako geure tresnak sortzera. Beti mobilizazioen bidez egin dugu aurrera eta mobilizazio horiek eragin dute hautetsien engaitzea. Askoz naturalagoa izan da jendarte zibilaren eta hautetsien arteko elkarlan hori. Mesfidantza batzuk egoten dira, baina oro har elkarri konfiantza egiten diogu. Hautetsi horiek, ariketa aurrera eramateko, behar zuten jendarte zibil aktiboa. Eta jendarte zibilak ere behar zituen tendentzia guztietako hautetsiak, gure gogoetari babeska eskaintzen ziotenak. Foro horretatik aitzina gauzak konpartituz eta adostuz joan gira, hori izan da gure indarrik handiena.

**Aieteren ondoren zenbait urrats berehala espero baziren ere, urteak behar izan dira prozesua azkartzeko. Luhusoko armagabetze ahalleginera arte, esaterako, bost urte behar izan ziren.**

Blokeoa zen Paris eta Madril ez zirela mugitzen. Guk beti kontsideratu dugu hori hala izanik aterabidea herritik etorriko zela. Aldebikotasuna denok espero genuen, eta hori nahi zen, mahai batean ETA eta estatuak ondorioen irtenbidea atzemateko. Lurralde bezala gogoetatu dugu eta joan gara gure artean adostera zer den eta zer izan beharko lukeen eta zer zen Parisek egin beharko lukeena. Aho batez joatea deliberatu genuen eta hori zen klabea, aldebikotasun hori aldatu zen, eta ondorioztatu genuen Aiete eta gero gurekin hitz egin behar dutela, eta egin behar genuena zela agenda bat osatu eta hori betearazi.

Luhusoko armagabetzean, berriz, bakegileen perfilarri esker, lurrikara sortu zen. Ipar Euskal Herrian eta estatuaren baitan. Baionako deklarazioan adostasun politikoa jasota geratu zen, jendarte zibila inoiz baino zabalagoa zen Ipar Euskal Herrian eta Frantzian, eta Asanblada Nazionaleraino eraman genuen auzia. Estatutik bueltan ezer ez etortzeak mespretxua hedatu zuen, eta hori gogorra zen hautetsientzat, haien ematen dizkiote kontuak herriari. Beraz, Luhusoko gertatu zeanan, bazen konbentzimendua horretara iristeko, estatuak horretara behartu gintuelako, ez gaitezen tronpatu. Horrela egin zen, ez zegoelako beste biderik.

**Horren ondoren etorri zen Baionako armagabetzea, Frantziak gertatzen utzi zuen eta Spainiak ere ez zuen oztopatu.**

Badakigu iniziatiiba gaizki

hartua izan zela ere, baina horrela egin zen, ez zelako beste biderik, izan balitz, aspaldi hartuko zen. Ipar Euskal Herrian bagenekeien denek Luhusoren ondoren, gure erantzukizunen aurrean jarrita ginela eta bat eginda lor zitekeela. Eta lortu da. Frantzes estatua ere ohartu da betiko bidetik segitzen bazuen haren aurka etorriko zela, eta hobe zuela egiten uztea. Egia da tenkatze momentuek ekartzen dutela kontzientzia hartzea. Uste dut Frantziak Espainiari “aski” esan diola, armak haren lurradean zirelako eta berak kudeatzea erabaki zuelako.

**Behin armagabetzea eginda, argi eta garbi ezarri zenuten zein zen hurrengo lehentasuna: Orain presoak, zenioten, eta Luhuso armagabetzean izan zena, Paris presoen auzian izatea nahi zenuten.**

Argi geneukan estatuari tokatzen zitzaiola pausoak ematea, prozesuari ziurtasuna eta guri konfiantza ematea. Bake prozesuan engaiatuak ginenek behar genuen, baita presoek ere. Ipar Euskal Herrian ez da sekula disoluzioa baldintza bezala kontsideratu, zerbaiten ondorioa zen. Horretara iristeko, bidea lagundi behar zen eta presoen gaian pausoak eman behar ziren. Prozesu normal batean negoziazio bat egongo zen, bake akordioa, horren baitan armagabetzeak prozesua lagunduko zuen, errepre-saliatuen itzulera eta biktimen aitortza, eta disoluzioa. Gurean, gauzak ez dira arrunt normalak, baina armagabetzea eginda, bermatu nahi genuen edozein prozesutan bermatzen zena. Bagenekeien disoluzioa ez zela azken elementua izango, baina lagundi behar zela eta laguntzeko presoen eremuan pausoak eman behar zirela. Frantziak ulertu du bere legea errespetatu

eta bidea egin behar duela. Beraz, desblokeatu da egoera eta ez da gutti, nondik gatozen ikusita, bi estatuetatik bat mugitu izana.

### **Eta orain, zein fasetan gaudela esango zenuke?**

Errango nuke Aieteren garapena-ren sekuentzian gaudela Ipar Euskal Herrian. Uste dut armagabeteza egin zenean denok genekiela zibilki egitera behartuak izan on-doren, bide horrek jarraituko zuela, engaiamendua hartu genuen prozesua bururaino eramateko. Bi estatuak lerrokatuta egotetik, bat deslotzea lortu nahi genuen. Behin lortuta, deslotze hori handiagoa izango delako denboran zehar. Deslotzea ez da erabateko, bestela, preso guztiak gerturatuak izango lirateke, emazteentzat irtenbidea atzemana izango zen, baldintza-peko askatasunak emanak izango ziren... baina bagira fase horretan, eta orain sakondu behar dugu.

Parisekiko kontaktua etengabea da, ministeriorekin eta eragileekin. Egia da gauzak ez doazela aski fite, baina ber momentuan, esparru hori plantan jarri da joan den urriaren 19an. Denbora gutxi da, baina bai, segitzen dugu. Delegazioak beti argiki hitz egin du, irtenbide globala atzematearen bidean, salbuespenezko neurri guztiei aterabide bat eman arte jarraituko duela lanean. Azpimarratzekoa da nola planteatu dugun elkarritzeta esparru hori. Metodo berritzalea eta importantea da, delegazioak esku artean du Baionako deklarazioa, baina presoen kolektiboarekin hitz eginez eraikitzen du esparru hori. Hori onartu da ministerioan ere. Elkarritzeta hirukoitzean ari gira aitzinatzen.

Beraz, espazio bat ireki da, balorean jarri behar da, presoak hurbilduak izan dira, hastapen bat da, etorkizuna duen espazioa da. Lehen mugimendu horretan borondate baten adierazpena ere egen da, izan zitezkeen soilik bizi-

pahiru hilabete falta zitzazkienetan hurbilketak. Ez da hori soilik izan, eta jakin behar da baloratzan.

Baina bagira fase batean oztopoak dituguna ere, badira lobby ikaragariak, hasita biktimengandik. Lortu dugu Ipar Euskal Herria benetan sartzea prozesuan eta aktibo bat izaitea. Eta horrek ekarri ditu bere tentsioak. Eta aski da ikustea era-gile batzuen posizioa Ipar Euskal Herrian egiten den lanarekiko, eta Euskal Elkargoko lehendakariarekiko. Etorri gira gauzak inarrostera ere. Ipar Euskal Herrian aski ba-bestuak ginen lehen Hego Euskal Herrian zeuden tentsioengandik, eta orain bagira afektatuak. Horrek erran nahi du lurralteko kontzientzian ere aurreratu dugula.

### **Lobby lana, presioak, oztopoak... Arnagako konferentzian falta zirenez ere asko hitz egin da.**

Zenbaiten ausentziak bete-be-tean eragiten du, egia da bilanak egiterako unean ez dela lortu behar zen uneetan bateratasun instituzionala izaten.

### **Ikasgai bat baino gehiago ate-ra daitezke prozesu honetatik. Zerekin geratzen zara zu?**

Hasteko, gure bideak argi utzi digu ezinbestekoa dela jendar-te zibilaren aktibazioa eta parte hartze zuzena. Kolonbiako negoziazio prozesuan, erreferendum egin zutenean eta aurkakoa ate-ra zenean, ohartu ginen: adostu daitezkeela gauzak eragileen eta instituzioen artean, baina jendeak ulertzen ez badu, ez bada parte sentitzen, ez dugula biderik egingo, edo laburra egingo dugula.

Lan egiteko manera bat utzi du honek guztiak Ipar Euskal Herrian. Lortu dugu kultura politiko berri bat garatzea: elkarritzeta, denak mahai baten inguruari jartzea, manifestaldi baten egon behar denean egotea, epe motzeko etekin politikoak alde batera uztea. Zailena hori da, bakoitzaz

arriskatu gara, alde guztiak. Alde bat arerioarekin biltzen zelako eta beste aldea terrorismoa babestu dutenekin biltzen zelako. Bide eta elkarritzeta hori justifikatu ahal izateko, tentazioa izaten da ariketa norbere aldera eramateko, baina ez da hala gertatu. Kontzientzia hartze hori izan da niretzat indartsuena, epe luzean prozesua irabazle ateratzeko epe laburreko etekin politikoak bantzertzea.

Lurralteko ikuspegia bat ere irabazi dugu, uste dut denak kontentu garela, bederen bide horretan sartu garen guztiak, Ipar Euskal Herria errekonozitua izateaz. Eta, ororen gainetik, gu ere parte garela, zeren eta bazirudien Ipar Euskal Herrian ez zela gatazkarik. Egia da ez dela hainbeste hildako egon, eta bake prozesuaren beharra aldarrikatzen genuenean jendeak ukatzen zuen hemen gerlarik bazeenik. Beraz, bai, onartu da gatazka politiko baten konponketan ari garela. Biziki konplikatua da Hego Euskal Herrirako gomendioak ematea. Baino uste dut badirela irakaspenak denentzat: adostasun politikoa eta jendarte zibil aktibo eta antolatua direla prozesuaren garapenaren bermea. Bi horiek funtsezkoak dira.

# TRANSIZIOZKO JUSTIZIA

## Egian eta justizian oinarritutako kontratu sozial berria erakitzeko tresna

---

2011ko udazkenean ezker abertzaleak Konponbide Haizea Dabil agiria eman zuen argitara. Lehendabiziko aldiz bakea gure herrira ekartzen lagunduko lukeen trantsiziozko justizia baten beharra aipatzen zen. Bertan indarkeria eta zapalkuntza egoeratik bidezko bake iraunkorrerako igaroaldiaren inguruko bere hausnarketa eta posizio politikoa azaldu zuen. Irabazleen eta galtzaileen eskematik kanpo, bakea eta berradiskidetza lortzen lagunduko lukeen justizia eredua.



Urko Aiartz. Senatari ohia eta abokatua.

---

Berehala altxa ziren ezker abertzalearen adierazpenaren aurkako ahotsak. Trantsiziozko justizia zer den zehazki jakin gabe ere, ahots horiek planteamendua guztiz arbuiatu zuten, horren aurrean zigorrezko justizia (hobe esanda bindikatiboa) aldarrikatuz, teorian biktimen ondoan legookeneun justizia gisa azalduz. Normala da sektore batzuek trantsiziozko justizia ukatzea. Gatazkaren izatea bera ukatzen dutenak dira. Hauen logika, makurra izan arren, simplea da: ez da gatazkariak egon, beraz ezin da bake prozesurik egon eta, ondorioz, trantsiziozko justiziak ez du zentzurik hemen, ez baita inolako eta ezertarako trantsiziorik egongo. Ho-

rien aburuz, Spainiako Estatua gaizkile batzuen aurka aritu da, eta ari da, eta horiei dagokien bakarra zigorra da. Ahal den zigorrik latzena.

Gainera, logika makur hori bururaino eramanez, zigorlatzenek eta kruddelenek soilik errepara ditzakete biktimak. Talionaren legea litzateke biktimen erreparazio bidea, mendekuan dago sendabelarra. Era berean, ordea, sektore horiek dira, Spainiako Trantsizioa deitutako horretan, erregimen hartako partaideen zigor-gabetasun osoa babestu eta aldarrikatu izan dutenak. Eragile horiek aldarrikatzen duten justizia horrek Spainiako Estatuak behar duen garaileen eta garaituen



Mary Burton Hegoafrikako apartheid-aren aurkako aktibista eta Truth and Reconciliation Commission-eko (TRC) kidea. Eredu izan da beste gatazken konponbide prozesu batzuetan Egiaren Batzorde hau.

behar politikoari erantzuten dio. Ez die ez biktimei, ez gizarteari, ez bakeari erreparatzen. Eskamentua da helburua, euskaldunoi argi gera dakigun berriro ere, gure DNAn sartuta behar bada ere, zer dagoen inperioaren aurka zutituz gero.

Beste batzuk, berriz (kontra programadoreak), justizia erreparatzaleaz hitz egiten hasi ziren, nolabait biktimen protagonismoa berreskuratzea bilatzen duen eta justizia erretributibo edo zigortzaile hutsa kritikatzen duen paradigma berri hori trantsiziozko justizia delaikoarekin kontrajarri nahian. Berriro ere hitzen borroka abian. Ez da borroka hutsala, ordea, hitzen esanahien atzean beti ere gertaeren ulermenai baitago. Justizia erreparatzaleak biktimengan eta horiek eragin dituztenek (biktimari deituak) hauekiko duten erreparazio erantzukizunean (material zein sinbolikoan) jartzen du indarra.

Printzipioz, eta aurrerago ikusiko dugun bezala, justizia trantsionala eta restauratiboa ez dira inolaz ere kontrajarriak. Bigarren hau justizia trantsional zabal baten pean edo ildoan kokatzea ezinbestekoa da, gainera. Aldiz, justizia restauratiboa soilik arituta, testuinguru soziopolitikoa alboratzea bilatzen da, trantsiziozko justiziaren kontzeptzia eta ulermenai baztertuz, berriro ere. Biktiman/biktimarian zentratutako politika kriminal bat soilik garatzea da gakoa, eta

horrek berdin balio du politikoki eragindakoak diren delituentezat zein delitu arruntentzat.

Justizia restauratiboa Kanadan sortu zen, delitu komun baten harira. Gazte batzuek gau batean txikizioak egin ostean, beraien baldintzapeko agenteak Ontarioko epaile bat prozesu restauratzaile bat proposatu zioanean sortu zen. Justizia trantsionala alboratuz hori soilik proposatzen dutenek, gatazkaren izaera bera ukatu nahi dute, gertaera kriminalitate hutsera mugatuta. Biktimen erreparazioa ez dute mendeku hutsean ikusten, ordea.

Biktimaren erreparazioa, aldiz, batzuetan beren interes politikoaren helburuekin lotzen dute. Biktimen beharren oro jakutun bihurtzen dira. Horrela, biktimak erreparatzeko beharrezkoak diren eskakizunen maila etengabe igotzen dute. Ez da nahikoa kaltea eragin duenak egindako kaltea onartzea eta kaltea jasandakoarekiko errespetua eta enpatia agertzea: bere iragana erabat gaitzetsi behar du, eta bere iragan osoari uko egin behar dio. Barkamena damuari lotuta soilik dator. Eragileak bere ekintzak gaizki egindakotzat eta bidegabetzat hartzen baditu, damua eta errua azalduz, orduan bakarrik balio du barkemena eskatzeak. Ez da aski egindakoarekiko erantzukizuna hartuz eskatzea barkamena.

Moral bat eta gertatukoaren ikuspegি politiko bat da

---

“Justizia trantsionala gerra edo gatazka egoeratik bake egoerara edo diktadura egoeratik demokrazia egoerara trantsiziona egiten ari diren kasuetan garatu ohi da.”

---

“Gaur egun, munduko hainbat lekutan eta gatazketa (Kolonbian, esaterako) biktimen Egia, Justizia, Erreparazia eta Berriro Ez Errepikatzeko Eskubidea prozesuaren zentroan izango dituen trantsizionko justizia ereduak garatzen ari dira.”

---

inposatu nahi dena. Berriro ere ez da biktimaren erreparazioa soilik bilatzen, horren aitzakipean errelato baten inposaketa baizik. Esan bezala, marko diskurtsiboa desberdina da, baina gatazkaren ukazioa du horrek ere oinarri.

#### Zer da baina justizia trantsionala?

Justizia trantsionala gerra edo gatazka egoeratik bake egoerara edo diktadura egoeratik demokrazia egoerara trantsiziona egiten ari diren kasuetan garatu ohi da. Ivan Orozco horrela definitu du: “Iraganean egindako krimen politikoei eta masa-krimenei dagokienez gizarte estatalek aurreratzen dituzten kontu-estate prozesuak dira. Gerratik bakerako eta diktaduratik demokrasiarako trantsizioetan berezkoak diren turbulentzia politikoko egoeretan garatzen dira”. (I. Orozco: Justicia Transicional en tiempos del deber de memoria, Bogota Temis Universidad de los Andes 2009, 9. or.).

Jorge Luis Garayk zehatzago definitu izan du: “Justizia trantsionalaren oinarri nagusietako bat oreka bilatzea da. Oreaktu egin nahi ditu demokraziaraneko edo gatazka armatuaren bukaeraraneko trantsizio prozesuan parte hartzen duten eragileen interesak (zigorren arloko onurak nagusiki) eta biktimak erreparazio egoki eta proportzional baterako daukaten eskubidea. Hala, justizia trantsionalaren eginkizuna justiziaren dimensio operacionalekoren bat malgutzea da, trantsiziona egiten laguntzeko. Horretarako abiapuntu gisa, ezinbestekotzat jotzen da biktimen unibertssoaren eta eragindako kaltearen onarpen ahalik eta zabalena egitea eta ekitatezko erreparazio integral baterantz aurrera egiteko konpromisoa hartzea”. (J. Garay: Memoria y Reparacion Elementos para una justicia transicional pro victima. Bogota Universidad Externado 2012 62-63. or.).

Kolonbiako Gorte Konstituzionalak, berriz, honakoa

ere zehaztu izan du: “Justizia trantsionalaren helburua da justiziaren eta bakearen artean sortzen diren tentsio gogorrak, biktimen eskubideak bermatzeko betebehar juridikoaren eta borroken amaiera lortu beharraren arteko tentsioak konponterea. Horretarako, ezinbestekoa da borrokak geldiaraztea eta indarkeriara itzultzeko aukera prebenitza (bake negatiboa) eta, aldi berean, bakea sendotza alde guztiak barne hartuko dituzten erreforma estruktural eta politikoen bidez (bake positiboa). Justizia trantsionalaren xedea oreka zail hori lortzea da”. Kolonbiako Gorte Konstituzionala, C-579 epaia, 2013koa.

Justizia trantsionala, beraz, errealitate zehatz batetik abiatzen da: gatazka baten izaera aitortzen du, eta horrik abiatuta oreka bilatu nahi du, gizartea duen bakerako eskubidearen eta gatazkaren biktimek dituzten eskubideen artean. Hori egin daiteke, baina ez inpunitatea eskainiz edo inpunitate trukeak eginez (diktaduratik demokrazia formaletara eginiko hainbat trantsizioetan gertatu den bezala), baizik eta biktimak eta beraien erreparazia eztabaidearen erdian mantenduz. Ez dira inolaz ere kontrajarriak.

Gaur egun, munduko hainbat lekutan eta gatazketa (Kolonbian, esaterako) biktimen Egia, Justizia, Erreparazia eta Berriro Ez Errepikatzeko Eskubidea prozesuaren zentroan izango dituen trantsizionko justizia ereduak garatzen ari dira. Trantsizionko justizia eredu hauek hiru justizia mota hartzen dituzten beraien baitan.

Batetik, justizia erretributiboa edo punitiboa, egia argitzen lagundu nahi ez dutenei zuzendua. Horiek trantsizionko justiziaren garapenari oztopoak jarri nahi dizkiotenei zuzenduta daude gehienetan. Adibidez, Hegoafrikako Egiaren Batzordera joateari eta beraz zekiten azaltzeari uko egin ziotenei aplikatu beharkoa; Kolonbiako Bakerako Justizia Berezira joateari uko



EH Bilduk aurten Martxoaren 3ko biktimei egindako omenaldia Gasteizen. Hilketaren eta poliziaren kargen arduradunak inpune jarraitzen dute oraindik, 1977ko Amnistia Legearren ondorioz besteak beste.

egiten diotenei aplikatzen zaiena edo gezurra diotenei aplikatzen zaiena da hau. Bestetik, justizia erreparatzailea edo errestauratiboa dago. Biktimen erreparazioa bilatzen duena da, baina gertatutakoaren testuinguru politikoa alboratu gabe. Azkenik, prospektiboa esaten zaion justizia ere biltzen du Kolonbiako ereduak.

### Justizia prospektiboa

Justizia prospektiboaren kontzeptua ere garrantzitsua da. Kolonbian oso kontuan eduki dute. Uruguaiako Juan Llanbias de Acevedo juristak 1949an azaldutako kontzeptu berritzailea da. Gatazka larri eta muturrekoak bizi izan dituzten gizarteetan etorkizuneko belaunaldiak ere kontuan edukitzea eta horri begira gatazka atzean uzteko gorrotoa eta samina gainditzea ere beharrezkoa dela dio, egungo belaunaldien edo aurrekoen baloreetara soilik mugatu gabe. Azken batean, etorkizuneko belaunaldiak eskubideak ere kontuan hartuta. Horrek zerikusia du euskal gatazkarekin ere. Beste kasu batzuetan bezala, gure historian zehar gerrate edo gatazka garai asko garaileen dekretuen edo legeen bidez itxi izan dira, eta ez gatazka hauek errepikatzea ekidingo luketen konpromisoen bidez. Justizia prospektiboak belaunaldi berrien oinarrizko eskubi-

deak aitortzen ditu, aurreko belaunaldiak eginikoaren erantzukizunetik belaunaldi berriak libre gelditzea eta berriro ere ez gertatzearen bermea xede izanda.

“Komunitate politikoa, garaian garaiko belaunaldiak arteko batasuna ez ezik, denboran kateatzen diren belaunaldiak arteko lotura ere bada. Justizia prospektiboa ikuspegitik, garai bakoitzak eragina du ondorengotan. Justizia prospektiboak oraingo baliok errespetatzen ditu eta, aldi berean, etorkizuneko belaunaldiak eskubideak aintzat hartuz, gatazkak konpontzea eta ez betikotzea du helburu”. (Habanako Akordioa)

Ikuspegi horretatik trantsiziozko justiziak (biktimen zentralidadea mantenduz), etorkizuneko belaunaldiak izan behar ditu kontuan, jaio ez direnak, eta hauek duten eskubidea mendeku eta gatazkariak gabeko gizarte batean bizitzeko, gertatutakoaren memoria galdu gabe. Justizia prospektiboak, beraz, beste etorkizun bat bizitzeko eskubidea bilatuko duen akordio sozio politiko bat edukiko du kontuan, bakerako eskubidea, sintetiko eskubide gisa, giltzarri izango duena.

Justizia prospektiboak ez du gertatutakoaren tabula rasa bilatzen. Guztiz bateragarria da biktimek egia, justizia, reparazioa eta berriro ez gertatzeko berme-

---

“Trantsizozko justiziaren kontzeptua zabaltzen joan da denborarekin, eta gaur egun bere barnean biltzen ditu epaitegi berezien sorrerak, lege eta prozedura judzial bereziak, egia batzordeak, neurri administratiboak, erreparazioak, bai eta egia bilatzea, berradiskidetza eta oroimenaren kultura garatzea helburu duten ekimen politiko, sozial zein instituzionalak ere. Gatazken konponbideak azken batean ikuspegi holistiko baten beharra erakusten du.“

---

rako duten eskubidearekin. Hau gabe ezin da eman, baina era berean, ez ba bateragarria batzuen zigor edo erretribuzio hutsarekin, horrek zapuztu egingo bailuke etorkizuneko belaunaldiek mendeku goserik gabe bizi-zeko eskubidea.

Trantsizozko justizia batek, beraz, egoera gatazkatsu batetik egoera baketsu baterako igarobidea egiten lagundu beharko luke. Hau, noski, gizartea duen Egirako eta Bakerako eskubidearekin, eta biktima guztiak dituzten eskubideekin oreka bilatuz egin beharko litzateke.

#### **Zigor handiagoa ez da justizia zuzenagoa**

Logikoa, beraz, bi kontu horiek prozesu honen erdiguean kokatzea litzateke: bakea eta biktimen egia, eta justizia eta erreparaziorako eskubidea. Arazo nagusia, ordea, justiziako eskubidea zigorrarekin nahasten denean sortzen da. Are gehiago zigorrerako azken hitza biktamei edo, hobe esanda, biktima batzuei eman nahi zainean.

Egia da gaur egungo gizarte mediatiko honetan hein batean korrontearen aurka joatea dela hori, gaur egun gero eta gehiago lotzen baita justizia zigorrarekin, eta badirudi zenbat eta zigor handiagoa orduan eta justizia zuzenagoa lortzen dela. Badu zer landua hor ezker abertzaleak, askotan hainbat gizarte gertaera lazgarrien aurrean horrelako jokabideak gailentzen baitira oro har gure artean ere.

Trantsizozko justizia aplikatu ohi den gatazken konponbide prozesuetan, oro har, zigor penala nazioarteko zuzenbidearen aburuz guzitiz arbuiagarriak eta lazgarriak diren kasuetaurako gorde ohi da. Hala, gizaterien aurkako krimenak, gerra krimenak edo nazioarteko giza eskubideen zuzenbidearen urraketa larriak diren kasuetaurako gorde ohi dira zigorrak. Egungo korronteei jarraituz, kasu horietan soilik ez da posible amnistiarik eta, ondorioz, ezinbestean gertaera hauen egileak zigortuak izan behar dira. Horrek ez du esan nahi kasu hauetan zigorrak kartzela zigorra izan behar duenik ezinbestean. Kolonbiako kasuan, adibidez, Bakeroako Justizia Bereziak, askatasun mugatua ezartzen

du zigor gisa halako kasuetan, beti ere zigortuak justiziaren kolaboratu badu egiaren argitzeko.

#### **Ikuspegi holistikoa**

Nabarmendu dugun moduan, trantsizozko justiziaren kontzeptua zabaltzen joan da denborarekin, eta gaur egun bere barnean biltzen ditu epaitegi berezien sorrerak, lege eta prozedura judzial bereziak, egia batzordeak, neurri administratiboak, erreparazioak, bai eta egia bilatzea, berradiskidetza eta oroimenaren kultura garatzea helburu duten ekimen politiko, sozial zein instituzionalak ere. Gatazken konponbideak azken batean ikuspegi holistiko baten beharra erakusten du. Alex Borainen iritziz, bost zutabetan oinarritu beharko litzateke ikuspegi holistiko hori: erantzukizuna, egiaren berreskuratzea, erreparazioak, erreforma instituzionalak eta berradiskidetza (Alex Boraine (2006) Transitional Justice. A holistic interpretation. Journal of International Affairs 60, 1, 17-27). Horrela, eta oro har zabaldua dagoen ikuspegiari jarraituz, badira batetik ezinbestean erantzun gabe gelditu ezin diren gertaera lazgarriak; gizateria beste aldera begira utzi ezin dutenak inolaz ere. Gerra krimenak, gizateriaren aurkakoak, genozidioa, eta nazioarteko giza eskubideen zuzenbidearen bortxa larriak lirateke horrelakoak. Horiek ezinbestean erantzukizun penala eskatzen dute. NBEk argi esana du kasu hauekiko ezinezko del aministrariak edo indultu orokorrik adostea bake prozesuetan. Egia berreskuratzeari begira Borainek biltzen ditu egia forentsea (giza eskubideen urraketa eta pertsona desagertuen ingurukoak), egia narratzailea (audientzia publikoei zuzendutako gertaeren eta esperientzien kontakizuna, biktimen aldetik eta kalte egileen aldetik), egia soziala edo elkarritzetik ondorioztatzen dena (esperientziaren bidez eta elkarritzeten bidez eraikitzen doan egia), eta egia restauratiboa edo sendatzalea (egia bildu jakinarazi eta errekonozitza biktamei duintasuna berrezartzeko asmoz). Erreparazioak ere (ekonomiko zein moralak) garrantzia du, beti ere egia-



Goian/ 2017-12-14 Arrasate. "S[u/a]minetik Bakera" ikuskizuna Iñaki Peñak gidatua, Olatz Etxabe eta Sandra Carrasco-ren testigantza jaso ditu. Irudiak ikuskizuna. Ezkerrean/ 2018-06-04 Kanbo. Jonathan Powell Arnagako Adierazpena irakurtzen ETAren desegitearen ondoren. Eskuinean goian/ 2016-04-29, Erreteria. Bakea eta elkarbizitzaren alde Erreteriako talde anonimo batek egindako agerraldia, Julen Mendoza alkatearekin. Eskuinean behean/ 2018-03-03. Martxoaren 3ko biktimei llore eskaintza Gasteizen.

---

“Egiari erreparatuz gero, argi dago iraganari buruzko irakurketa desberdinak daudela eta egongo direla. Ezin da ikuspegi bat inposatu. Baino egia desberdin horietatik gure herrian gertatutakoaren marko orokor bat eraiki daiteke. Egia osoa eta egia guztiak barne bilduko dituena. Izaera errestauratiboa izango duen egia.”

---

ren aitortzarekin badoa, egiazkoa izan dadin. Instituzio erreformek helburu lukete etorkizunean gertaerak ez errepikatzeko mekanismo edo neurriak ezartzea, bestea beste. Berradiskidetzeak bere baitan bilduko luke iraganaren aitorta, erantzukizunak onartzea eta aurrera begirako konfiantza eraikitzea.

#### **Trantsiziozko justizia Euskal Herrian**

Euskal Herrian garatu beharreko trantsiziozko justiziak, beraz, kontuan eduki beharko lituzke zenbait ildo. Batetik, gatazkaren biktima guztiak duten egia, justizia, erreparazioa eta berriro ez gertatzeko bermerako eskubidea. Bestetik, baita Euskal Herriak eta etorkizuneko belaunaldiek bakean eta berradiskidetuta bizitzeko duten eskubidea ere. Azken horrek iraganari buruzko irakurketa adostu bat baino, etorkizuneko bizikidetzarako kontratu sozial berri bat eskatzen du. Kontratu horretan herritarron eskubide guztiak bermatuko liratzeke eta herri honetako ezein ikuspegi politikok demokratikoki eta oztoporik gabe berdintasunean garatzeko eskubidea izango luke.

Egiari erreparatuz gero, argi dago iraganari buruzko irakurketa desberdinak daudela eta egongo direla. Ezin da ikuspegi bat inposatu. Baino egia desberdin horietatik gure herrian gertatutakoaren marko orokor bat eraiki daiteke. Egia osoa eta egia guztiak barne bilduko dituena. Izaera errestauratiboa izango duen egia. Mai-la horretan eta erreparazioari begira EH Bilduk, ezker abertzaleak zein ETAK berak egiari ekarpena diren adierazpenak egin dituzte. Erreparazioa bilatzen dutenak. Azken elkarrizketa liburuan ETAK egiari begira, gertaera batzuen inguruan hainbat zehaztasun ematen ditu. Sarri aipatzen dute biktimen elkartea batzuek ETAREN 300 kasu baino gehiago daudela argitzeko. Argitura ez dagoen kontu bakarra autore materialaren ingurukoa da ordea. Gertaera horiek ETAK, ETAPM-k, ETAM-k, CCAA-k edo beste baten batek eginak direla ezaguna da, zioa ere bai gehienetan, erakunde horiek beraien parte hartzea aldarrikatzerakoan azaltzen baitzuten. Ezagutzen ez dena, gehienez, autore materiala da. Horiek argitzeko eskaera justizia erretributibo edo punitiboaren eskematik egiten dutenek jakin badakite

konponbiderik gabeko aldarria egiten ari direla. Bestalde, tortura kasuetan, eta Espainiako estatuko indar armatuek eginiko bestelako giza eskubideen bortxaketen kasuan, oro har egia ere ez da ezaguna. Ez dago, egileen aldetik bederen, gertatutakoaren eta beraien esku hartzearen errekonozimendurik, ez dago helburu errestauratiboa duen ekimenik oraindik.

Egiari dagokionez, gainera, egitateen ezagutza osoaz gain, gertaera horien guztiak sorrerako testuinguruaren arrazoien eta bilakaeraren inguruko perspektiba edo ikusmolde oso desberdinak daude. Oro har, hiru pentsamolde nagusi laburbildu daitezke. Batetik, hemen gatazkariak egon ez dela diotenen ikuspegia. Kriminalitate soila da hemen bizi izan dena eta, beraz, hori da soilik eta nagusiki judizialki ikertu beharrekoa (ikusmolde horren aldaera erradikal bat) kriminalitate horren jatorria abertzetasunaren sorreran bertan jartzen du eta, beraz, hau ere bere modalitate guztietaan borrokatu beharra dago). Beste-tik, beste ikuspegi bat litzateke gatazka politikoa egon dela eta gatazkak oraindik ere irauten duela diotenen ikuspegia, baina horrek ez zuela ezinbestean gatazka armatu edo bortitzarekin loturarik. Hau da, azken hau ez zela aurrekoaren ondorio nahitaezkoa. Azkenik, euskal gatazka bortitzaren oinarria politikoa dela ulertzten dutenena, eta gatazka armatua edo bortxazko gatazka politikoaren ondorio gisa azaltzen dutenen ikuspegia dago. Ikuspegi ezberdin horiek gatazkaren sorreraren eta bilakaeraren inguruko irakurketa desberdinak edukitzea ere badakar noski eta, beraz, hau egiren garapenari begira mugatzeko zailtasuna dakar horrek. Hala ere, ez da kasu berezia Euskal Herria, eta oro har nahikoa arrunta da. Horri aurre egiteko, Kolonbiako Bake Prozesuan, adibidez, Gatazkaren eta Biktimen Batzorde Historikoa sortu zuten, eta bertan bi aldeek unibertsitateko irakasleek eta intelektualek osatutako multzo bat izendatu zuten, gatazkaren inguruko ikusmolde desberdinak biltzeko. Ariketa horrekin, azken batean, gertaeren inguruko ikusmolde desberdinak (egia desberdinak) biltzen eta egia bakar baina poliedriko eraikitzen saiatu ziren.

Gure herrian, beraz, bide luzea dago egiteko oraindik.



2014-10-13. Donostia. Justizia Trantsionalari buruzko II. Jardunaldia Aiete Jauregian. Argazkian ezkerretik eskuinera Marina Bidasoro, Martin Garitano eta Felipe Gomez.

Batetik, egia guztia eta egia guztiak bildu behar dira, eta urte luzeetan ezkutuan egon den egia bat argitaratzen jarraitu beharra dago. Torturaren egia hasi da azaltzen. Oraindik, hala ere, erakunde politiko eta instituzionalen torturarekiko erantzukizuna zein izan den argitu gabe dago. Guda zikinaren erantzukizun politiko instituzionalak ere argitzeko daude. Zeresanik ez "tirar a matar" politikaren ingurukoak, eta indar armatuen bestelako giza eskubide bortxaketen inguruoak. Lehen esan bezala, talde armatuek gure herrian egindako gehiegikerien inguruko egia nahikoa ezaguna da, eta falta diren kasuak argitzea posible da, horretarako baldintzak sortuz gero.

Beraz, garrantzitsua da herriz herri eta eskualdez eskuadre gatazkaren egia osoa biltzen joatea, errekonozitza. Horrela, etorkizunean baldintzak sortu ahala, Euskal Gatazkaren Egiaren Batzordeari begirako aurrelanak eginak izateko. Herriz herri gatazkaren biktima guztiei begirako erreparazio neurriak hartzea. Lan handia egin behar da gatazkaren inguruko ikusmolde desberdinak bildu ditzakeen marko poliedrikoa osatzeko. Zaila da, baina ez da ezinezkoa. Argi dago iraganari buruzko ikuspegia desberdinak daudela gure

herrian. Logikoa da, horregatik dugu gatazka bat. Ados bageunde ez genuke izango. Hau onartu beharra dago. Gakoa ez dago iraganaren inguruko ikuspegia desberdinak izatean, hortik abiatuta gutxienik etorkizunari begira ikusmolde desberdin horiek elkar bizi ahal daitzen ereduaz ezartzean baizik, etorkizuneko bizikideztari buruzko kontratu sozial berria eraikiz, berriro ez errepikatzeko berme gisa.

### Azken gogoeta bat

Justizia trantsionala garatzeko muga nagusia gure herrian, Justizia gatazkaren existentzia bera ukatzen dutenen esku egotean datza. Trantsiziozko justiziaren aldeko aldarri eta lanak ezin du inolaz ere aditzera eman, behar hori lortu ezean besterik egin behar ez denik. Gatazkaren ondorioz preso edo ihesean direnekiko bidegabekeria handiena hauek etxeratzea beste egun bakar batez atzeratzea litzateke. Trantsiziozko justizia baten aldarria ez dago kontrajarrita egungo marko legalak (justizia punitibo eta salbuespenezkoak) eskaintzen dituen aukera eta zirkitu guztiak probestearekin, eta era berean ahal den neurrian horiek higatzeko lanean jarraitzearekin.





2008-09-16. Effondrement de Lehman  
Brothers. Photographes freelance,  
journalistes TV et camions satellites le jour  
de l'annonce de l'effondrement de la banque.  
©Patrick Stahl. CC-BY-SA



Irakurri artikulua euskaran  
gure web orrian: [www.erria.eus](http://www.erria.eus)

ÉCONOMIE

# Le temps des corps nus

---

---

**On dit souvent que si on a peur de parler en public il suffit d'imaginer ce public nu. Je n'ai jamais fait le test, mais je comprends bien ce que cela signifie: nu, on est tous pareil, tout est plus horizontal et donc la peur qui elle, est verticale, ce réduit.**

**S'il s'agit d'un article sur l'économie, vous vous demanderez certainement pourquoi j'ai écrit le paragraphe antérieur. Je l'ai écrit car il est temps de mettre à nu le discours des experts en économie et mettre à jour ce qu'il y a sous ce langage confus. Il est temps, si l'on veut vivre plus libre, d'établir une relation plus horizontale entre les économistes et la citoyenneté**

---

\* Irakurri artikulua euskaraz  
gure web orrian: [www.eria.eus](http://www.eria.eus)

Joseba Permach. Economiste membre de la Fondation Iratzar.



Nous avons dit que l'espace de la peur est verticale. Cependant le discours de ces experts recherche justement cela: construire un niveau d'incompréhension aux yeux de la base sociale afin qu'elle se retrouve sans ressources et démunie. Pour aller droit au but, voici notre hypothèse: l'économie s'habille d'un discours incompréhensible afin que les citoyens ne comprennent pas son fonctionnement et nous faire croire que l'oppression du système est propre à elle et immuable. De ce fait, on nous empêche d'agir sur celui-ci. Dans l'interview réalisé à Berria en 2016, Ha-Joon Chang, l'économiste hétérodoxe d'Oxford disait que l'économie est deve-

nue l'idéologie du modèle social que nous vivons" (Chang, 2016). Autrement dit, le discours économique dominant rempli, face à la société, la même fonction que l'idéologie, c'est-à-dire, la légitimation du système capitaliste et patriarcal. Le discours économique dominant est fonctionnel pour le système. Et c'est justement pour cela qu'il est si important de faire des recherches, de mettre à nu et dévoiler ceux qui veut être caché. Comment pourrions-nous résumer le message qu'on nous transmet à travers le discours économique dominant? En deux mots, il nous dit quelque chose dans le genre: "l'économie est une science. Tu ne peux pas la

comprendre, car la science, c'est difficile. Mais ne t'inquiète pas, car le système capitaliste et patriarcal ainsi que sa dernière version qu'est le néolibéralisme n'ont pas d'alternatives. Le marché libre est le seul système naturel, le reste c'est de l'utopie, une rêverie". Voilà ce que la majorité des experts en économie nous disent lorsqu'ils parlent sous leur discours confus et sombre. En le rendant naturel, ils éloignent toute possibilité d'un horizon alternatif.

**Mais est-ce ainsi réellement?**  
Nous voulons ici partager une réflexion. Mais avant de parler du discours utilisé autour de la crise économique actuelle, nous



Siège de la Banque Centrale  
Européenne (BCE).  
©Solvency li Wire.



2012. Lisbonne. Mobilisation contre la Troika. "Fuck the Troika. We want our lives back". ©Pedro Ribeiro Simões. CC-BY-2.0

---

## Au lieu d'expliquer ce qu'il c'est passé et de reconnaître que le marché et le paradigme économique libéral ne fonctionnent pas, ils ont construit, ces dernières années, un nouveau discours métaphorique.

---

allons présenter les racines de celle-ci.

Jusqu'à nos jours, le libéralisme économique à été le paradigme dominant des sciences économiques et le marché libre en est sa base. Si nous prenons comme référence *L'Homo economicus* (typologie de personne qui prend toujours des décisions rationnelles), chacun devrait prioriser son intérêt personnel dans ses activités quotidiennes. Ensuite La *main invisible* du marché va agir en médiateur entre l'offre et la demande. Ainsi, l'équilibre pourra être établi au bénéfice de tous de même que l'économie

se développera pour le bénéfice de la société. Comme la main invisible fera bien son travail, Le libéralisme économique pourra rejeter la main mise de l'Etat. Voilà donc en résumé les deux piliers du libéralisme économique qui soutiennent la base idéologique du système capitaliste: le marché à la capacité de s'autoréguler et donc l'Etat doit s'impliquer le moins possible. Adam Smith fut le créateur du libéralisme économique. C'est à lui que nous devons la métaphore de la *main invisible*. Si nous voulons analyser le discours des économistes, il nous

est indispensable de prendre en compte cette métaphore. Les métaphores on une grande importance dans notre vie quotidienne, dans notre discours et par conséquent dans notre manière d'interpréter la réalité. Blumberg, spécialiste dans l'étude des métaphores dit que l'être humain est un *symbolicum*. Selon lui, il imagine et remplace sans cesse le monde par autre chose de familier afin de le dominer. Il éloigne le regard de ce qui lui est inconnu et s'adresse à ce qu'il connaît. (Blumberg, 1999) Adam Smith est connu par la plupart comme un économiste.



2014-03-03, Bilbo, Guggenheim.  
Global Forum Spain. Arrivée des  
officiels, dont le président de la CAV  
Iñigo Urkullu, le roi Juan  
Carlos de Borbon et la présidente du  
FMI Christine Lagarde.

---

**L'objectif est cependant le même, nier les défaillances du système actuel, donner un caractère naturel à la crise et en cacher les responsables, justifier les politiques économiques injustes et pendant ce temps parler au citoyen comme si nous étions des imbéciles.**

---

Il fut pourtant, aussi, professeur de rhétorique. Ainsi il pu facilement établir le remplacement dont parle Blumenberg: couvrir de la *main invisible* le mécanisme du libre marché, qui nous semble si compliqué. Ainsi nous passons de la main omniprésente de Dieu à celle de la *main invisible*. En voilà une science!

Mais pourquoi a-t-elle duré si longtemps la métaphore de Smith? Selon les spécialistes en la matière il y a deux raisons: d'un coté la main permet d'établir une métaphore avec la nature (plus précisément avec

l'anatomie) et ce type de métaphore est très effective à l'heure d'illustrer une fonction idéologique. Nous développerons cette idée plus tard. Et d'un autre côté, elle est *invisible*. Dire que le mécanisme qui guide l'économie est invisible rend plus difficile son analyse.

Dans la mesure où le processus de l'équilibre entre l'offre et la demande est invisible, il nous est inutile de chercher à la comprendre. De même que la main de Dieu, la *main invisible*, reflète un caractère magique. Et on nous invite non pas à comprendre mais à croire.

#### **Mais que se passe-t-il vraiment dans la réalité?**

Quoiqu'en dise le discours du libéralisme économique, la *main invisible* n'a montré aucune capacité à équilibrer le marché. Comme Marx l'avait prédit, le capitalisme est un système qui va de crise en crise, surproduction ou bulle financière. Voyons-en les conséquences : Un système économique qui produit sans cesse des crises, provoque et diffuse de manière durable la pauvreté, le chômage et la précarité. Il condamne les femmes au travail reproductif et au secteur les plus précaires,

agrandi la fracture sociale, exploite de plus en plus les ressources naturelles sans aucun contrôle ni garantie et construit le développement du Nord sur la misère du Sud. C'est une réalité depuis longtemps et la globalisation et le néolibéralisme des dernières décennies n'ont fait que l'accroître et l'aggraver.

**Comment est-ce possible donc de dire qu'un système qui provoque de telle crises et de telles conséquences est un système stable? Comment est-ce possible que le discours de la majorité des économistes ne mette pas en doute ce système? Comment est-ce possible qu'encore dans les facultés d'économies on continue à faire des analyses basées sur le mirage de la *main invisible*?**

Max Neef, l'économiste hétérodoxe Chilien explique que si l'économie était une science, les économistes agiraient de la sorte; ils mettraient de côté toute théorie défaillante et se mettrait à en chercher une autre (Max-Neef y Smith, 2011). Or, il n'en est rien.

Qu'ont fait par exemple les experts en économie lors la dernière crise, lorsqu'on a clairement vu que la *main invisible* (le libre marché) ne fonctionnait pas? Au lieu d'accepter les défaillances du système, on a inventé un nouveau discours qui rend le problème naturel et le fétichise (avec une vie propre). Pourquoi faire? Pour continuer à légitimer le système.

Dix années se sont écoulées et nous pouvons diviser en trois phases les discours de ces experts.

**Lors de la première phase, on nous parlait de la crise comme un phénomène météorologique ou naturel.**

Tsunami financier, turbulences ou tremblement de terre, termes utilisés pour naturaliser la crise et en cacher les responsables. Si c'est un phénomène naturel il n'y a pas de responsables. Nous avons pu constater encore une fois, que le libre marché ne fonctionnait pas mais, plutôt que de l'accepter, les économistes orthodoxes ont caché les défaillances de la main invisible avec des métaphores de la nature.

Après celui de la catastrophe naturelle, vient la seconde phase du discours. Qu'y a-t-il après une catastrophe naturelle? L'opération de sauvetage évidemment; et ainsi on a pu légitimer, par exemple, le plus grand transfert (vol) d'argent des mains publiques aux mains privés jamais réalisé, l'opération de *sauvetage* des banques. Nous avons dit que le libéralisme économique refuse, en théorie, la main mise de l'Etat, mais dans la situation d'exception de la catastrophe, les libéraux et les néolibéraux ont défendu une main mise durable de l'Etat.

**Et lorsque la métaphore du sauvetage n'est plus assez forte, on va fétichiser l'économie et on va lui donner vie en disant qu'elle est malade et qu'il faut, pour la guérir, des interventions chirurgicales et des ordonnances.**

Le discours économique s'habille ainsi de métaphores médicales. Qui va refuser l'aide à un malade? Ainsi toute aide est justifiée. Voici le but de cette métaphore.

Celui qui fut responsable d'économie du PSOE disait ceci en parlant du sauvetage des banques: "El Gobierno abrió en canal al sistema financiero para intervenirlo quirúrgicamente, pero aún no sabía ni cuales eran los órganos dañados ni el instru-

mental quirúrgico que disponía" (Rodríguez Piñeiro, 2012). Il est lui même économiste même si il parle comme un médecin. Il est socialiste, mais vu la quantité qu'il avait offert aux banques, il semble être plus un néolibéral.

**Et finalement, la troisième phase du discours dure jusqu'à nos jours. Et le but en est de rendre la maladie chronique. Pourquoi?**

Pour pérenniser l'intervention de l'Etat dans la logique de la maladie. Lagarde, la haute responsable du FMI parlait ainsi dans une visite faite à Bilbo: "les cicatrices de la crise sont profondes et il faudra des années pour les guérir" (Lagarde, 2014) et appelle dans la foulée à une main mise de l'Etat. Le voilà le libéralisme économique!

Une toute autre affaire est de savoir envers qui, et dans quelle direction on effectue cette intervention. Dans la logique de la maladie l'argument reste valable pour par exemple, continuer le vol permanent des caisses publiques vers les mains privées. Et pourtant, nous ne trouverons pas d'explication à ce phénomène de la part des experts en économie dans les médias.

Nous avons de manière rapide et succincte analysé les métaphores majeures utilisées par les économistes. Au lieu d'expliquer ce qu'il c'est passé et de reconnaître que le marché et le paradigme économique libéral ne fonctionnent pas, ils ont construit, ces dernières années, un nouveau discours métaphorique. L'objectif est cependant le même, nier les défaillances du système actuel, donner un caractère naturel à la crise et en cacher les responsables, justifier les politiques économiques injustes et pendant ce



2013. Manifestation à Lisbonne  
"Que se Lixe a Troika". ©Bloco de Esquerda



---

## Avec la main invisible l'économie a englouti la politique. Le discours économique nouvellement reconstruit veut légitimer des politiques qui nous empêchent d'avoir une vie digne.

---

temps parler au citoyen comme si nous étions des imbéciles. Pour la énième fois, le système a craqué et nous en avons subi les lourdes conséquences. Au lieu de l'accepter, ils on reconstruit le même système avec un discours métaphorique sur la nature et la médecine et continuer ainsi à légitimer leurs institutions (par exemple le marché).

Avec la *main invisible* l'économie a englouti la politique. Le discours économique nouvellement reconstruit veut légitimer des politiques qui nous empêchent d'avoir une vie digne. Pendant que les économistes orthodoxes masquent leurs incapacités, les conséquences de la crise sont subies sur des milliers et des milliers de corps nus. Nous l'avons déjà oublié, l'économie

à pour but des conditions de vie dignes, de vies dignes qu'il faut construire sur ces corps nus. Le temps des corps nus et de la vie digne est pourtant sur le point d'éclater. Nous sommes de plus en plus nombreux et nombreuses à mettre en doute le paradigme dominant de l'économie, à revendiquer qu'il faut faire tomber ce discours dominant, à penser qu'il n'y a pas de production sans reproduction, à être persuadés que puisque la terre n'est pas inépuisable, qu'il faut en finir avec ce système. Nous sommes oui, de plus en plus à défendre la souveraineté des peuples et des citoyen(ne)s. En fin de compte, nous sommes de plus en plus à revendiquer, face au discours déguisé et capricieux du capital, les besoins et les demandes des corps nus.

Remarque: le contenu de cet article est basé sur le livre "Esku Ikusezinaren itzal luzea. Ekonomilarien erretori-kritika" publié par UEU. Vous y trouverez le contenu de cet article ainsi que d'autres thèmes de manière plus développée.



**DOSIERRA:**

# D<sub>1</sub>\*

hausnarketa:

RAFA DIEZ USABIAGA

**Txibertatik** estatus berri  
baterako akordiora

# D<sub>2</sub>\*

sinadura:

ELIXABETE ANSA GOICOECHEA

**Txabi Etxebarrieta**

y la cultura política  
de la transición

# D<sub>3</sub>\*

sinadura:

ANDONI OLARIAGA AZKARATE

**Subiranotasuna eta artikulazioa:**  
txanponetik poliedrora

DR  
TICK  
JUT  
AZAN  
GAGA  
ARA  
ARNA  
A

# Txibertatik estatus berri baterako akordiora




\* Puedes leer el artículo en castellano en  
nuestra página web: [www.erria.eus](http://www.erria.eus)

**EAJk eta EH Bilduk EAErako estatus politiko berriaren oinarrien inguruan lortu duten akordioa esanahi eta garrantzi politiko handiko urratsa da. Euskal Herriaren zati bati soilik dagokion arren, une politiko honetan ezker abertzalearen estrategia nazional independentistan izango duen eragina ukaezina da.**



hausnarketa

Rafa Diez Usabiaga. Sortuko Kontseilu Nazionaleko kidea eta Norabidezko Estrategikorako Guneeko arduraduna / Argazkiak: FOKU



Jose Miguel Beñaran "Argala" eta Telesforo Monzon. Txibertako elkarritzeten sustatzaile eta protagonistak izan ziren.

# “Garai hartan planteatu zen arkitektura instituzionala ez zen izan “erreforma” negoziatu zuten alderdien lana, baizik eta beren borroka politiko eta sozialaren bidez frankismoa higatu eta baldintzatu zuten erakundeen eta gizarte sektoreen lorpena.”

**A**kordioaren garrantziaz ohar gaitezten, ezaugarri bertsuak dituzten bi koiuntura aipatuko ditugu. Batetik, frankismoaren agonia eta trantsizioaren hasiera. Koiuntura hartan, akordioak eta konpromisoak bilatu ziren trantsizio horretarako oinarri sendo batzuk adoste aldera (askatasun demokratikoak eta Hegoalderako autonomia, euskal nazioa eta eskubide nazionalak aitortuz). Bestetik, gaur egungo koiuntura, zeinean nazio aitortzarako eta burujabetzarako marko bateranzko trantsizioa abiatu dugun, hiru faktore nagusiren eraginez: Hego Euskal Herriko autonomia-amejoramendu markoaren agorpena, ezker abertzalearen aldaketa estrategikoa eta ETAren desagerpena. Halaber, eta estrategia nazional baterako oso garrantzitsua den balio erantsi gisa, Euskal Elkarlaoa sortu da eta lehen urratsak egiten ari da. Euskal Herri kontinentalak azken 200 urteetan lehen aldiz lortu duen marko instituzionala da eta, haren jar-

duera esparrua mugatua den arren, eragin nabariko aktore politiko gisa legitimatu da. Horri dagokionez, nabarmentzekoak dira Kanboko goi bileran izandako implikazio “instituzionala” –ETAREN erabakiari proiekzioa emanez– eta Frantziako Estatuaren presoen inguruan egindako kudeaketa politikoa.

## Frankismoaren bukaera – trantsizioaren atarikoa – Txiberta

Frankismoaren garaian, belau-naldi berri bat EAJren geldikeria-ren eta kontserbadurismo ideo-logikoaren aurrean altxatu zen eta borroka nazionala garai hartako pentsamendu korronteekin uztartu zituen mugimendu emantzipatzale bat garatzeari ekin zion, Kuba, Aljeria eta nazio askapenerako beste mugimendu batzuk eredutzat hartuz. Ia bi hamarkada iraun zuen borroka horren ostean, frankismoak trantsizio prozesu bat diseinatu zuen, helburu argi batekin: indar sozialen korrelazio berrieik

**“Orduko ezker abertzalea herri akordio bat lortzen saiatu zen (Txiberta), frankismoaren aurkako borrokan metatutako giza kapitala xahutuko luketen bide “erreformistak” eragotzi nahirik, baina EAJk borroka horren “intxaurrek” jaso nahi zituen.”**

bultzaturik Hego Euskal Herrian nahiz Espainiako Estatuaren “al-daketaren” alde altzatzen ari ziren olatuak neutralizatzea.

Erreformaren eta hausturaren arteko dialektika une politiko hartako ezaugarri nagusia izan zen, eta zeharo markatu du Estatu aparatuak –polizia, judikatura, botere ekonomikoak, he-dabideak...– orduz gerotzik izan duten bilakaera. Demokrazia formal batera egokitzeo “bir-

moldatu” baziren ere, funtsean aparatu horiek guztiak frankismoaren oinordeko gisa jardun dute gaur egunera arte. Bestetik, PSOEk, PCEk, EAJk eta CIUk erreformentaren aldeko hautua egin izanak zaintzapeko trantsizio ordenatua erraztu zuen. Frankismo politiko-soziologikoa, berriz, itxuraldatzen joan zen eta alderdi berriak osatu zituen: UCD, AP eta, azkenik, nola ez, Fragaren Alderdi Popularra (PP).

Funtsean, garai hartan planteatu zen arkitektura institucionala (konstituzioa eta estatutuak) ez zen izan “erreforma” negoziatu zuten alderdien lana, baizik eta beren borroka politiko eta sozialaren bidez frankismoa higatu eta baldintzatu zuten era-

kundeen eta gizarte sektoreen lorpena. Hau da, sistema halabeharrez iritsi zen konstituzio “horretara” eta “egungo” estatutuetara, bere borondatearen kontra, ia bi hamarkadako borrokaren ondorioz kontzientzia nazional eta sozialak egindako aurrerapena asimilatzeko amoz. Norbaitek uste al du, esaterako, trantsizioa berdina izango zela Carrero Blancorekin? Norbaitek uste al du ENAMen borroka tartearen egon ez balitz frankismoaren oinordekoek gogo onez onartuko zituztela estatutuak, hasieran “kafea guztientzat” eta azkenean “deskafeinatura guztientzat” eredua ezarrita ere? Gaur egungo estatutu markoa arrakalaz josita eta oso murritzuta dagoen arren, EAJk inolako

lotsarik gabe aldarrikatzen du bere negoziazio “abileziaren” eta apustu historikoaren fruitua dela, baina, egiai zor, eduki haiek ENAMeko erakundeok EAJren eta haren buruzagien absentzia ia erabatekoarekin egin genuen borrokaren eta bultzatu genuen indar korrelazioaren ondorio izan ziren.

Abagune historiko hartako bidegurutze politikoan, orduko ezker abertzalea herri akordio bat lortzen ahalegindu zen (Txiberta), frankismoaren aurkako borrokan metatutako giza kapitala xahutuko luketen bide “erreformistak” eragotzi nahi-rik, baina EAJk borroka horren “intxaurrek” jaso nahi zituen eta uko egin zion haustura de-



Antton Karrera, Joseba Egibar, Ritzar Irazusta, Arnaldo Otegi eta Rafa Larreina besteren artean, Lizarra-Garazi garaiko agerraldi batean.

**“EAJri kohesioa eta borondate politikoa falta zitzaitzkon Estatuaren aurrean zeukan ‘statu quo’-a arriskuan jarriko zukeen konfrontazio demokratiko bati ekiteko. Bestetik, zaila zen ezker abertzalearen kultura politiko-militarra epe laburrean bideratzea eta egokitzea.”**

Manex Pagola, Mertxe Colina eta Jakes Bortairu. Hasieran Lizarrako Ituna zena, gero Lizarra-Garaziko Ituna bilakatu zen, izaera nazionala hartuz.



mokratikoaren aldeko ezein compromiso hartzeari. Honako hauek izan ziren euskal esparru nazionaletik haustura demokratikoari begira proposatu ziren konpromisoen oinarriak: preso politikoaren askatasuna, erakunde independentisten legeztapena, autodeterminazioa eta lau herrialdeetarako estatutua.

Beraz, Txibertako elkarritzketak abertzetalesunaren bi “arimen” arteko konbergentzia taktikorako lehen saiakera izan ziren. Haien osteko dibergentzia politikoak 80ko hamarkada osoa eta 90eko hamarkadako urte gehienak markatu zituen, harik eta beste inflexio puntu bat iritsi zen arte: Lizarra-Garazi.

#### **Lizarra-Garazi: alferrik galduztako aukera**

Hego Euskal Herriko agertoki politikoaren etorkizunari begirako bi estrategia ezberdin elkartu ziren Lizarra-Garazin. EAJk EAE mailako “kudeaketaren” eta “instituzionalizazioaren” aldeko hautua egina zuen (sektore postfrankistek PSOE-ri inposatu zioten lurralte zatiketa onartuz), loapizatuta eta bere gauzatzte praktikoan guztiz baldintzatuta zegoen autonomia estatutu baten bidez. Instituzionalizazioak bi helburu nagusi zituen: gure herriaren nerbio garrantzitsuenetan aurrera egitea (euskarra, kultura, industria) eta, horrekin batera, egitura “administratibo” osoaz jabetzea, ENAMen estrategiari gorputza ematen zion mugimendu sozial eta sindikala neutralizatzen joateko. Horri dagokionez, gogorazi beharra dago “erreformaren” sindikatuak ez zirela CCOO eta UGT soilik. Izan ere, ELAk Gernikako estatutua babestu zuen eta monopolio erregimenean instalatu zen administrazio publiko berrian.

Hala ere, garai hartan, oinarrizko eduki politiko batzuen

inguruaren bi eremu abertzaleen arteko konbergentzia lantzeko aukera sortu zen. Bi izan ziren abagune horretara eraman gintzuten faktore nagusiak: batetik, eredu autonomikoaren inguruko inboluzio gero eta handiagoa Estatuaren aldetik –transfrentziaren izoztea, lege organikoaren eta Auzitegi Konstituzionalaren bidezko higatzea...–; bestetik, ENAMen erresistentzia, nazio aitortza eta burujabetza aldarrikatuz eta, horrela, EAJk bere egin zuen Konstituzio-Estatutu-Ameroramendu diseinua baldintzatuz. Lizarra-Garazin gaude.

Lizarra-Garazin planteatu ziren oinarriek erreferentzia nazional bat ireki zuten, lehenbiziko al-diz, mugimendu abertzalearen estrategian, eta konbergentzia puntu nahikoa ziren etapa politiko berri bat irekitzeko, baina azkenean, aurreko hogei urteetan bi sektoreak ezaugarritu zituzten joerek akordioa zapuztu zuten. Batetik, EAJri kohesioa eta borondate politikoa falta zitzakion Estatuaren aurrean zeukan ‘status quo’-a arriskuan jarriko zukeen konfrontrazio demokratiako bati ekiteko. Ez zegoen horretarako prestatuta. Bestetik, zaila zen ezker abertzalearen kultura politiko-militarra epe laburrean bideratzea eta egokitzea. Hau da, Txibertan sortutako estrategia dibergenteen ostean eraiki ziren joerek pisu handia izan zuten, Lizarra-Garazik XX. mendearren amaierako “eredu katalan” moduko bat irekitzeko zeukan ahalmena baino indartsuagoak izan ziren.

Lizarra-Garaziko saiakeraren porrotaren ostean, autonomismoaren eta burujabetza markoaren arteko trantsizioa gelditu egin zen. Testuinguru horretan, EAJk eta ezker abertzaleak beste “saiakera” batzuk egin zituzten,

zeinek bere aldetik, hala nola, hurrenez hurren, Ibarretxe Plana eta Loioa. Lizarra-Garazik utzi zituen txingarretatik piztutako suak izan ziren, baina ez ziren euskal muskulu sozial osora hedatu. Gizarterik gabeko prozesuak izan ziren, instituzionalak edo isilpekoak, eta, azkenean, fase politiko bat agortu zuten. Gutxienez, ezker abertzalean hala ikusi genuen aldaketa estrategikoari ekin genionean.

### Aiete-Kanbo. Aldaketa estrategikoa

Aldaketa estrategikoa egitera eraman gintuen hausnarketa konbentzimendu sendo batetik abiatuta egin zen: ezinezkoa da autonomiaren eta burujabetzen arteko trantsizio politikoa egitea estrategia politiko-militar baten markoa. Horretarako, ezinbestekoa da beste etapa bat irekitzea borroka politikoaren euskal agertokian. Autonomismoaren kontrako borrokaren uzta jasoz, euskal gizartea indar korrelazio berri bat artikulatu behar du, nazio aitortza, erabakitzeko eskubidea eta burujabetza politiko eta ekonomikoa helburu eta oinarri. Horrekin batera, indartu egin behar da ezker abertzalearen proiektu estrategikoa, hau da, Euskal Errepublika sozialista, euskalduna eta ez-patriarkala.

Aietetik Kanboraino ETAk har tutako erabakiek batera, ezker abertzale osoaren erabaki autonomoak forma eman dio fase politiko berri honi. Hego Euskal Herrian, mapa instituzionala sakonki aldatu da. Gaur egun, ezker subiranista-independenta EAJren alternatiba bakarra da EAEn, eta erregimena bota duen aldaketaren gehiengoaren funtsezko kidea Nafarroan. Ipar Euskal Herrian, testuinguru politiko berriak aldarrikapen bate-

ratuak indartu ditu eta, besteak beste, hiru herrialdeen lehen aitortza instituzional-administratibo bat egitera behartu du Paris. Bestetik, borroka armatua euskal ekuazio politikotik desagertu izanak Estatuaren estrategiaren bizkarrezurra hautsi du, kohesio sozialari eusteko eta subiranismo politikoa neutralizatzeko tresna gisa erabiltzen baitzuen borroka antiterrorista. Azkenik, Kataluniako prozesuaren bilakaerak eta Estatua erantzun politiko bat emateko gai ez izateak inork espero ez zuen irismena hartu duen “fronte” bat ireki dute Katalunian.

PP eta EAJ aldaketa politikoen prozesua geldiarazten saiatu dira. Horretarako, Estatuak bahitu gisa erabiltzen ditu presoak, eta EAJk inboluzio politikoa bultzatu du arlo nazionalean eta inboluzio kontserbadorearen termino ideologiko-sozialetan. Horren ondorioz, aldagai instituzional horien garapena ez zen uztartzen ari dinamika sozial konbergente eta progresibo batekin. Baldintzak emanda zeuden. Teorikoki, antolakuntza subjektuak ere bai. Baina, berriro ere, EAJ ez zen ausartu Estatuari aurre egitera goraka ari zen ezker subiranistaren eskutik, eta beste eragile batzuk –haien artean ELA– egoera berriarekin espekulatzen aritu ziren, beraien interes espezifikoei kalte egingo zien beldurrez.

Horren guztiaren ondorioz, bizi-pahiru urtez nolabaiteko nahasmena eta zaitasunak egon ziren autonomismoaren osteko fase honi ekiteko. Orain, berriro diogu, 77-79ko trantsiziokoaren antzeko bidegurutze batean gaude. Berrogei urte geroago, sakontasun politiko handiko dekantazioen bidegurutze batean gaude, pairatzen ari den lurralte krisia



Arnaldo Otegi Anoetako Proposamenaren aurkezpenean. Alternatiba Demokratikoan sakonduz, gatazkaren konponbiderako negoziaketa metodoa proposatzen zuen. Ondoren 2006-2007ko negoziaketetarako oinarria izan zen konponbiderako bi karrilen planteamendua.

D<sub>1</sub>\*

## **“Ibarretxe Plana eta Loiola gizarterik gabeko prozesuak izan ziren, instituzionalak edo isilpekoak, eta, azkenean, fase politiko bat agortu zuten.”**

konpontzeko eskaintzarik eta terapia estrategikorik ez daukan Estatu baten aurrean.

Horri dagokionez, Txiberta berri bat ekiditeko tenorean gaude. Konbergentzia bat artikulatzeko aukera dugu, Euskal Errepublika eratzeko bidean jauzi kualitatibo bat egitea ahalbidetuko diguten oinarri sendo batzuen gainean: nazio aitortza, erabakitzeko

eskubidea, euskal eskala demokratiko eta sozial baterako bote-re-funtsa, gure autogobernu-burujabetza markoen blindajea, eta euskal eta nafar subjektuen eta Estatuaren arteko aldebikotasuna marko konfederal batean.

EAJk eta EH Bilduk EAEen adostu duten Oinarri eta Printzipoen akordioa Txibertan ezinezkoa izan zen eta Lizarra-Garazin, Iba-

rretxe Planean edo Loiolan garapenik gabe utzi genuen elkar-gune historiko hori izan daiteke, nahiz eta Podemosek “zikin” jokatu duen, eredu plurinazional eta konfederal bati uko eginez. Ezker abertzaleak horizonte kolektibo hori bultzatu eta eraiki nahi du, arlo instituzionalean nahiz sozialean herri honek jauzi politiko bat egin dezan Euskal Errepublikarantz aurrera egiteko

estrategian. Garrantzi handiko “eskailera maila” politiko bat igo ahal dugu, gure mapa nazionala jostearekin batera.


Egoera onean iritsi gara une eragakigarri honetara: behar adinako indar korrelazio instituzionala, jauzi politikoaren bizkarrezurrean –erabakitzeko eskubidea– posizio irmoak di-

tuen mugimendu soziala, euskal eskalan txertatzen ari diren eta ardatz nazionala indartzen duten dinamika sektorialak eta, horizonte kolektiboa berreskuraturik, ahalmen ikaragarria daukan erakunde sarea.

Aurrera egiteko unea da.

2018ko ekainaren 10ean Gure Esku Dagok Euskal Herrian inoiz egin den mobilizazio erraldoiena egin zuen, 175.000 lagun batuta giza katean. Eusko Legebiltzarrari estatus berrian erabakitzeko eskubidea jasotzeko mandatua eman genion herritarrok.

D<sub>1</sub>\*



**“Orain, 77-79ko trantsiziokoaren antzeko bidegurutze batean gaude. Berrogei urte geroago, sakontasun politiko handiko dekantazioen bidegurutze batean gaude.”**

**“EAJk eta EH Bilduk EAEn adostu duten Oinarri eta Printzipioen akordioa Txibertan ezinezkoa izan zen eta Lizarraga-Garazin, Ibarretxe Planean edo Loiolan garapenik gabe utzi genuen elkargune historiko hori izan daiteke.”**


# Txabi Etxebarrieta y la cultura política de la transición



El recuerdo de Txabi Etxebarrieta viene casi simultáneamente acompañado de una imagen; la fotografía de un joven estudiante de Economía, con chaqueta y corbata, que sostiene entre sus manos lo que parece ser un sobre. Es una foto muy alejada de ninguna figuración demonizada del “etarra” como empezaron a denominar despectivamente a todos los militantes de ETA por igual. Tras su muerte a los 23 años, siendo líder de la organización, la foto se convirtió en una imagen icónica. Hay un uso y circulación de esta imagen que nos sirve como excusa para pensar la figura de Etxebarrieta y la producción cultural vasca de los sesenta.

sinadura

Elixabete Ansa Goicoechea. *Dra. en filosofía.*



## Oteiza busca en el fantasma de Etxebarrieta desordenar el facilismo con el que se interpreta la historia de la violencia política en el País Vasco.

**En 1964, quizás por la influencia que tuvo el ensayo de Jorge Oteiza *Quosque Tandem...! Interpretación estética del alma vasca* (1963) o el poemario *Harri eta herri* (1964) de Gabriel Aresti, es ETA la que establece la necesidad de vincularse más con los autores de la producción cultural vasca del momento.**

**L**o haremos prestando atención a la forma en la que se presenta, de modo fragmentario, al modo de un *collage*. Nos referimos a un *collage* que incluye Jorge Oteiza en una conversación biográfica que sostiene con Miguel Pelay Orozco. Allí Oteiza relaciona la cabeza del hijo muerto a los pies de la *Pietá* que en 1968 subiera al friso de la Basílica de Arantzazu con la fotografía de Etxebarrieta, la figura del joven líder muerto el 7 de junio de 1968 por las denominadas “Fuerzas de Orden Público” de la dictadura (FOP). En este mismo artículo, unas páginas más adelante podemos ver la reproducción fotográfica de la *Pietá* que realizara un grupo de simpatizantes como respuesta a la muerte de otro militante de ETA, Josu Zabala, el 8 de septiembre de 1976. 1 A pie de página de las imágenes que podemos ver en este artículo, la explicación que ofrece Oteiza es la siguiente: “*7 de junio, sacrificado en Benta-aundi, el primero de nuestra Resistencia última... cuando subo el 1 de noviembre [de 1968] a Aránzazu, ya he decidido que pondré en lo alto del Muro, el Hijo muerto, a*

*los pies de la Madre, que estará mirando al cielo, hablando, no sé...*”. Quisiera plantear las relaciones entre Etxebarrieta y lo que denominamos la cultura política de la transición como un nudo problemático en el que la evocación de Oteiza busca en el fantasma de Etxebarrieta desordenar el facilismo con el que se interpreta la historia de la violencia política en Euskal Herria.

### Etxebarrieta y la ETA de la V Asamblea

Según el economista Joseph Harrison, en la década de los sesenta del siglo pasado, cuando aún quedaba más de una década para la muerte de Franco, el Plan de Estabilización Económica aprobado en 1959 supuso el primer paso en la flexibilización de la economía estatal a través de tres cambios importantes: 1) una baja protección en las medidas de liberalización del mercado, 2) la exportación de bienes manufacturados (devaluando la peseta en 1959) y 3) la financiación externa de la industria española. Este plan de liberalización económica tuvo sus momentos inestables a lo largo de los 60 y Harrison confirma que para ha-

cer frente, por ejemplo, a la recesión de 1966-7, los reformistas liberales se beneficiaron de las ayudas económicas del Fondo Monetario Internacional, el Banco Mundial, la Organización de Cooperación y Desarrollo Económico, el Mercado Común Europeo, la Organización Mundial del Comercio y el Acuerdo Europeo de Libre Comercio. No se puede entender la fundación de ETA y la figura de Txabi Etxebarrieta sin tener en cuenta estos orígenes de la liberalización económica española y, por tanto, sin lo que significó posteriormente la llamada “ola de derechización” de Occidente (Kohl, Thatcher, Reagan) que culminó con la destitución de los imaginarios revolucionarios de la izquierda. En Euskal Herria la resistencia a esta tendencia en los años sesenta encuentra en la clase obrera una fuerza opositora importante. La recuperación de la economía supuso triplicar el Producto Interior Bruto entre 1960 y 1973, enfrentar un excesivo crecimiento demográfico, especialmente en Bilbao, y el aumento exponencial de disconformidad y huelgas por parte de los trabajadores. Esta



disconformidad es liderada en buena medida por Comisiones Obreras, un sindicalismo clandestino surgido en Bizkaia en 1962, en el que la influencia comunista del imaginario de izquierda era importante aunque no única. Juan Pablo Fusi precisa el malestar con datos duros: Gipuzkoa fue la provincia más conflictual del Estado español en 1964: registró el 16 por 100 del total de huelgas, estimado en 484. Bizkaia fue en ese año la tercera provincia más conflictiva y en 1965, la segunda (con el 19 por 100 de las 234 huelgas que se produjeron). En 1966, hubo en el Estado 103 huelgas: de ellas, 20 tuvieron lugar en Bizkaia; en 1967, 341, y de ellas 71 en Bizkaia y 4 en Gipuzkoa. Entre 1968 y 1972, se registraron 525 conflictos en Gipuzkoa, 402 en Bizkaia y 121 en Navarra.

El desarrollo de ETA a fines de la década de los sesenta se relaciona con este panorama social llegando a tener entre sus filas lo que Gurutz Jauregi denomina como “la hegemonía de la tendencia obrerista” desde octubre de 1965 a abril de 1966, y desde abril de 1966 a diciembre del mismo año donde se plantea una colaboración más estrecha con Comisiones Obreras. Sin embargo, la tendencia “obrerista” (encabezada por Patxi Iturrioz) no es la única en la organización. Jauregi identifica dos grupos más: a los “etnolingüistas” (liderados por Txillardegi y Benito del Valle), más preocupados por el anclaje cultural y nacional vasco, y los “tercermundista” (con José Luis Zalbide a la cabeza), interesados en pensar la lucha social vasca dentro de los procesos de libera-

ción nacional a nivel internacional. La tensión principal entre estos grupos viene marcada por la necesidad de instalar la lucha nacional como un esfuerzo que combatiera los malestares sociales y económicos del capitalismo, pero a su vez, no desatienda la opresión cultural y social vasca. Debido al alejamiento que incentivan con respecto al panorama nacional vasco, la tendencia obrerista es expulsada de la organización en la primera parte de la V Asamblea (diciembre de 1966) y la etnolingüista se da de baja en abril de 1967: “al no admitir algunos de los principios fundamentales del Marxismo-leninismo, ni respecto a su filosofía ni a su ejecutoria política, hemos decidido abandonar la organización E.T.A.”. A partir de la V Asamblea, tanto el eje nacional como el horizonte anti-

capitalista y anti-imperialista serán consustanciales a la lucha nacional vasca de ETA desde 1967 hasta 1970. En uno de los estudios más recientes sobre la época, “Abertaletasun esenzialistatik dialektikora: Nazionalismo iraultzailea” (2010), Unai Apaolaza explica precisamente cómo a partir de la V Asamblea de ETA se desprende el trazo esencialista que tradicionalmente acompañó a la ideología nacionalista vasca, para reorientarse hacia una lucha nacional y simpatizante con los movimientos de liberación nacional internacionales. Este cambio es el que Apaolaza denomina “nacionalismo dialéctico” para explicar el propósito común que a partir de la V Asamblea se afianza en ETA de unir ideológicamente nacionalismo y socialismo. Txabi Etxebarrieta es quien lidera esta asamblea y quien firma varios de los escritos de la organización publicados en la revista Zutik inmediatamente antes de su muerte. Lo que impide el cierre nacionalista en la Asamblea que lidera Etxebarrieta es el internacionalismo y el anti-imperialismo inscrito en las organizaciones políticas y sociales de la década del sesenta.

#### **La cultura política de la transición**

Es difícil establecer la relación entre ETA y la producción cultural vasca del momento. La década de los sesenta vive un momento sin precedentes en los ámbitos del arte, el teatro, la literatura, la canción popular y el cine vascos. En la producción de

**El resurgir económico de un estado que produce un contexto social y laboral caótico en las principales urbes vascas y que a largo plazo, constituye el germen de una tendencia liberal en la economía. El auge demográfico en las ciudades vascas no sólo activa el rechazo racista de vascos conservadores, sino también, un replanteamiento de la noción de pueblo vasco a la hora de pensar la resistencia política en ETA.**

este auge cultural ETA no figura como un referente primordial. Es al revés cómo habría que pensar dicha relación. En 1964, quizás por la influencia que tuvo el ensayo de Jorge Oteiza *Quousque Tandem...! Interpretación estética del alma vasca* (1963) o el poemario *Harri eta herri* (1964) de Gabriel Aresti, es ETA la que establece la necesidad de vincularse más con los autores de la producción cultural vasca del momento. Es así cómo en 1964, ETA publica su “Carta a los intelectuales” pidiendo que tanto científicos, sacerdotes como artistas se unan a la “lucha por la liberación de un pueblo”. Gurutz Jauregi y Joseba Zulaika mencionan que el ensayo de Oteiza es un texto muy influyente entre los militantes de ETA. ¿Qué es lo que une, entonces, en esta época a artistas, en su sentido más amplio, y políticos por igual? ¿Cómo entender el gesto de Oteiza frente la muerte de Etxebarrieta? ¿Qué podríamos rescatar de aquel gesto en la actualidad?

En un polémico ensayo que analizaba de manera transversal y dialógica la producción cultural y política vascas Jon Juaristi sentenciaba que no ha habido expresión literaria vasca que, en su alusión a la nación, no haya caído en un romanticismo (martirológico) incentivando a la larga un sentimiento de empatía en los vascos por la violencia de ETA. Es más, la figura de Etxebarrieta se convocabía en aquel ensayo, titulado *El bucle melancólico* (1997), como el lugar principal de dicho romanticismo que

aunaba en un solo personaje poesía y militancia política: “Los terroristas de ETA... ejecutarán un guión que ha sido escrito por otros hace ya mucho tiempo. Y reescrito muchas veces: por Krutwig, por Mirande, por Txillardegi y —lo siento por todos nosotros, mis queridos muchachos de los Escalapios, mis queridos scouts de los sesenta— por Javier Echevarrieta Ortiz: la prometida represalia contra el maqueto insumiso”. El análisis de Juaristi reducía lo que en su día se denominaba como “lucha de liberación de un pueblo” a un quehacer ingenuo de una generación de etarras (en la que se incluía), que simplemente se dejaron llevar por una rebeldía juvenil y un sentimiento de pérdida (muchas veces familiar o sentimental) no bien asimilada. Era el caso de Etxebarrieta, según Juaristi, y lo evidenciaban sus poemas existenciales a propósito de la muerte de su padre. La espiral de violencia en ETA supuso, así, en las décadas de los 90 y el 2000 un revisionismo que limitaba la complejidad social, política y cultural de la década de los sesenta a este tipo de lecturas reduccionistas. No ocurría solo con Euskal Herria, el Mayo del 68 francés también sufrió de testimonios arrepentidos varios por parte de “antiguos revolucionarios”, y la producción cultural francesa de los sesenta se reinterpretó para que no hiciera ruido con los llamados individualistas de la democracia de mercado.

La producción cultural vasca y política de los sesenta fue evidentemente nacionalista y como todo nacionalismo, es imposible restar de él un sesgo romántico en su confi-



Reproducción fotográfica de la Pietá de Arantzazu en homenaje a Josu Zabala, muerto por la policía en 1976.

**La espiral de violencia en ETA supuso, así, en las décadas de los 90 y 2000 un revisionismo que limitaba la complejidad social, política y cultural de la década de los sesenta a lecturas reduccionistas.**

guración, una defensa vernácula por una cultura y una soberanía teñida de tintes míticos en sus convocatorias artístico-expresivas. En este sentido, es difícil pensar una alternativa; es decir, la producción cultural vasca de los sesenta, después de años de un silencio impuesto por la dictadura, no puede sino ser vasca en tanto que solo así puede pensarse a sí misma como un lugar creativo que plantea una diferencia con el nacionalismo español. El interés por volver a aquella época sea política como culturalmente hablando viene de pensar, además del auge nacionalista, qué es lo que también había en aquella producción, que sin embargo, queda invisibilizado por ciertas lecturas sesgadas *a posteriori*.

Lo primero que habría que mencionar es el lugar de disidencia que tanto militantes como intelectuales plantean con respecto al panorama que hemos expuesto al comienzo de este artículo: el resurgir económico de un estado que produce un contexto social y laboral caótico en las principales urbes vascas y que a largo plazo, constituye el germen de una tendencia liberal en la economía. El auge demográfico en las ciudades vascas no sólo activa el rechazo racista de vascos conservadores, sino también, un re-planteamiento de la noción de pueblo vasco a la hora de pensar la resistencia política en ETA. El artículo “*Batasun eguna y la unidad obrera*” que aparece en *Zutik* en septiembre de 1967 es un llamado a la unión de trabajadores, una unión cuya única condición es

el apoyo a la “lucha” del obrero vasco. El artículo define el perfil ideológico de ETA como una lucha nacional-socialista mostrando esta unión de horizontes como la forma de reconciliar y mejorar los problemas de todos los sujetos transformadores de la sociedad, incluido los inmigrantes: “resuelve ampliamente todos los problemas que vienen a plantearse al pueblo trabajador vasco y a los trabajadores inmigrados de Euskadi”. Es el momento de mayor dinamismo de la izquierda *abertzale* [nacionalista] hasta ese momento. De hecho, la “dinámica” como concepto es importante en ETA especialmente tras la publicación de *Vasconia* (1963) de Federico Krutwig (miembro de *Euskaltzaindia* 1943-1953 e integrante de ETA en la V Asamblea). Supone pensar el nacionalismo vasco alineado a cierto comunismo federal vasco, pero abierto a un devenir situacionista: “La nación es semejante a una persona que, siendo una unidad, está en constante devenir. No de otra forma podemos representarnos la nacionalidad. La nacionalidad es dinámica, algo que vive, y querer definirla como algo estático es matarla o tratarla como a una momia”.

La condición obrera y el capitalismo como sistema mundo es un aspecto central también en la producción cultural vasca del momento. Aparece, por un lado, como tema. Encontramos varias obras que tematizan, por ejemplo, uno de los principales conceptos estructurantes de la vida fabril, y productora en general, que tejen la cotidianidad de los vascos en aquella época;

nos referimos a la enajenación como estructuración subjetiva del obrero y su traducción alegórica en la figura de Sísifo, aquella figura mítica griega que recibe el castigo de los dioses teniendo que subir una pesada piedra a la cima de una montaña infinita. Joxean Artze y Mikel Laboa tematizan sus versos escritos y cantados con claras referencias a esta figura y lo hacen, además, aludiendo a los sujetos más vulnerables en la cadena productiva.

Los nueve versos de “*Nere ama hil zait*” (ver imagen de la página contigua) aparecían en el poema *Isturitzetik Tolosan barru* (1968) rodeados de un círculo rojo sisifesco con una pequeña apertura, remitiendo a la apertura que la poesía proyectaría con sus versos frente al problema de la enajenación. Mikel Laboa realizó una versión cantada del poema pero antes que esta versión, en su primer vinilo de 1964, paródicamente titulado *Azken*, hizo re-aparecer la canción popular “*Oi Peio, Peio*”, los versos de una hilandera que nunca descansa, que cada vez que termina una labor escucha la voz de su marido, quien le recuerda que queda otra labor pendiente... Es una producción cultural que responde a la vida enajenante y silenciadora de la dictadura tanto a nivel nacional como social y económico. Y en este sentido, rompe todas las barreras, o mejor dicho, todos los lugares establecidos de la tradición cultural vasca hasta ese momento. Es quizás en la cultura vasca de los sesenta donde podemos pensar sobre todo aquel gesto que Alain

# D<sub>2</sub>\*

nere ama hil zait  
lanak itota.  
lanaren amoreagatik  
hil zait  
zertarako dan bizitza  
jakitera iritxi gabe.

izeba ere hil da.  
era berdinean  
hil da izeba.

Poema "Nere ama hil zait" de Joxean Artze en el libro *Isturitzetik Tolosan Barru* (1968).

Joxean Artze y Mikel Laboa tematizan sus versos escritos y cantados con claras referencias a esta figura [Sísifo] y lo hacen, además, aludiendo a los sujetos más vulnerables en la cadena productiva.

Badiou recuerda precisamente a propósito del Mayo del 68 francés: “No consistía en organizar a la gente en los lugares que se encontraban, sino organizar desplazamientos, tanto materiales como mentales... Lo que nos inspiraba era la convicción de que teníamos que deshacernos de los lugares”. Los grupos *Gaur*, *Orain*, y *Hemen* en el arte, *Ez dok Amairu* en la canción popular, *Kriselu* en el teatro, Aresti, Gandiaga, Txillardegi, Artze, Saizarbitoria, entre muchos otros, en literatura o la producción cinematográfica del momento con obras alegóricas como *Amarur* (1969), pero también con una producción con claros visos surrealistas y experimentales con Ivan Zulueta o Jose Mari Zabala... son el resultado de una vitalidad irreverente con lo establecido.

Además de tematizar sobre los modos de producción económica estos autores, grupos y obras producen desajustes en los mismos modos de producción cultural. Problematizan los conceptos de autor y obra burgueses. Se multiplica la creación en colectivo, cruzando disciplinas o géneros expresivos. Hay un impulso creativo-constructivo sin parangón que no concede espacios de sacralización propios de ninguna tradición nacional en la cultura. En este sentido quizás encontramos en el concepto de *collage* un lugar para pensar las dislocaciones que se llevan a cabo en esta época; sacando la tradición culta o popular de sus lugares románticos para re-significarlos relacionándolos con otros objetos y lugares prestados sin plantear en el montaje ni principio ni fin, sino constante transformación y apertura de interpretaciones.

### **El vacío de la Pietá**

Volvamos entonces, a la *Pietá* del *collage-testimonial* que incorpora Oteiza en la biografía conversada de Pelay-Orozco. El segundo párrafo del comentario de Oteiza alude a la destrucción del *Sabin-Etxia* en 1960, por las FOP. Y el tercero, interpreta esta destrucción como “desocupación del espacio”, volviendo a hacer aparecer una oración que funciona en los ensayos estéticos del escultor como una especie de eje estructural de su obra: “nuestra personalidad histórica original, en camino de su recuperación, se afirma más rápidamente con vuestra incomprendición y crueldad. Lo que habéis querido borrar, lo que borréis aquí, como sagrado y en tradición nuestra reaparecerá”. Es una auto-cita que proviene, si no antes, de *Propósito Experimental* (1957) el texto que acompaña sus familias de esculturas en la 4ª Bienal de Sao Paulo donde consigue el Primer Premio. Decía así: “Lo que estéticamente nace como desocupación del espacio, como libertad, trasciende como un sitio fuera de la muerte. Tomo el nombre de lo que acaba de morir. Regreso de la Muerte. Lo que hemos querido enterrar, aquí crece”. La ruina de la destrucción del *Sabin-Etxea* habría que interpretarla en esta clave, como una “desocupación del espacio”, una estética del vacío *ex-nihilo* en tanto remanente que hace retornar en 1968 el horizonte nacional y anticapitalista de la producción de Oteiza; nacional en cuanto le preocupa sobre todo revivir el conocimiento subyugado vasco, una completitud existencial que, como describe en *Quousque Tandem...!*, surgió como experiencia con los crómlech del neolítico, y anticapitalista por cuanto la

desocupación del espacio dialoga en Oteiza con una distancia crítica in-evitable frente a la cosificación/mercantilización de los objetos y las obras de arte a fines de los cincuenta. Tras la Bienal de Sao Paulo, Oteiza afirma ser un artista “neo-concreto”, categoría que agrupa a los artistas brasileños que conoce, en especial Ligia Clark y Franz Weissman, quienes postulan con sus formas geométricas una sospecha frente al mecanicismo en que el arte concreto-constructivo cae con los proyectos de diseño industrial en la década del cincuenta. Los neo-concretos, y con ellos Oteiza, mantienen una distancia crítica frente a la conversión del arte en fetiche mercantil. Propondríamos pensar la destrucción de las FOP, la muerte de Etxebbarrieta y la cultura política vasca de los sesenta siguiendo esta raíz evocativa de Oteiza, como referentes que piensan su quehacer militante y cultural desestabilizando la mercantilización de los proyectos nacionales.

1.- Pelay Orozco, Miguel. *Oteiza. Su vida, su obra, su pensamiento, su palabra*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1978, pág. 516-7.

2.- Harrison, Joseph. *The Spanish Economy. From the Civil War to the European Community*. Cambridge: Cambridge UP, 1995.

3.- Fusi, Juan Pablo. “Los años 60: Los años de la ruptura.” *Arte y artistas vascos en los años 60*. San Sebastán: Diputación Foral de Gipuzkoa, Fundación Kutxa, 1995.

4.- Jauregi, Gurutz. *Ideología y estrategia política de ETA. Análisis de su evolución entre 1959-1968*. España: Siglo XXI, 1981.

5.- <http://basque.criticalstew.org/?p=2832>

6.- “Anthropologists, Artists, Terrorists: The Basque Holiday from History.” *Journal of Spanish Cultural Studies* 4 (2003): 139-50.

7.- Juaristi, Jon. *El bucle melancólico*. Madrid: Espasa-Calpe, 1997, pág. 365.

8.- Véase el ensayo de Ross, Kristin. Mayo del 68 y sus vidas posteriores. Madrid: Antonio Machado, 2008.

9.- Sarrailh de Ihartza, Fernando, “Federico Krutwig”. *Vasconia*. (1963) Navarra: Herritar Berri S.L.U, 2006, pág. 207.

10.- Badiou, Alain. *The Communist Hypothesis*. New York: Verso, 2010, pág. 60.




Es una producción cultural que responde a la vida enajenante y silenciadora de la dictadura tanto anivel nacional como social y económico. Y en este sentido, rompe todas las barreras, o mejor dicho, todos los lugares establecidos de la tradición cultural vasca hasta el momento.

# Subiranotasuna eta artikulazioa: txanponetik poliedrora

3



Subiranotasunak sintetizatzen du ezker abertzalearen hipotesi estrategikoa, ez baita bakarrik lurraldean eta langile borrokan ardazten, baizik eta borroka sozial oro zeharkatzen ditu gure tradizio biak batuz eta aberastuz.



ilustrazioak: Xabier Gorostiaga

# “Ezker abertzalearen fundaziotik gaur egunera arte, subiranotasunaren edo burujabetzaren ideiak zentraltasun osoa izan du”

## Subiranotasunaren galera azken urteetan

Subiranotasunaren kontzeptuak indarra hartu du berriz ere azken urteetan, izan ere, mugimendu politiko eta sozial eraldatzaleek haien diskursoaren nozio zentral bilakatu baitute. Etimologikoki, soberania hitza latineko super ommnia-tik dator, guztiaren gainetik (super) legekeen hori edo goreneko boterea litzateke. Soberaniaren jabedunak duen kualitatea litzateke, beste guztien gainetik autoritatea izatea, hain zuzen. Azken finean, herrialde, nazio edo gizabanako talde batek bere burua gobernatzeko duen ahalmena, boterea eta eskubidea da burujabetza, oroz gain. Gero eta botere instituzional eta konstituzional gutxiago izan, komunitateak bere erabakien arabera bizitzeko burujabetza murritzagoa izango du, eta alderantziz. Historikoki, subiranotasuna nazio-estatuei esleitu izan zaie, eta hala agertzen da definitua esku-liburu askotan. Baino ikuspegi murritza da aurrekoia. Izan ere, subiranotasunaren ulermen eta aplikazioak fase desberdinak bizi izan ditu azken mendeetan. XVII. Mendeko Westfaliako bake tratatuaren ondoren estatu-nazioen sorrera eta integritate territorialaren printzipioa nagusitzen da, imperio europarrak osatzen zituzten nazioak izanik eskubide subjektu. Ondoren, II. Mundu gerraz geroztik Europarrek kolonizatutako herriak izango dira subiranotasunaren edo eraba-


kitzeko eskubidearen subjektu. Hirugarren fase batean, XX. mende bukaeran estatu gabeko nazioak izango dira, autodeterminazio eskubidearen aldarrikapenarekin, subiranotasunaren subjektu. Azken urteetan, aldiz, autodeterminazio eskubidearen garapena den eta demokrati-koki erradikalagoa den erabakitzte eskubidearen paradigma da subiranotasuna zedarritzen duena: baldintza demokrati-koak betetzen dituen edozein demos da eskubidearen jabe.

Jakina da, XX. mende bukaeran, baina batez ere 2007ko krisitik aurrera, herriek eta estatuek subiranotasuna eta erabakitzeko ahalmena galdu dutela. Globalizazio ekonomikoaren ondorioz, eliteak gero eta aberatsago, eta txiroak gero eta txiroago dira, bien arteko arrakala handituz joan delarik. Horrez gain, herriarrek beren burua gobernatzeko eta ahalduntzeko egitura eta lanabesak haien eskuetatik urrentzen joan dira, are gehiago, horietako asko pribatizatuak izan dira. Izan ere, herriarrek hautaturiko parlamentuen gainetik erabaki garrantzitsuak (are estatuen subiranotasuna guziz baldintzatzen dutenak) hartze-ko ahalmena duten entitateak (FMI, Troika...) egoteak, are eta gehiago urrentzen du herriarren subiranotasuna eta. Horrekin batera, noski, Jule Goikoetxeak dioen bezala, demokraziaren pribatizazioa gertatzen da. Aurtzen, Alemaniaren sustatutako erreforma elektoral bat egin

berri du Europar Parlamentuak, alderdi handien errepresentazioari mesede egiten diona. Alegia, alderdi txikiek (estatu gabeko nazioetakoek, batez ere), 2019tik aurrera zailagoa lukete parlamentu europearrean sartzea, zirkunkripzioko portzentzia minimo handiago bat eskuratu beharko baitute horretarako. Gertaera horrek, are gehiago urrentzen ditu instituzioak eta erabakitzte ahalmena herritarren eskuetatik.

## Subiranotasuna ezker abertzalearen historian

Testuinguru horrek, hortaz, subiranotasunaren nozioa erdigunera ekartzea eragin du berriz. Baina komeni da azpimarratzea, Ezker abertzalearen fundaziotik gaur egunera arte, subiranotasunaren edo burujabetzaren ideiak zentraltasun osoa izan duela. 1976ko KAS alternatiban “Euskadiaren subirautza nazionalaren beharraz” mintzatzen zen. Azken finean, erregimenarekin hautsi eta herri bezala boteretzeko saiakera izan zen hura. 1977ko Txibertako elkarritzketetan, euskal nazioaren aitortza eta bere subiranotasun eskubidea aldarrikatzen zen, subiranotasuna, lurralte ariketa kolektibo bat dela gogoratuz. LABen sorrera langile mugimenduaren antolatzearkin, 1979ko Jarrai gazte mugimenduaren sorrerarekin, Aizan edo KASEko emakumeak talde feministen antolatzearkin eta HASI eta ASK



D<sub>3</sub>

mugimenduaren sorrerekin, subiranotasunaren borroka frentez guztieta zabaldu zen. Mugimendu guzti horiek gertakizun baten bueltan artikulatu ziren, hain zuzen, ezker abertzalearen hipotesi estrategikoa izango den horretan: klase borrokak nazio askapenaren forma hartzen du.

Hamarkada bat aurrerago, 1989ko Aljerreko elkarritzetako inflexio puntuia izango dira. Hala ere, Euskal Herriari zegozkion subiranotasun eta eskubideez mintzo zen oraindik ezker abertzalea garai hartan. Urte bat beranduago, subiranotasun materialean sakontzeko saiakera berri bat agertuko zen, Autonomia Estatutu Nazionala, autodeterminazioa eta subiranotasuna aldarrikatzearaz batera, eraikuntza nazionalaren aipamen zehatza eginez. Hain zuzen, herria boteretzearen aldeko apustua egiten zen. 1993an ildo beretik apustu berria egingo zen Ipar Euskal Herrian, lurraldarentzako autonomia proposamena eginez. Hurrengo urteetan, nazio eraikuntzari lehentasuna emango zitzzion, subiranotasunaren eraikuntza materialari lehentasuna emanez. 1995ko Alternatiba Demokratikoak, subiranotasunaren printzipioa ekartzen zuen berriz erdigunera: euskal herriak du hitza eta erabakia. Eta 1998an, subiranotasuna eskatu soilik ez, baizik eta hura materialki garatzea ahalbidetuko duen Lizarra-Garaziren akordioa gauzatzen da, non, estatu eta herri egiturak sortuko diren, Udalbiltza kasu. Hurrengo urteetan, berriz ere, eta behin eta berriz, subirautza eskuratu eta eraikitzeko hainbat proposamen jarriko dira mahai gainean.

## Txanpon beraren bi aldeetatik poliedrora

Subiranotasunaren paradigma,

ezker abertzalean, sorrerako gertakizun eta hipotesi estrategikoari lotua egon da, hain zuzen, klase borrokak nazio askapenaren forma hartzen dueneko tesira. Edo bestela esanda, borroka nazionala eta klase borroka txanpon beraren bi aldeak direla dionekoa. Sintesi hau testuinguru jakin batean jaiotzen da, galdera zehatz bati erantzunez, orduko ezkerrean eztabaida biziaz piztuko zituenak: ia borroka soziala eta nazionala banatuta edo batera doazen bi borroka diren. Eztabaida horietatik, Euskal Askapen Nazionalaren Mugimenduaren gertakizun fundacionala den ETaren V. Biltzarreko sintesiak ekarri zituen, eta horrez gain, hainbat zatiketa politiko ere, dikotomia edo dialektika horren ulerkera desberdinaren ondorioz. Uler bedi, beraz, XIX. eta XX. mendeetako galdera dela hain zuzen, borroka nazional eta sozialaren banaketarena, ezker abertzaleak, txanpon beraren bi aldeak direla aldarrikatuz bere zutabe gisa barneratu zuena.

Subiranotasunaren ulerkera berrituak plantetzen dira egun, ordea, galdera berriei erantzuten diena, eta egungo borrokei isla egokiagoa ematen diena. Gaur egungo subiranotasunaren ulerkerak sintetizatu egiten ditu borroka nazionala eta soziala: demokrazia lurralteko jakin batean demos batek beren buruari dagozkien afera guztiak (sozialak, ekologikoa, eta abar) gobernatzeko kapazitatea bezala definitzen baitu. Gure buruari dagozkigun aferak gobernatzeko kapazitatea izatea da demokrazia, eta gauzatzeko ahalmena izatea, subiranotasuna. Subiranotasunaren ulerkera berri honetan ez dago bi aldeetako txanponik, poliedro edo koloreen mataza bat baizik, non poliedroaren alde bakoitzean bata besteari eragiten dioten

**“Subiranotasunaren paradigma, ezker abertzalean, sorrerako gertakizun eta hipotesi estrategikoari lotua egon da, hain zuzen, klase borrokak nazio askapenaren forma hartzen dueneko tesira”**

**“Gaur egungo subiranotasunaren ulerkerak sintetizatu egiten ditu borroka nazionala eta soziala: demokrazia lurralteko jakin batean demos batek beren buruari dagozkien afera guztiak (sozialak, ekologikoa, eta abar) gobernatzeko kapazitatea bezala definitzen baitu.”**

aldagaiaik leudekeen: lurraldea, demokrazia, bizitza (errekurso energetikoa, elikadura, ekologiko, eta abar), zaintza eta gorputza... Aldagai bakoitzak kontuan hartu gabe ezin da subiranotasunaz hitz egin, batak besteari eraigin eta baldintzatzen diotelako.

Subiranotasunak sintetizatzen du, hortaz gure hipotesi estrategikoa, ez baita bakarrik lurraldean eta langile borrokan ardazten, baizik eta borroka sozial oro zeharkatzen ditu gure tradizio biak batuz eta aberastuz.

### **Alternatiben metaketa baino, komunean dugunaren artikulazioa**

Beste mundu justuago bat eraiki nahi dugunontzat, artikulazio prozesuaren ezinbestekotasuna bi arrazoietan oinarritzen da. Alde batetik, kapitalismoaren logika borrokak fragmentatu eta atomizatzea da, askotan dibertsitatearen errespetuaren izenean. Horrekin, borroka bakoitza postpolitikoki gestionatu eta transformazio kolektiboei atekatxu nahi dizkie, ezkerraren politikak aniztasunaren gorazarra eta alternatiben eraikuntza erresistente soiletara marginalizatzu. Bestetik, gaur egungo borroka desberdinaren komplejutasun eta fragmentazioa, multiplizitatea eta aniztasunaren ispilu badira ere, artikulazio politikoarentzako erronka itzela dira gaur egun. Beraz, subiranotasunaren edo poliedroaren aldarriak ez du fragmentazioen batura aldarrikatzen, horien arteko artikulazioa baizik. Egia da borroka desberdinaren artean espazio berean eta helburu berberen pean artikulatzeko zailtasunak daudela gaur egun mugimendu eraldatzaileen baitan, Euskal Herrian zein mundu zabalean, baina baita horiek gainditzeko saiakerak

ere. Artikulazioaren kontzeptuak hegemoniaren kontzeptua izan behar du bidai-lagun: helburua, hain zuzen, hegemonia berri bat eraikitzea baita.

Borroka esperientzia bakoitzaren konkretutasuna eta borroka guztiak batzen dituen ideia edo gertakizun abstraktuaren tentsioa da berpentsatu behar dena espazio kolektibo komun bat sortzeko. Arriskuak bi dira. Batetik, hegemoniari eta komunean dugunari lehentasun osoa emanear gero, esaterako, alderdi batek bere esku hartuz artikulaziorako ardura osoa, borroka bakoitzaren multiplizitatea galtzea dakar ezinbestean. Eta alderantziz, bestetik, borroka bakoitzaren lehentasuna eta fragmentazioa aldarrikatuz gero, (Negriren multitudearen edo singularitasunen multiplizitatearen ideian oinarrituz), artikulaziorako bi-deak itxi egiten dira. Iza ere, bigarren horretan, artikulazioa emantza hartzen da, nolabait, singulartasun desberdinaren artikulazio espontaneo gisa.

Bidea, noski, bien arteko oreka bilatzean dago. Borondate kolektiboak helburu konkretu eta berehalakoak ditu, baina ekintza kolektibo bateratua. Borondate kolektibo baten artikulazio hegemoniko baterako ezingo da, hortaz, aniztasunaren goresmen hutsa egin, ezta, ordea, aniztasuna osotasun abstraktu baten menpe giltzapetu. Koloreen matalazak, edo poliedroaren irudiak, aurpegi asko dituen artikulazio politikoa irudikatu nahi du, hortaz. Komunean duguna hobetsiz, momentuan momentu lehentasunak markatzeko ikusmira politikoa eta eskuzabaltasuna erakutsiz, dimentsio edo eskala nazionala erantsiz (edo aurre-suposatzu), ezker abertzalea estrategia berriari ekiteko zerumuga berri gisa funtzionatu

**“Borroka esperientzia bakoitzaren konkretutasuna eta borroka guztiak batzen dituen ideia edo gertakizun abstraktuaren tentsioa da berpentsatu behar dena espazio kolektibo komun bat sortzeko”**

D3

beharko duen hegats izan behar da. Txanpon beraren bi aldeen formulazioak, banatzen ziren bi karril uztartzen zituen bezala, gaur egun, borroka desberdinaren aldarrikapenek txanpona poliedro bihurtzea eskatzen dute, sozialismoa eta independentzia barnebilduko lituzkeen, eta elkar baldintzatuko liratekeen beste hainbat elementu gehituz.

Duela 50 urte artikulatu zen izpiritu berarekin, poliedroak borroka artikulazioa planteatzen du, borroka desberdinek komunean dutena bide berean jartzea. Aurrera begira, bide horretan sakontzea dugu erronka nagusietako bat. Ekin diezaiogun, bada.



The construction of the 'truth' is made from a certain perspective, presenting certain facts

A list

Erreeeee

Rep

Zioa

that can proof the narrative as such.

Erro

Herrriii

different narratives are build, or different constructions of 'truth' are usually build around an Event, around something that has happened. These different constructions depend on the subjectivity or the perspective from which the person experience it, or looking at it

Rrrrr

With no easy consensus.

Erreeeee

You are standing there

I am here

Sist

Sis

I don't know if we could build a similar narrative of what happened between us.

Zizt

Maybe yes

Maybe not

Tzia

But even if we do agree in the words used to describe it,

We would never know what are the emotional meanings attached to these from our own perspective

The fear of feeling

Resist

Resistance

Of feeling

it has been a fight between the rational and the emotional part

Vulnerability

Erria

Between thinking and feeling

The dichotomy where we have been struggling

Rules-breaking rules

Thinking-feeling

Herria

11:54

Until then...

Let's respect a break

Distance

And

Perspective

to feel

Time to process

Erroaaa


12:39

KONPOSTA

19:29

And digest

...



lorak igual dira too much moderniti 12.36 ₩  
balina homenalditan daude 12.36 ₩  
objetu trantsionala 12.36 ₩





## **ARTELANA**

### **“Andonik mezu bat bidali dit”**

**2018**

Nora Aurrekoetxea  
Laura Ruiz Saenz

IRUDI - GLOSARIOA:

1. Zabalbide Kalea. Bilbo.  
2018ko Maiatzak 8.

2. Otxarkoaga, Bilbo.  
2018ko Maiatzak 16.

3. Gula lana estudioan. Bilbo 2017. “Materialak edo objektuak gainjarrita, eskultura. Jarduera fisikoa, mugimendua eragozten duen gauza bat. Eskaiola zilindrikoaren grabitazio-indarrak marra zuriak dituen txandal urdin bat harrapatzen du, garbi eta ondo tolesturik dagoen toalla zuri baten gainean, metalezko karratutxo batean, idulki edo euskarri baten moduan. Gure garaiko jarduera fisikoa. Materialen arteko tentsioa eta babesia Aztarnak zuzenki adierazten du historia. Gatazka soziopolitikoen abarrek ekintza bat bertan egoteko beharrak gabe gertatu dela adierazten dute.  
Ekintza hori gertatu osteen gaude, erdi-erdian, eta badakigu gero zerbaite gertatuko dela. Une bi horien artean argi-iluna sortzen da, hau da, bizitzen ari garen unea artistek jarduteko tokia da; ziurgabetasunean, inguratzen gaituen immaterialsunean uki daitekeen sormenaren bila dabilitza artista bi horiek. Oroimena oinarri duen identitate bat sortuz, eta oroinmenetik kanpo, etorkizunari begira dagoen orainaldian. Gula, angularen suzedaneoa, faringea edo esofagoa deitzeko hitza, bekatu kapitala edo apetitu neurrigabea. Zentzu zabalean, edozein gehiegikeria. Antsietatea, gure garaiko munstroa”. [Leyre Goikoetxea Martinezek, Gula artelanaren inguruan idatzitakoa, Ertibil 2017 Katalogoan].

3. Liliak eta zinta itsaskorra.  
Bilbo, 2018ko Otsaila.

4. Whatsap-a.  
2018ko Ekainak 20.

5. “Sequence 01\_2” Bideoaren pantaila-argazkia.  
<https://vimeo.com/258786243>.  
Bilbo, 2016.

6. Email-a. Londres.  
2018ko Ekainak 25.

7. Whatsap-a.  
2018ko Ekainak 18.

8. Euskal Erria [1880] Aldizkariaren azala zatia.

9. Si Vis Pacem Para Bellum [2015] projektua. Plastiko errea.





SINADURA

ESNATU  
EGIN  
GARA

## HELBURU POLITIKOAK FEMINISMO HONENTZAT

Beste modu askotara esan daiteke baina horrela esaterik ere badago. Kontzientzia feminista sortu da, orain arte nabari ez zen lekuetan. Eta indartu, orain arte bazegoenetan. Munduan zehar hainbat dira horren adibideak.

Argazkiak: FOKU

Martxoaren 8an, goizean goizetik  
egon ziren aldarri feministak  
kalean. Irudian, Donostiaiko  
eserzialdiko une bat.

Irati Jimenez.  
*Kazetaria eta idazlea*



**ESPAINIAR, 150.000 DIRA INDARKERIA MATXISTAK URTERO KALTETUTAKO PERTSONAK. ETA KOPURUA GORAKA DOA. ASKO EGIN BEHARKO LITZATEKE MUNDUARI ‘MACHO’ HITZA OPARITU ZION ESTATUA ALDATZEKO.**

**MUGIMENDU FEMINISTAK AGERIAN UTZI DU GIZARTEAREN ZILEGITASUN EZA. TOXIKOTASUNA SISTEMIKOA DELA ULERTZEN LAGUNDU DIGU ETA ESKER ONEKO IZAN NAHI BADUGU, AURRERA EGITEA DAGOKIGU, JENDARTE BEZALA. LEGE ARLOAN ZEIN POLITIKOAN, HEZKUNTZATIK HASITA EKONOMIARAINO.**

**2**016an, Legebiltzar Panafrikarrak debekatu egin zuen klitoria erauzketa. 2017an, Tunisia, Libano eta Jordania bortxatzaileei debekatu egin zitzaien kartzela libratzeko haien biktimekin ezkontzea. AE-Betan emakumeak erasotzearen apologia egin duen gizon bat daukate gobernu-buru, baina inoizko mobilizaziorik handienak egin dituzte emakumeek. Ikus-entzunezkoen industrian Me Too mugimenduak eta soldatua berdintasunaren aldeko eskarriak hartu dute protagonismoa eta udazken honetako hautes-kundeetara inoiz baino emakume gehiago aurkeztuko dira. Espainiako estatuan agerikoa da aldarrikapen feministek hartu duten nabarmentasuna. Martxoaren 8ko argazkiak eztabaidezinak izan ziren. Tamalez, errealityaren gordintasuna adierazten duten datuak ere eztabaidezinak dira: 150.000 dira indarkeria matxistak urtero kaltetutako pertsonak. Eta kopurua gora doa. Asko egin beharko litzateke munduari macho hitza oparitu zion Estatua aldatzeko. Egitura frankisten sustrai pozoituekin sortutako sistema judziala duka kontra, kultura politiko sexista, klase desberdintasun latzak, parekidetasuna zaitzen duten oztopo ugari.

Internazionalismo feministaren ikuspuntutik kezkaz ikusten dut Espainiako Estatuko egoera. Baina internazionalismo horrek berak narama esatera hura ez dela gure plaza. Besterik merezi duten espainiar herritarrei egin diezaiekegun oparirik onena geure herri txiki hau aldatzea da. Bide horretan asmatzen du guna izango da haientzat zein munduko herrientzat ekarpenik erabilgarriena, besteen askapen mugimenduak geuretztat irakasgai diren moduan.

Hauxe da kontzientzia feministea berri honek eskatzen dituen helburu politikoak jartzeko momentua eta Euskal Herria da helburu horiek planteatzeko lekua.

**Iruñea eta Euskal Herria, eredu**  
Hasieran aipatzen nuen kontzientzia hori Euskal Herrian indar bereziz ernaldu da. Ezin da ahaztu gizartea La Mandada auzian izan duen jarrera feministea eredugarria Iruñeko Udalaren aurrean hasi zela. Bortxaketaren salaketa ezagutu eta berehala, plaza hori bete zuten iruindarrek, txupinaren egunean baino jende gehiagorekin. Udalak egoera irakurtzen jakin zuen, herriaren ahots bihurtu zen eta auzibidera jo zuen. Bortxatutako emakumeak hiri bat zeukan

bere alde. Eta epaiaren injustizia albiste bihurtu zenean, hiri horretatik sortutako indarrak herri bat mugitu zezakeela ikusi genuen. Martxoaren 8ko manifestazioak eta plantoak ere, Hego Euskal Herrian izan dira Estatuko beste lurrardeetan baino jendetzuagoak.

Mugimendu feministak agerian utzi du gizartearren zilegitasun eza. Toxikotasuna sistemikoa dela ulertzen lagundu digu eta esker oneko izan nahi badugu, aurrera egitea dagokigu, jendarte bezala. Lege arloan zein politikoan, hezkuntzatik hasita ekonomiarentzat agindua ezin da argiagoa izan: aurrerapausoak nahi dira.

Eta politikak behin eta berriz frogatu duenez, agindu hori argia denean komeni zaie partiduei eta erakundeei haren esanetara egotea. Kaleak dioena hartu eta erakundeetan helburu politikoak jartzeko unea heldu da. Ezkerrari dagokio bereziki hori egitea, oldarraldi honek aldaketarako duen gaitasuna puztu bezala hustu egin litekeelako, aukerak ondo probesten ez badira. Democracia, Estado, Revolución (Txalaparta, 2016) liburuan, Álvaro García Linerak irabazten ez diren



borrokek arerioa indartzeko duten gaitasunaz ohartarazten gaitu. Berdin esan liteke eman beharreko unean ematen ez diren borrokei buruz ere. Feminismoaren uholde honek neomatxismoa esnatu du eta borroka horiek mugiarazten ez baditugu, indartu egin daiteke.

Helburu politikoak planteatzeko momentua da, beraz, eta Hego Euskal Herriko erakundeak feminismora mugitzekoa. Aukerak ditugu, Espainiako estatuan baino askoz legedi feministagoa izateko eta arau horiek neurriz eta diruz hornitzeko. Egia da, bizi dugun autonomismoaren inboluzio honetan, aurrerapausu horiek Madrilen atzera bota ditzaketela. Horrela bada, argazki hori aprobetxatzen ere jakin beharko dugu eta errepublika feministaren beharra inoiz baino ozenago aldarrikatzen. Feminismoa eskatzen duen herri batek ez ditu begi onez ikusiko autonomismoaren sabai patriarkalak. Bat: soldata berdintasuna Beste asko ere jar litezke baina, nire ustez, badira hiru aldarrikapen feministika gizartearen gehiengoa alde dutenak, batetik, eta urgentziak neurriak eskatzen dituztenak, bestetik: soldata arteko desberdintasuna, lanaren eta familiaren arteko adiskidetza edo kontziliazioa, eta genero indarkeria.

**Lehena: soldata berdintasuna**  
Hiru arazo horietan lehena, soldata berdintasuna, gaur egun oraindik arazo izatea eskandalagarria da. Eta euskaldunok, bereziki, lotsatzeko modukoak. Izan ere, Espainiako estatuko beste hainbat lurralderekin alderatuta Euskal Herrian hobetu egiten ditugu langabezia tasa eta bestelako neurgailu ekonomikoen datuak, baina soldata berdintasunari dagokionean geurean

daukagu, Nafarroan, Estatuko erkidego guztietako daturik txarrrena. Batez beste, lan egindako ordu bakoitzeko %18 gutxiago kobratzen dugu andrek eta lanaldi mugatua duten kontratuena ia %80 geuk sinatzen ditugu. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan ere bada zer konpondu. 2009 eta 2015 bitartean eta urteko irabaziei begiratuta, soldata arteko desberdintasuna %22,9tik %24,3raino igo zen. Lan ordu bakoitzagatik kobratzen dena begiratuta, aldea txikiagoa da. Emakundek dioenez %17,6koa 2009an eta %12,8koa 2015ean. Orduagatik kobratzen dena hoberantz joan da, beraz, baina urte osoko aldea gaitotu, emakumeek lanaldi mugatuko kontratu gehiago sinatzen ditugulako. Logikoa da kontutan izanda batez beste emakumeek denbora gehiago ematen diegula etxeari eta familiari.

#### **Bi: lana eta familia adiskidetzea**

Eustat agentziak 2016an eman-dako datuen arabera, genero arteko berdintasuna neurtzen duen 100 puntuko eskalan, 58,5 puntu lortzen dituzte Arabak, Bizkaia eta Gipuzkoak. Espainiako estatuak ia bost gutxiago: 53,6. Aldea handiagoa da, ostera, taulan puntuazio onena dute-nekiko. Suediak 74,2 puntu ditu hiru dimentsio neurtzen dituen eskala horretan: ugalketa arloko eskubideak, ahalduntzea eta lan merkatuan emakumeok dugun parte-hartzea.

Ez da harritzeko Suedia hain ondo agertzea. Besteak beste, 69 asteko amatasun baja dute. Espainiako estatuan 16koa, 1998ko berbera. Europako Batasunean, batez besteko 28 astetan dago, Suediatik oso urrun baina behintzat betetzen du Nazio Batuen gomendioa: 24 aste gutxienez.

**ÁLVARO GARCÍA  
LINERAK IRABAZTEN  
EZ DIREN BORROKEK  
ARERIOA INDARTZEKO  
DUTEN GAITASUNAZ  
OHARTARAZTEN GAITU  
[...] FEMINISMOAREN  
UHOLDE HONEK  
NEOMATXISMOA ESNATU  
DU ETA BORROKA  
HORIEK MUGIARAZTEN  
EZ BADITUGU, INDARTU  
EGIN DAITEKE.**

**BADIRA HIRU  
ALDARRIKAPEN  
FEMINISTA GIZARTEAREN  
GEHIENGOA ALDE  
DUTENAK, BATETIK,  
ETA URGENTZIAZKO  
NEURRIAK ESKATZEN  
DITUZTENAK, BESTETIK:  
SOLDATA ARTEKO  
DESBERDINTASUNA,  
LANAREN ETA  
FAMILIAREN ARTEKO  
ADISKIDETZEA EDO  
KONTZILIAZIOA, ETA  
GENERO INDARKERIA.**

**ESNATU  
EGIN  
GARA**



Mugimendu feministak beltzez janzteko eta besoko morea jartzeko deia egin zien herritarrei, greba feministarekin bat egiten zutela adierazteko. Eguerdian, hiriburuen erdigunea hartu eta eserialdiak eginez irudikatu zuten emakumeek haien esku dauden lan, enplegu eta funtzio prekarioei planto egiten badiete, mundua gelditu egiten dela. Irudian, Bilboko Moiua plazan egindako eserialdian, manifestari batek zeraman besoko morea.

ESNATU  
EGIN  
GARA

Feminitateari eta amatasunari buruz egin ditu feminismoak bere ekarpen interesgarriene-tako asko. Amatasun derrigortuaren pisua salatu du, familia arteko botere harremanak ikus-gai egin ditu, emakumearen hautua defenditu du. Normalada, beraz, feminista askok ama ez izatearen nahia errebindikat-za. Aldarrikapen importantea da, emakume horiek ahalduntzen ditu eta emakumearen leku tradi-zionala kolakan jartzen du. Bainaz ez dezagula ahaztu norbere burua askatzeko tresna izateaz gain, feminismoa borroka ko-lektiboa dela eta ama diren edo izan nahi duten emakumeek eskubide ekonomikoak eta politikoak behar dituztela. Erabaki horrek ez ditzan lan merkatuan zokoratu. Erabaki hori ez da-

din izan pobreziarako eta pre-karizaziorako bidea zabaltzen duen hautu bat. Badakigu jakin emakumeen kasuan pobretze horrek arrisku propioak dakartzala. Bikotekide edo familia batiezinbestean lotuta bizitzea, esate baterako, nahiz eta sistema toxikoa izan. Edo bortxazkoa. Tratu txarretatik alde egitea askoz zailagoa da norberak bere burua eta bere familia mantentzeko na-hikoa baliabiderik ez duenean.

#### Hiru: genero indarkeria

Tratu txarren arloan egin du gure inguruko feminismoak biderik luzeenetarikoa eta opa-roonetarikoa azken hamarkadetan. Zentzu horretan, duen garrantzia aitortu behar zaio José Luis Rodríguez Zapatero gobernuburu zela onartu zen

legediari. Genero Indarkeria ja-saten duten pertsonak babesteko aurrerapausoa izan zen eta fran-kismoaren gorroto misoginoaren apurtu zuen lege bakaneta-riko bat. Euskal Herrian ez dugu ahaztu Francorena ze diktadura latza izan zen nazio eta klase ikuspuntuetatik baina gehiago-tan gogoratu beharko genuke ze patriarkatu gaiztoan ito gintuen, 40 urte luzez. Eskoletan banatu gintzuten gizon eta emakumeok, Eliza boteretu, emakumeak le-gez adingabetu. Ordutik egin dugun bidea ahazten zaidanean amumarekin akordatu besterik ez dut. Senarraren tratu txa-rrak jasan behar izan zituen, hamarkadetan zehar, berak eta bere seme-alabek haurrek izan ziren bitartean. Hura hildakoan, ostera, alargundutako amumak

aholku on bat zeukan niretzat, "akordatu, Irati, orain gustukoa ez zaizun senarra aukeratzen baduzu, alda egin litekeela, ez lehen bezala". Dibortziorik gabeko une historiko bat tokatu zitzzion, senar eskas bat, tratu txarrerek izenik ere ez zeukaten sasoi bat. Gure amuma jaio zenean generoaren teoria bera oraindik garatu gabe zegoen. Etxe barruko bortxa etxe horretako kontua zen eta ateaz bestaldeko isiltasunak gordetzen zuen.

2004an –gure amuma oraindik bizi zela– Zapateroren lege hura tratu txarrak arazo politikoa zirela esatera etorri zen. Europan aitzindaria izan zen baina ordutik ibilitako bideak eta feminismoen nagusitasunak aurrerapausuak eskatzen dituzte. Gasteizko Legebiltzarra ere halaxe onartu zuen, 2017ko otsailean, eta aho batez eskatu zion Eusko Jaurlaritzari Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako lege propioa garantu zezala.

Andaluziak 2017an egin zuen bide hori eta Estatuko araua nazioartean eredu jotzen den Istanbulgo Hitzarmenaren irizpi-deetara moldatu zuen. Aldaketa horri esker, Andaluzian genero indarkeriak kaltetutakoak jotzen dira ez bakarrik bortxa jasan duen emakumea eta bere seme-alabak, baita ere haren kargu egon daitezkeen pertsonak. Eta salaketa egiten duen emakumeari ez zaio erasotzailearekin bizikidetzarik eskatzen legearen babesia lortzeko.

Euskal Herriak ere propioa merez du, ondoan behar gaituzten emakumeei, haien semeei, alabei eta familiei merez dituzten tresna politikoak, ekonomikoak, sozialak eta psikologikoak emateko. Gizarte osoak hobeto ulertzen du orain genero indarkeria

zer den eta tresna hobeak eskratu behar ditugu sistema gaizto honi aurre egiteko.

Ezinbestekoa dugu, adibidez, eta Istanbulgo Hitzarmenak dioen moduan, erasoak jasaten dituzten sexu arloko langileak ere genero indarkeriaren biktima moduan aitortzea. Lehen pausua litzateke –ez azkena– prostituzioa arautzeko bidean. Izan ere, Euskal Herrian badaukagu sexu langileei merez duten lege izaera emateko aukera. Munduko leku askotan, Spainiako estatuan tartean, prostituzioarekin bukatzearen aldeko mugimendu abolizionistak bahituta dauka langile hauen egoerari buruzko eztabaida. Prostituzioa bidegabea dela salatuta, isilarazi egiten dituzte prostituten eskakizunak. Haien ustez, ez dute arautzerik merez, egiten dutena ez luketeelako egin beharko. Zorionez, Euskal Herrian mugimendu krudel eta sakonki misogino honek ez dauka hegemoniarik feminismoaren baitan eta egoera hori probestu genezake emakume hauei merez dituzten lan eta osasun arloko eskubideak aitortzeko.

#### **Laburbilduz: hemen eta orain**

Aipatutako horiez gain, badira konponketak eskatzen dituzten beste hainbat alor ere, jakina. Ziur nago asko egin litekeela hezkuntza sistema feminista go baterantz aurrerapausuak ematen segitzeko. Eta Irlandaren adibidea ikusita, beharbada ez genuke zertan konformatu emakumeen eskubideak horrenbeste mugatzen dituen abortu lege hipokrita batekin. Ezker abertzaleak hortxe dauka, beharbada, adibiderik onena. Sinn Feinn-en eskutik –eta hark parlamentuan gehiengorik izan gabe-harritzeko moduko aurrerapauso

**EZINBESTEKO DUGU,  
ADIBIDEZ, ETA ISTANBULGO  
HITZARMENAK DIOEN  
MODUAN, ERASOAK  
JASATEN DITUZTEN SEXU  
ARLOKO LANGILEAK ERE  
GENERO INDARKERIAREN  
BIKTIMA MODUAN  
AITORTZEA.**

**NEKEZ IMAJINATU  
DAITEKE FEMINISMOAREN  
GAITASUN ERA DATZAILEA  
DAUKAN MUGIMENDURIK  
EDO HURA BAINO  
HUMANOAGORIK  
ETA JUSTUAGORIK.  
EMAKUMEONTZAT  
Patriarkatua Kartzela  
TERRIBLEA DA BAINA  
GIZONENTZAT ERE BAI,  
KARTZELA ORO TERRIBLEA  
DEN NEURRIAN.**

**IRAGANEKO GARAIPEN  
FEMINISTEI ZOR DIEGU,  
HAIN ZUZEN, GURE  
ARTEAN OLDARTU DEN  
KONTZIENTZIA ZABAL  
HONI EMAITZA POLITIKOAK  
EMATEA.**



Milaka herritarrek bat egin zuten greba deialdi feministarekin eta ehunka izan ziren Euskal Herri osoko kaleak hartu zituzten emakumeak. Hiriburuetañ eguerdian eta arratsean egindako mobilizazioetan bildu zen jende gehien. Bilbon, esaterako, gainezka egin zuten Arriaga antzokiaren eta udaletxearen aurrekaldeak. Irudian, udaletxe aurrean bildutako jendetza keinu feministak egiten.

feministak egin ditu Irlandak, emakumeei eta pertsona homosexualei eskubideak arautzeko.

Esan beharrik ere ez dago oztopoak helburuen tamainakoak izango direla. Baino nekez imajinatu daiteke feminismoaren gaitasun eraldatzailea daukan mugimendurik eta hura baino humanoagorik eta justuagorik. Emakumeontzat patriarkatua kartzela terriblea da baina gizonentzat ere bai, kartzela oro terriblea den neurrian.

Ez dakigu noraino eraman gaitzakeen feminismoaren indar eraldatzaileak baina orain arte eman diguna ikusita, baikorrak izatea baino ez zaigu geratzen. Iraganeko garaipen feministei zor diegu, hain zuen, gure artean oldartu den kontzientzia zabal honi emaitza politikoak ematea. Hemen eta orain.

ESNATU  
EGIN  
GARA



IPARRALDEKO HERRIALDEEN ESPERIENTZIA

# BERDINTASUNAREN BIDEAN



Elena Beloki. Iratza Fundazioko kidea.

*"We have to talk about liberating minds as well as liberating societies. Walls turned sideways are bridges."*

ANGELA DAVIS

Ondorengo lerroetan hain ezaguna den Eskandinaviako<sup>1</sup> genero berdintasun politikei begiratuko diegu. Estatu horietan lortu den ongizate estatua eta genero zein berdintasun sozialaren arteko lotura ezinbesteko erreferentzia bilakatu da. Iparraldeko herrialdeek, genero berdintasun politikak neurzen dituzten nazioarteko indize altuak dituzte eta sailkapenen goi postuetan kokatzen dira. Zerk ahalbidetu du egoera hori? Zergatik mantendu da denboran zehar? Eskandinaviako genero berdintasunari buruzko modelo batez mintza daiteke? Galdera hauek kontutan izanik, Eskandinaviako estatuen izaeraren eraldaketak genero politiketan izan duen eraginari erreparatuko diogu. Ondoren, gogoeta bat partekatuko dugu; mundu mailako krisi anizkoitz hau sortzen ari den konfigurazio sozioekonomiko berrien aurrean, ze ikasgai atera ditzakegun eskandinaviar esperientziatik.

**Vigeland.** Artikulu hau ilustratzen duten eskulturak Osloko Vigeland parkeko artelanak dira. Gustav Vigeland [1869-1943] eskultoreak lan honen bidez jaiotzatik heriotzara bitarteko giza kondizioa eta botere harremanak irudikatu nahi izan zituen.

"XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran Iparraldeko herrialdeetan berdintasun soziala balore politiko gisa aintzat ematen hasi ze."

"Ongizate estatuak hasieran emakumeak hiritartasun politikotik, zibiletik eta sozialetik kanpo utzi zituen. Garaian garaiko erakunde feministen lanak eta borrokak genero berdintasunaren aldeko politikak abian jarri eta estatuaren norabide antipatriarkala definitzen joatea lortu zuten."

**X**IX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran Iparraldeko herrialdeetan berdintasun soziala balore politiko gisa aintzat ematen hasi zela esan genezake. Nekazari eta langile mugimenduen indarrak ongizatearen ideia zabaltzearekin batera, alderdi sozialdemokratak politika birbanatzaleak egitera bultzatu zitzuten. Politika horien iraupena, halere, aliantza politiko eta sozial zabalera edo kontsentsu handien emaitza izan dira, eskuineko alderdiek dimentsio unibertsala eta zerga altuen sistema hein batean sustatzen dituztelako.

Ongizate estatuak hasieran, ordea, emakumeak hiritartasun politikotik, zibiletik eta sozialetik kanpo utzi zituen. Garaian garaiko erakunde feministen lanak eta borrokak genero berdintasunaren aldeko politikak abian jarri eta estatuaren norabide antipatriarkala definitzen joatea lortu zuten. Amatasun eta aitatasun bajari buruzko eskema zabalak, zaintza lanarentzako gizarte zerbitzu publiko estentsiboak edota goi mailako erabakiguneetan emakumeen ordezkaritzeta sendoak izan ziren lorpen horietariko batzuk. Iparraldeko sistema politikoek gizarte zibi-

leko indarrei, eta kasu honetan erakunde feministei, kasu egin eta erantzunak ematen zizkielako gauzatu ahal izan ziren. Garai horretako erakunde feministek kontuan hartzen zitzuten bi ideia dira nabarmentzekoak. Batetik, 1960tik 1990eko hamarkadara bitartean, estatuaren izaera instituzionala eta instrumentalala aldatzea zen helburua; funtsezko aldaketak bideratu beharra. Besteak beste, esparru publikoaren eta esparru pribatuaren arteko banaketarekin bukatzea eta, beraz, lana, familia eta estatuaren arteko bestelako harremana bideratzea. Ongizate estatua gorpuzteak funtsezko aldaketa horiek ematea ahalbidetzen zuen, Eskandina viako estatuak hiru ardatzak ezaugarritzen baitituzte: estatuaren presentzia<sup>2</sup> eta eskuhartzea, unibertsaltasuna eta berdintasuna.

Helga Hernes<sup>3</sup> norvegiar akademikoak lorpen garapen horri "women friendly policies"<sup>4</sup> edota "state feminism" izena eman zion. Kontzeptuak, batzuen iritziz eztabaidagarria izanik ere, emakumearen emantzipazioa eta genero berdintasunaren aldeko politikak sortzeko Estatuaren eskuhartzea agertzen du. State feminism kontzeptuak es-

tatua bera, orduko feminismoa –kalekoa– eta politika instituzionalaren arteko lotura estua agertzen diu.

#### **Publiko/pribatua debatea**

Helga Hernesen iritziz, 70 eta 80 hamarkadetan zehar Eskandinaviako estatuek genero politika parekideak sustatzeak, erprodukzio soziala esparru publikoan kokatzea ekarri zuen. Eta hala izan bazen ere, publikotasuna genero parekidetasuna segurtatzeko ez da aski. Feminista gehienek iritziz, garai horretan publiko eta pribatuaren arteko banaketa gainditzenko bideak genero dimentsio handia galdu zuen, publikotasuna lehenetsi zelako. Izan ere, botere egituren karga maskulinoa handia da bizitzako alor guztietan eta publikotasunak bestelako neurririk gabe ez du karga hori gutxitzen. Genero gaietan aditua den Anette Borchorst-ek<sup>5</sup> publiko eta pribatuaren arteko muga jaria-korra dela, eta gainera hainbat negoziazio eta marko ezberdinaren arabera ematen dela dio. Azken hamarkadetan merkatuak lortu duen ikusgarritasuna dela medio, publiko-pribatuaren arteko banaketari buruzko eztabaida garrantzi handikoa bilakatu da. Gainera, hainbat erreprudukzio zereginen bir-familiarizatzearen



ondorioz, gaiaren garrantzia azalarazi da.

Esaterako, kudeaketa publiko berriaren printzipioetan oinarritua, etxeko zaintzei buruzko diru-laguntzak edo gurasotasun bajaren onuradunari buruzko debateak egiten ari ziren –egun, irekia jarraitzen du–, beti ere askatasun indibidualaren irizpidea gidari zela. Hainbat adibide jar daitezke: 1998an Norvegiako demokrata kristauek gobernuan zeudela “cash for cash sistema” deritzon formula onartu zuten. Suediak bide berari segitu dio “free choice” ideiari helduta. Danimarkan berriz zaintzaren ardura udalaren esku utzi zen, baina eragina mugatua izan zen eta 1997an aitatasun baja ezarri zen. 2002an alderdi liberalak neurria kendu zuen eta publiko-pribatuaren arteko banaketa birdefinitu zuen “aitatasun baja” familiaren barruko aferen barruan kokatzeko mehatxua eginaz. Bainam amatasunaren bajari ez zitzaion trataera bera eman. Alderdi liberalak eta zentro-ezkerreko beste aktore batzuek neurria beharturiko genero kuotatzat jo zuten eta aipaturiko eztabaidan eragin handia izan zuen.

Borschorstek dionez publiko-pribatuaren arteko harremana ez da berdina herrialde guztieta. Horien arteko harremana ezberdina da lurralteko bakoitzean genero-berezitasun argumentuetak eta feminismoak duen indar harremanaren arabera. Genero kuotak eta ekimen politikoak bereziki kontraesankorrak dira batzuetan eta besteetan, emakumeen kasuan lan merkatuari eta ordezkaritza politikoari dagokionean eta gizonen kasuan familiaren zaintza lanei dagokienean. Are gehiago, publiko-pribatuaren arteko orekak

mugimendu feministaren era-gina isla dira. Danimarkan oso zatituta daude bi espazioak eta aldiz Suedian, oso indartsua da bien arteko harremana. Bainoa oreka hori eskuin-ezker ardatzaren arteko ispilua ere badela dio Borschorstek. Eskuineko alderdiak politika birbanatzai-leetan estatuaren esku-hartzea indartzearen kontra daude. Dena den, baieztapen horrek zati batetan soilik azaltzen du dagoen banaketa, ez dagoelako Espaniako eskuineko alderdien arteko jarrera komunik eta nazioñiabardurek ere eragina dutelako: Danimarkako eskuina eta Suediako ez dira berdinak, adibidez.

Beraz, Eskandinaviako herrialdeak haurren zaintzari eta gurasoen bajari dagokionez aurrerakoia badira ere, eskema zabalak eta gogotsuak planteatuz, erreprodukzio soziala arlo publikoan kokatzeko garaian, zaitasunak topatu dituzte. Publiko eta pribatuaren arteko banaketa edo muga herrialde batetik bestera aldakorra izateaz gain, banaketa hori sozialki eraikia den heinean, hainbat auzi eta gatazkaren menpekoa da: lan arlokoak, ordezkaritza politikoari dagozkionak edota etorkizunean suertatuko diren arazo berriei lotuak; besteak beste, emakume etorkinen marginalizazio eta esklusioarekin zerikusia dutenak. Horren aurrean indar ezberdinak nola mugituko diren, eta mugimendu feministak izango dituen ekimen propositiboak (instituzioetatik kanpo bereziki) eta aliantzak josteko ahalmenak determinatuko dute etorkizunean erreprodukzio sozialaren kokapen publikoa.

**Genero berdintasunari buruzko modelo nordikorik ba ote?**  
Iparraldeko estatuak ez dira

"Genero gaietan aditua den Anette Borchorst-ek<sup>5</sup> publiko eta pribatuaren arteko muga jariakorra dela, eta gainera hainbat negoziazio eta marko ezberdinen arabera ematen dela dio. Azken hamarkadetan merkatuak lortu duen ikusgarritasuna dela medio, publiko-pribatuaren arteko banaketari buruzko eztabaida garrantzi handikoa bilakatu da."

"Eskandinaviako herrialdeak haurren zaintzari eta gurasoen bajari dagokionez aurrerakoia badira ere, eskema zabalak eta gogotsuak planteatuz, erreprodukzio soziala arlo publikoan kokatzeko garalan, zaitasunak topatu dituzte."



feministak izan, baina genero berdintasunaren aldeko politikak bideratu dituzte. Egoera hau emakumeen mobilizazio politikoaren eragina eta genero berdintasunaren instituzionalizazioaren arteko uztartzearen ondorioa izan zen. Arestian esan dugunez, prozesu honi “women friendly welfare state” edota “state feminism” izena eman zitzaison, eta kontzeptua beste herrialdetara zabaldu den arren, Herri Nordikoetan izan duen esanahia ez da herrialde horretatik kango aurkitzen, Eskandinaviako ongizatearen urrezko garaian proposatu zelako eta ongizatearen estatu naturarekin lotutik dagoelako Feministen mobilizazio indartsuen efektuak eta euren eskakizunen aldeko alderdi zein mugimendu

politikoek egiturek bultzatu zi-tuzten emakume politikariak estatua tresna gisa erabiltzera. Era horretan, estatua, genero parekidetasuna eta politika aldeko espazio bilakatu zuten. Anette Borchorstek 2000. urtean Iparraldeko genero berdintasun modeloa bi ardatzen bidez definitu zuen: bizitza politikoan goi mailako parte hartzea eta lan ordaindua. Bi ardatz horiek zera ekarriko zuten: hezkuntza berdintasuna, lan berdinagatik soldatua berdintasuna, genero oreka familial eta lan merkatuan, bozkatzeko eskubide berdintasuna...

1970eko hamarkadatik aurrera, iparraldeko gobernuek genero berdintasuna sustatzeko eta abiatzeko politikak garatu zituz-

ten, eta lana-familiaren arteko oreka edota kontziliazioa da Iparraldeko modeloaren bereizgarria: amatasun eta aitatasun baja, laguntza ez duten gurasoentzako zaintza zerbitzu publikoa eta haurtzaindegia publikoak -batik bat udal haurtzaindegia-. Esan daiteke lana-familiaren oreka, ekonomiaren berdintasuna erdiesteko bidea izan dela. Norwegian adibiderik eraginkorrena dugun bitartean, Finlandian haurtzaindegia sistema ahulena dago, diru laguntza eta zerbitzu publikoen arteko sistema berezitua duelako. Haatik “cash for care benefit” sistema edota zaintzagatik diru-laguntzen sistema dei genezakeen formula gainontzeko herrialdeetan baino instituzionalizatuagoa du. Bestalde, parlamentuetan zein

erabakigune politikoetan genero berdintasuna arautu eta sustatzeko hainbat neurri eta politika abian jarri dira. Kuoten gaiak, ordea, ez du adostasun nordikorik lortu. Horrela, Islandiak, Norvegiak eta Suediak %40tik %60ra arteko kuota eta hautes-zerrendetarako kremaillera sistema martxan jarri duten bitartean, Danimarka zein Finlandiako alderdiek ez dituzte neurri horiek onartu, batez ere, Finlandiako parlamentuan emakumeen presentzia oso altua delako. Kuoten gaiarekin jarraituz, Norvegia enpresa zein korporazioetako zuzendaritzetan kuoten irizpidea proposatzen (1999n) eta sartzen (2003an) lehena izan zen. Islandia Norvegiaren ondorengoa izan zen 2010ean. Eta Suediak Norvegiarekin batera hasi bazuen ere, ez zuen berarekin batera jarraitu. Maila baxuagoan Danimarka topa dezakegu. Sozietate publiko mugatuetako zuzendaritzetan, parekidetasunaren eskema sartzeak ekonomia esparruan genero berdintasuna sustatzea du helburu eta aurrerapen esanguratsuak geratu dira. Ildo honetan eta berdintasun ekonomikoaren aldeko politikei dagokienez, esan behar da legislazio nordiko guztiak, diskriminazioaren kontrako babesaz gain, agintari zein lan emaileen betebeharra biltzen dituela; eta, era berean, soldaten berdintasunari buruzko arautzeak aintzat hartzen dituztela. Baina legislazio guztiak dituzten bi helburu hauetatik kanto, zaila da esatea genero berdintasunaren aldeko politiken perfil komuna dagoenik, J. Kantolak edo M. Teigenek<sup>7</sup> diotenez.

Laburbilduz: genero berdintasunaren aldeko konpromiso eta garapenari dagokionez Eskandinaviako modelo bakarra ez dagoen arren, gainontzeko herrialdeei

abantaila nabarmena ateratzen diete. Halere, 2008ko krisi finantzieroaren ondorioz eta populazioaren mugikortasunak eta migrazioak alda dezakete orain arte ezagutu dugun joera, batez ere, publiko-pribatuaren arteko banaketari dagokion arloan.

### **Gogoetarako ideia pare bat**

Iparraldeko genero politiken paisaia nabarmenki aldatu da azken 50 urteetan. Baina ongizate estatuaren eraldaketak, ekonomia integrazio prozesuen ondorioak, nazioarte mailako instituzioetan genero gaien presentziak, eta instituzioetatik kanpoko mugimendu feministaren agentziak -egileta-, proiektu feministarentzako testuinguru berri bat sortu dute. Horrek Iparraldeko herrialdeetako mugimendu feministaren estrategia eta ideiak astindu ditu, erronka berriak planteatuz eta espazio difenteetan kokatzeko beharra agertuz. Besteak beste, elkartsuna, genero parekidetasuna eta justizia sozialari buruzko ideien inguruko berrikuspena proposatzen ari da, sexualitatea, arraza eta etniaren kategoriak periferia politikotik erdigune politikora mugitu direlako.

1 "Eskandinavia" eta "Iparraldeko herrialdeak" hitzak indistintoki erabiliko ditugu, nahiz eta geografikoki Eskandinavia, Norvegiako eta Suediako mendien penintsula izan eta Iparraldeko herrien barruan Norvegia eta Suediarekin batera, Danimarka, Finlandia, Islandia, Faroe, Aland eta Groenlandia koka daitezkeen, batez ere 1950eko Nordic Council eta honek ahalbidetu zuen kooperazio politika instituzionalizatu ondoren. Islandiako salbuespen batzuk izan ezik, ongizatearen terminoetan herrialde hauen ezaugariak ondorengoa dira: estatalismoa, unibertsaltasuna eta berdintasuna.

2 Eskandinaviako jendartea ez dira bitartekaritzako egituretan oparo, eta politika antifamiliaristen aldeko estatalitatearen presentzia bermatu ahal izateko udalek oso paper importantea jokatu dute eta jokatzen dute gaur egun ere.

3 HERNES H: El poder de las mujeres y el estado del bienestar. Vindicacion feminista. 1990

4 Women friendly policies eta state feminism kontzeptuak ezin dira literalki itzuli. Hainbat aditu kutsu antipatriarkaladun estatu definizioa erabiltzearren aldekoak dira. Baina beste batzuk erabilen honen kontrakoak dira eta proposatzen dute genero parekidasunaren aldeko politikak erabiltzea.

5 Borchorst. A in BERGQUIST CH.: Equal Democracies?: Gender and Politics in the Nordic Countries. Ed. Nordic Council. 1999. Oslo

6 Sistema horren bidez bi gurasoen familia batean aitak hilabetez etxeko zaintzaz arduraztearen truke diru-laguntza jasotzen du eta besterenezina da. Esan nahi da amarentzako ez dagoela horrelako neurirrik.

7 KANTOLA J: Feminists Theorize the State. Palgrave. MacMillan. 2006. TEIGEN.M: .Political constructions of gender equality: Travelling towards... a gender balanced society?. Nordic Journal of Women's Studies. 2005



# PROSTITUZIOARI BURUZKO SUEDIAR ESPERIENTZIA

Prostituzioari buruzko eztabaidea konplexua da, botere harremanek zeharkatzen dute eta atal askori begiratu behar zaio: sexu indarkeria, “trata” edo sexu merkatua, borondatea... Horrez gain, eragile sozial eta politiko askoren esku hartzea ere badakar. Gai korapilatsu horri ere inoiz heldu beharko diogulakoan, eztabaidea hori elikatzeko asmoz, suediar ereduari begiratu diogu:

1999ko urtarrilaren 1ean Suediak prostituzioa zigortzen duen lege bat onartu zuen. Legeak hiru atal nagusi biltzen ditu. Lehen biak legearen beraren definizioari dagozkio eta hirugarrena legea implementatzeko erre-kurtso materialei. Hurrenez hurren:

01

SEXU ZERBITZUEN  
EROSKETAREN  
PENALIZAZIOA

02

SEXU ZERBITZU  
HORIEN SALMENTAREN  
DESPENALIZAZIOA

03

DIRU PARTIDA  
GARRANTZITSUAK  
SEXU JARDUERA UTZI  
ETA BESTELAKO LANA  
AURKITU NAHI DUTEN  
PROSTITUTENTZAKO.

Lege hau feministen borrokak genero berdintasunaren aldeko politikak bideratzen lagundi zutelako eta horrek Suediako jendartearren arlo ezberdinetan emakumeen presentzia eta egi-letza handia ahalbidetu zuelako izan zen posible. Esaterako, legea onartu zen urtean, Estokolmoko Parlamentuan %50 ziren emakume parlamentarioak. Suediar esperientziak bestelako ikasgaiai ere uzten dizkigu.

Legea indarrean jartzearrekin batera, begiztatzea beharra eta hau bideratzeko ataleko funtzionarioentzako nahita nahiezeko


trebakuntza jarri zitzuten abian. Eta noski, horretarako bitarte-koak ere bai.

Legearen beharra, proposamena eta eztabaideen protagonistak emakumeen erakundeak izan ziren. 2002an 1999ko legearen eranskin bat onartu zen. Eranskin hau giza trafikoaren debe-kuari buruzko lege bilakatu zen eta aurrekoak zituen hainbat gabezia bete zituen.

Gaur egun sexu langileen %80-ak sexu jarduera utzi du. Prostituzioa desagertu ez bada ere, Eskandinaviako beste herrietako

zifrekin konparatzen badugu, nabarmen egin du behera: Finlandian adibidez, 15000 eta 17000 emakume prostituitzen diren bitartean, Suedian 1000 eta 5000 artean dira. Suediar modeloa interesarritzat jo dute Norvegiak eta Finlandiak eta horri jarraiki zaizkio.

Seguruenik ez daude soluziobide definitiboak, eta gaur egun da-goen krisi ekonomiko eta sozaialak ez du horretan laguntzen, baina eztabaidarako Suediako adibidea kontutan hartzeko moduko esperientzia izan daiteke.



Gizonak eta emakumeak lanaldi partzial egoeran 2008ko eta 2014ko lan merkatuetan



## Soldata arrakala



## Emakumeen ordezkaritzaren bilakaera iparraldeko herrialdeetako parlamentuetan

	Danimarka	Finlandia	Islandia	Norvegia	Suedia
Lehen hauteskundea	1918	1907	1922	1921	1921
%10eko langa gainditzen duen lehen hautsekundea	1966	1907	1983	1972	1953
%20eko langa gainditzen duen lehen hauteskundea	1979	1970	1987	1977	1973
%30eko langa gainditzen duen lehen hauteskundea	1988	1983	1999	1985	1986
%40eko langa gainditzen duen lehen hauteskundea	Inoiz ez	2007	2009	2009	1994
Emakumeen ordezkaritzarik altuena	%39	%42	%43	%40	%47
Emakumezkoen ordezkaritza azken hauteskundeetan	%37	%42	%40	%40	%44
Emakumezko lehendabiziko lehen ministroa	2011	2003	2009	1981	Inoiz ez
Emakumezko lehen presidentea	Aplikaezina	2003	1980	Aplikaezina	Aplikaezina

## Iparraldeko Estatuetako puntuazioa, genero-berdintasuna dela-eta

	Ekitate ekonomikoa			Parekotasun demokratikoa
	LANA	DIRUA	BOTREA	
Danimarka	76,8	76,4	55,7	
Finlandia	72,6	79,9	75,7	
Suedia	81	80,6	71,7	
Aldea: baxuena vs altuena	8,4	4,2	20	

## Europako Batasuneko Iparraldeko estatuen batezbesteko puntuazioa eta Europako Batsauneko puntuazioa genero-berdintasun indizeari dagokionez

	Ekitate ekonomikoa			Parekotasun demokratikoa
	LANA	DIRUA	BOTREA	
Iparraldeko batezbestekoa	76,8	78,9	67,5	
EB batezbestekoa	61,9	67,8	39,7	
aldea: Iparraldea-EB	14,9	11,1	27,8	

## ENTREVISTA

# CAMILO CEJAS

Miembro del área de Comunicación del Movimiento de Participación Popular de Uruguay.

Testua: ERRIA / Argazkiak: FOKU

El MPP es un grupo político perteneciente al frente amplio, fundado por ex guerrilleros del Movimiento de Liberación Nacional-Tupamaros. En 2009, uno de sus miembros, José Mujica, llegó a la presidencia, para después renunciar al MPP durante el mandato, para ser el candidato de todos los miembros del Frente Amplio.

En esta entrevista Camilo Cejas desengrana algunas cuestiones sobre la organización del Frente Amplio de Uruguay, referentes a la composición del frente amplio, a su realidad institucional, y al momento político de su pueblo. Haciendo una lectura del momento actual de América Latina, Cejas ofrece una mirada autocrítica desde su experiencia frenteamplista, y también, algunas claves para superar obstáculos en el futuro.



**E**n Euskal Herria tenemos una experiencia parecida a Uruguay, bastante reciente, en torno a la formación de un frente amplio. Teniendo en cuenta todas las diferencias que pueda haber, empezando por la composición, la estructura, el número de partidos, etc., siempre nos interesa aprender de otras experiencias, aún cuando las diferencias puedan ser grandes.

**¿Cuál es la composición del Frente Amplio en la actualidad y como se organiza?**

El frente amplio es una coalición de 28 partidos, y abarca desde el espectro ideológico demócrata cristiano hasta el marxista leninista. En medio de los dos, tienes gente que entiende que es progresista en términos de evolución de la sociedad, luego otros que creen en la liberación nacional y el

socialismo como el MLN (Movimiento de Liberación Nacional-Tupamaros) y MPP, y el partido comunista que también tiene una coincidencia estratégica en el objetivo con los anteriormente mencionados. Todo eso compone el arco frenteamplista.

Es importante subrayar que es una experiencia que no se puede copiar en otros países. El fundamento del frente amplio

**“El frente amplio no presenta listas. Los que presentan listas son los sectores. Entonces en la elección tu puedes votar a los demócratas cristianos, a los progresistas, comunistas... Pero el candidato a presidente es del Frente Amplio.”**



es que no es un acuerdo electoral, sino programático. Antes de las elecciones el frente amplio debate en toda su estructura el programa que va a llevar adelante, el que va a presentar a su pueblo, para las elecciones. ¿Qué implica esto? Que los demócratas cristianos, partido comunista, MLN, etc., se sienten a negociar con sus bases y tratan de llegar a un acuerdo común.

Hasta el día de hoy el frente amplio se define en rasgos generales como antiimperialista y anti-oligárquico. Esos son los dos grandes ejes que une ese arco. Ese es el acuerdo que en este momento hay a nivel histórico que esta permitiendo que gobiernen fuerzas progresistas en Uruguay.

**¿Que mecanismos tiene el Frente Amplio para dirimir los desacuerdos entre los partidos políticos que lo conforman y tomar decisiones conjuntamente?**

El funcionamiento es el siguiente: el gobierno es el gobierno del frente amplio. Y después, cada organización en su día a día trabaja de acuerdo con sus objetivos. Pero son dos

niveles diferentes y diferenciados. El paraguas, lo que se acuerda en el frente amplio se respeta.

En diciembre de 2018 haremos un congreso programático porque vamos a ir a las elecciones el próximo año. En el 2019 gane quien gane, siendo comunista, demócrata cristiano, etc., el compromiso será el de cumplir el programa que acordó el frente amplio, no el de su partido.


Después, en la vida cotidiana cada uno sigue en su lucha particular. Entonces, cuando el pueblo se siente seducido por alguna política del frente amplio decide a qué partido concreto votar. En realidad, hay un pueblo frenteamplista, el gran arco, que en realidad, más allá de su partido concreto es frenteamplista. Lo que las elecciones deciden es que sector lo representa más, nada más. Nosotros llevamos el movimiento de participación popular. Hemos tenido tres elecciones en los que hemos sido mayoría en el frente amplio. Pero hay que subrayar que nunca se genera una mayoría absoluta hacia un sector en el Frente Amplio.

**¿Cómo se reflejan los porcentajes de cada partido en cuanto a la representación que van a tener en el frente amplio?**

El frente amplio no presenta listas. Los que presentan listas son los sectores. Entonces en la elección tu puedes votar a los demócratas cristianos, a los progresistas, comunistas... Pero el candidato a presidente es del Frente Amplio. A veces es complejo representar esto que digo hacia fuera, pero ese es el acuerdo: tu acuerdas el programa y después cada uno corre por sus listas, la lista mayoritaria no se impone a las demás, sino que tiene un acuerdo general con el frente amplio.

**Ahora estáis en la segunda la mitad de la legislatura. Dos legislaturas con Pepe Mujica y otra con Tavaré Vazquez. Después de la experiencia acumulada estos años, ¿cuales dirías que son los mayores obstáculos para avanzar en vuestros objetivos? ¿Cuáles son los retos políticos y sociales del futuro?**

El principal problema que tenemos es la gestión del estado, la administración de la sociedad capitalista, esto es: manejar un estado que crearon otros y





**“El principal problema que tenemos es la gestión del estado, la administración de la sociedad capitalista, esto es: manejar un estado que crearon otros y que vos tratas de modificarlo”**

“Camillo Cejas ha venido a Euskal Herria en varias ocasiones. La última vez participó en el acto de Miribilla “Baietza Sortzen”.

**“Lo que está pasando es que la derecha ha tomado la decisión de volver a tomar el poder, más concretamente, a tener el poder de la administración del estado”**

que vos tratas de modificarlo. El factor fundamental que nos ha permitido hacer lo que hicimos es que hemos tenido la mayoría parlamentaria. El frente amplio tenía mas del 50% de los legisladores. Eso ha evitado que tuviéramos que negociar con algunos sectores conservadores de nuestra sociedad.

Seguramente, en las próximas elecciones corremos el riesgo de no llegar a la mayoría. Eso nos obligará a negociar con la oposición. Esto es producto del desgaste de las decisiones que tomas, unas populares y otras no, y del desgaste de la gestión misma.

De alguna forma, también hemos abandonado el trabajo político con nuestro pueblo. Para paliar esto, este año hicimos una campaña que se llama “Mate en mano con la gente”. El mate es algo que tomamos en Uruguay, una bebida popular. Convocamos a las plazas a la gente, en una ronda de mate a dos micrófonos debatimos sobre los problemas de la gente, y sobre los problemas del país.

La administración del gobierno te lleva a encerrarte en las instituciones, y muchas veces pierdes esa construcción política junto a tu pueblo. Para no correr el riesgo de no tener mayoría parlamentaria, estamos volviendo, no tarde, a construir de nuevo ese ida y vuelta que nos hizo fuertes como movimiento y como frente amplio.

#### **Se habla de un cambio de ciclo en América Latina.**

El cambio de ciclo lo quiere instalar la derecha. De hecho, lo que esta pasando es que la derecha ha tomado la decisión de volver a tomar el poder, más

concretamente, a tener el poder de la administración del estado. Porque el poder real, está en otros sitios.

¿Qué ha pasado? En Argentina ganó Mauricio Macri después de unas elecciones, y eso implicó que creciera la pobreza, que se hicieran reformas laborales contra los trabajadores, que se retuvieran las retenciones... La derecha intenta hacer políticas a favor determinados sectores de la sociedad que fueron desfavorecidos por el progresismo: esto genera problemas que los sufre el pueblo, las clases populares. En Brasil, directamente le dieron un golpe parlamentario a Dilma Rousseff y encarcelaron a Lula da Silva sin ningún tipo de prueba. Las dimensiones que esto tiene para Brasil son enormes:

Por lo tanto, más que un cambio de ciclo es un cambio de la resistencia. El ahora presidente ilegítimo Michel Temer hizo la primera reforma que propició lo siguiente: una trabajadora para jubilarse tiene que tener 49 años aportados a la caja común. Imagínate con la dimensión de Brasil para certificar 49 años de trabajo, es casi imposible. Esta medida es una barbaridad. ¿Por qué toman estas medidas? Porque la derecha cuando llega a gobiernos barre con todas las conquistas progresistas.

#### **¿Qué papel juega Uruguay ante esa ofensiva de la derecha?**

Uruguay sigue siendo una luz junto a Bolivia en términos de gobierno progresista, dos países que se han transformado en una trinchera de resistencia. ¿Qué va a pasar? No sabría decírtelo. La única forma de poder revertir esta situación es militando, estando con el pueblo, aceptando las críticas que te hace el pueblo.





# Multiculturalismo, ciudadanía y articulación política



Andoni Olariaga. *Iratzar Fundazioko kidea.*

Argazkiak: wikipedia commons

